goiena"
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA
2015-01-16
EGUBAKOITZA
624. ZENBAKIA
14. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS
TOKIKOM

## "Biomasaz berotu ahalko da Ibarra datorren neguan"



**Ramon Ajuria** | Aramaioko alkatea | 24

## Eskoriatzako Kultur Mahaiak egitaraua prest

Otsail hasierara bitarteko ekitaldiak zehaztu dituzte | 30

Aizkorri-Aratz, Kontserbazio Bereziko Eremu izendatuta | 9



Eskoriatzako toponimiaren gaineko lana gertu dago | 22



Arrasatearrek erabakiko dute Arbolapetan ze zuhaitz mota landatu | 10



# Etxez etxeko laguntzetara 661.400 euro

Oñatiko Udal Gobernuak saiakera berezia egin du gastu sozialak mantendu edo indartzeko | 18

Herritar bat Oñatiko Kale Barrian.

JAGOBA DOMINGO

# Kalean da 'Puntua'!

- ▸ Atzo, eguena, aurkeztu zuten
- ▸ Egubakoitzero argitaratuko da | 4




Tokikom-eko eta Hekimen-eko hainbat ordezkari. | IMANOL SORIANO



*Puntua*-ren lehen zenbakia. | I.S.




Larrañaga, Laka eta Deogracias. | I.S.

## Aratusteetarako kantua asmatu dute Aretxabaletan | 20

## Oñatitik sartu eta Elgetatik irtengo da Korrika 19 | 2

## Ganbara Txiki abesbatza bihar, zapatua, itsasoratuko da



Musikaleko partaideak. | A.A.

### SINADURAK


XABIER ARREGI | 6

6 | JON BEREZIBAR



PEDRO GARITANO | 16

22 | MARISOL ANDRADE



ANDER ETXEBERRIA | 40

| DEBAGOIENA 2 | IRITZIA 6 |
HERRITARRAK 8 | HERRIAK 9 | KIROLA 26 |
KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35 |
TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 |
ESKELAK 37 | NON-ZER 38

# Oñatitik sartu eta Elgetatik irtengo da Korrika, ibarrean

- Martxoaren 19an, egubakoitzean, hasiko da, Urepelen (Nafarroa Beherean)
- Astelehenean pasatuko da Debagoienetik, 06:30ean Oñatira sartuta

**UBANE MADERA** | DEBAGOIENA

Martxoaren 23a. Astelehena. Horixe da debagoiendarrok egutegian gorriz markatu beharreko eguna, orduantxe ailegatuko da-eta Korrika, euskararen alde egiten den lasterketarik erraldoiena, eskualdera. Oñatitik sartuko da (Udanatik) eta Elgetatik, berriz, irten, Elorriorako bidean, Bizkaira sartzeko –Debagoieneko ibilbidearen gaineko xehetasunak zatiduran daude.

Aurten, goizean goiz hasiko dira debagoiendarrak euskararen aldeko aldarria barreiatzen: 05:30ean iritsiko da 19. Korrika Udanara, eta aurreikuspena da 06:30ean sartzea Oñatira. Handik Elorregira joko du eta gero Arrasate-Aretxabaleta-Eskoriatza-Aretxabaleta-Untzilla-Aramaio-Arrasate-Elorregi-Bergara-Ubera-Elgeta ibilbidea egingo du. Bada, aurreikuspena da 12:30ean lagatzea Debagoiena, Elorriorako bidean.

Edozein modutan, oraindik ez daude salgai eskualdeko ibilbideari dagozkion kilometroak.



Aurtengo Korrika Durangon aurkeztu zen, abenduan. | KORRIKA

### Norbanakoaren ahalmena

*Euskahaldun* da Korrikaren aurtengo leloa. "Ahal izatea nahi izatea da; eta adierazi nahi dena da norbanakoak duela ahalmena euskaldun izateko, euskaldunei bidea emateko, euskal espazioak sortzeko, parte izateko... hau da, ahalmena gurea dela: guk esan dezakegu goizean goiz: 'Lehen hitza euskaraz egingo dut'. Eta hori gure ahalmena da, guk egin genezake. Erabaki propioari egiten dio erreferentzia", esplikatu du Maite Ilarduiak, Korrikako Debagoieneko koordinatzaileak.

### Herrikoia, bertsioak egitekoa

Kantuari dagokionez, berriz, Durangoko Azokaren bueltan aurkeztutako kantu herrikoia darabil AEK-k 19. Korrika girotzeko. Berritasuna da AEK-ko irakasleek egin dutela. "Beraien artean badago Morauko abeslari izandakoa, Andoni Tolosa. Zera egin dute, kantu herrikoi bat hartu eta letra moldatu. Ikasleendako, umeendako... oso kantu erraza da; dantzarako ere oso egokia. Gainera, bada nahi edo gonbita bat kantuarekin lotuta: Euskal Herriko musika taldeak animatu gura ditugu kantuari bertsio desberdinak atera diezaioten", dio Ilarduiak.

### Korrika materiala

Bestalde, Korrikari laguntzeko hainbat bide egoten dira. Bata da materiala erostea. Eta hori denon eskura jarriko dute. Debagoienean ere bai. Oraingoz, baina, Donostian eros daiteke, denda jarri dute-eta, Kursaalen. Astelehenetik egubakoitzera arratsaldez (17:00-20:00) eta zapatuetan goiz eta arratsaldez (10:30-13:30/17:00-20:00) dago zabalik. Eta Korrikaren Interneteko atarian ere bada materiala erosteko aukera (*Korrika.org*).

### 'Korrika laguntzaile'

Laguntza emateko beste bide bat *Korrika laguntzaile* egitea da. "AEKra etor daitezela. Arrasatera. Aurten, Durangoko Azokan ere eman dugu horretarako aukera, eta mordoa egin dira. Eta dagoeneko gure eskualdean ere egin daiteke *Korrika laguntzaile*. 12 euroko laguntza ematen da; ez da pin baten truke ematen den dirua, laguntza baizik", zehaztu du Ilarduiak. Hori bai, *Korrika laguntzaile* direnek abantailak izango dituzte ekimenarekin bat egiten duten negozioetan.

Eta azkenik, Debagoieneko negozioei begira *Korrika lagun* figura sortzeko aukera ere emango dute, "baldin eta herri batzordeetan hori egiteko aukera ikusten badute", azpimarratu du Korrikako koordinatzaileak.

### DEBAGOIENEKO IBILBIDEA

**06:30** Oñatira iritsiko da, Udanatik. Olakua-Kale Barria-Foruen plaza-Kale Zaharra-Garai lantegia-Zubillaga-Elorregi.

**07:30:** Arrasatera iritsiko da-saihesbidetik-Ospitale gunea-San Andres auzoa.

**08:00:** Aretxabaleta-Durana kalea-Fagor Ederlan.

**08:30:** Eskoriatzako biribilgunea; hortxe hartuko du buelta berriro Aretxabaletara sartzeko Fagor Ederlanen sarreratik-Copreci atzetik-Kurtzebarri eskola parera-Untzillarako bidegurutzea.

**09:00:** Untzilla-Aramaio erdigunetik atzera Arrasatera iritsiko da-Uribe auzoa-Udala plazako biribilgunea-Arrasate pasealekua-Batzokia-Erdiko kalea-Seber Altube-Maala-Erdu AEK-Zigorrola-Elorregi.

**11:00:** Bergarara iritsiko da: Labegaraieta-Zubiaurre-Toki Ederreko aldapa-San Martin San Martin plaza-Barrenkale-Konde-Matzerreka.

Zubieta-IAT-gasolindegia-Elgetarako bidegurutzea.

**12:00:** Ubera.

**12:30:** Elgeta. Eta Elgetatik Elorriora joko du.

**KORRIKAREN ORDUTEGIA**

Iragarritako ordutegiak dira aurreikusitakoak; ibilbidean gerta daitezkeen gorabeherek aldaketak ekar ditzakete ordutegiotan.

### Goiena ere bai

Bestalde, Korrikak Durangoko Azoka omendu du oraingo edizioan, eta horren bueltan, eta zeharka bada ere, Goiena Komunikazio Taldea ere omendua izan da. Hain justu, arrazoia da Durango Azokako telebista kudeatu duela azken urteotan.


Aritz Martinez de Luna. | J. DOMINGO

**Aritz Martinez de Luna** | 'Alea'-ren kudeatzailea

## "Emaitzarekin gustura gaude"

**U.M.** | DEBAGOIENA

Azaroan zero zenbakia aurkeztu ostean, gaur, egubakoitza, argitaratu dute *Alea* Arabako euskarazko astekariaren lehen zenbakia.

**Zelan joan da lehen alea?**

Lantalde txikia garen arren, laguntza ugari jaso dugu eta horri esker lortu dugu proiektu berri honen lehen urratsak egiten hastea. Badakigu hobetu beharra izango dugula eta gogor ekin beharko diogula, baina, ilusioz ekin diogunez, emaitzarekin gustura gaude.

**Zein da hasierako balorazioa?**

Aurkezpenean eta 0 zenbakiaren banaketan ikusi genuen oso harrera ona egin diotela. Arabako euskaldunok mota honetako argitalpen baten beharra antzematen genuen. Horri erantzuteko dihardugu.

**Aramaioren berri ematea tokatuko zaizue...**

Araba osoko informazioa biltzen dugun heinean, eskualde guztiek izango dute beren tokitxoa aldizkarian, horien artean, jakina, baita Aramaiok ere. *Alea*-k badu, gainera, harpidetzak egiteko orduan abantaila berezia Goienako bazkideendako; beraz, aramaioarrek aukera hori izango dute.

**Hainbat komunikabideren artean landutako proiektua da...**

Geu Elkarteak, Goienak eta Berriak elkarlanean egindako esfortzuari esker, forma ematea lortu dugu. Eta beste eragile, elkarte eta norbanako askok ere ekarpenak egin dituzte. Anitza eta irekia da.

Arrasateko hipermerkatua
EROSKI zurekin
Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30
www.eroski.es
ZAPATUA 17 URTARRILA
BAZKIDEENDAKO BAKARRIK
30 € BAINO GEHIAGOKO EROSKETA EGINDA FRESKOETAN
AURREZTU
% 20
FRESKOETAN
Frutategian, harategian, urdaitegian, okindegian eta arrandegian.
Zure Eroski Club txartelean sartuko dizugu dirua, hurrengo erosketetan erabiltzeko, mugaegun barik eta gutxieneko diru-kopuru bat gastatu behar izan barik, Eroskiren hipermerkatuetan eta supermerkatuetan.
-Promozio honek ez du balio bazkide-eskaintza barruan dauden erreferentziendako.
-Beharrezkoa da Eroski Club txartela aurkeztea.
-Zure Eroski Club txartelean metatutakoa ezin izango da diruagatik trukatu.
-Promozioa baliozkoa da Eroskiren hipermerkatuetan, Errioxakoetan izan ezik.
-Kontsulta itzazu gainerako baldintzak salmenta-puntuan.




Herritar ugarik bat egin zuten astelehen iluntzean Arrasaten egindako manifestazioarekin. | JULEN IRIONDO

# "Elkartasunaren kontrako" operazioa

- Biharko manifestaziorako dei egin dute eskualdetik
- "Inoiz baino beharrezkoago da publikoki adieraztea"

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Hamabi abokatuak libre eta Herrira ekimeneko hiru lagun kartzelara. Horixe da asteon gauzatutako operazio polizialaren emaitza, atxilotutakoak Eloy Velasco epailearen aurrean deklaratu ostean.

Edozein modutan, abokatuoi defentsa lana murriztu egin die epaileak, eta baita inputatu ere.

Gauzak horrela, ezker abertzaleko 35 lagunen kontrako epaiketak, joan den astelehenean hastekoa zenak, data berria du, atzo (eguena) hainbat komunikabidek argitaratu zutenez: urtarrilak 29.

**Atzo, jakinarazpen ofizial barik**

Orduantxe joan beharko dute atzera ere Madrilera, bestelakoen artean, Ino Galparsoro Arrasateko alkate ohia eta Aittor Arantzabal, Mikel Zubimendi eta Mikel Garaiondo bergararrak. Hori bai, oraingoz eurek ez dute data berriaren jakinarazpen ofizialik jaso, Galparsorok Goienari jakinarazitakoaren arabera. Eta ez dakite, ezta ere, ezarritako data berriak zelan eragin dezakeen epaiketaren egutegian.

Uste dute, hori bai, libre utzitako abokatuei ezarri dieten baldintzak "oztopo handia" direla eta, oro har, "presoen indefentsio egoera indartu" egiten dutela, Galparsororen esanetan.

Lau debagoiendar horiek, ezker abertzaleko gainontzeko 31 lagunak moduan, 04/08 sumarioan daude inputatuta, Batasunaren, ANVren (EAE) eta EHAKren aurkako auzian, hain justu. ETAko kide izatea leporatzen diete guztiei. Hala, akusazio hori erabilita, Arrasateko alkate ohia, adibidez, kartzelaratu egin zuten 2008an, alkate zela. Apiriletik uztailera bitartean egon zen preso, Soto del Real kartzelan.

**"Elkartasunaren aurkakoa"**

Bi aste barruko hitzordu horri begira egoteaz gainera, baina, biharko (zapatua) egunari begira ere dihardute orain debagoiendar ugarik. Hain justu, 30 sindikatuk, eragile sozialek eta alderdi politikok Donostian deitu duten manifestazioari begira. *Giza eskubideak, konponbidea, bakea* leloarekin, 17:00etan abiatuko da Antiguako tuneletik. Eta bertan plazaratuko dira oraingo asteko gertakarien, "errepresioaren", Debagoieneko Sortuk dioen moduan, kontrako protestak (*Goiena.eus*-en irakurgai Debagoieneko Sortuk egindako irakurketa).

"Inoiz baino beharrezkoago da publikoki adieraztea dagoen sentimendua, indar handiagoa ematen dio", adierazi du Ino Galparsorok. Izan ere, Arrasateko alkate ohiaren ustez, astelehenekoko polizia operazioak bazirudien zela "presoekiko elkartasunaren aurkako operazio" bat, eta uste du emaitzak erakusten duela hasierako ustea "konfirmatu" egin dela.

"Nire ustez, dena den, oker dabiltza, herritarren hautua delako presoekiko elkartasuna (...) Herrira-ko langileen kontrako erabakia, berriz, herritar guztiendako txiste txar bat dela uste dut", gaineratu du Galparsorok.

Debagoienetik autobusak antolatu dituzte Donostiako manifestaziora joateko. Eta honako lekuetan eman daiteke izena: Leintz Gatzagan (Labidea saltokian); Eskoriatzan (Inkernu tabernan), Aretxabaletan (Gurean eta Urbaltzen); Arrasaten (Bengoan, Taupa, eta Iratin); Antzuolan (gaztetxean), Bergaran (Arrano eta Pol-Pol tabernetan) eta Elgetan (Haizea tabernan).

**Protesta ekimenak**

Bestalde, Donostian ez ezik, Debagoienean ere plazaratu da atxiloketen kontrako protesta. Ehunka debagoiendar atera dira manifestazioetan edo elkarretaratzeetan, besteak beste, Arrasaten, Bergaran eta Antzuolan.

Eta erreakzio soka ere ekarri dute. Adibidez, Bergarako Udal gobernuak eta EAJk adierazpen instituzionala adostu dute. Besteak beste, azpimarratu dute "euskal gizarteak bizikidetzan oinarritutako etorkizuna eraiki nahi" duela eta diote hori lortzeko "ezinbestekoa" dela oraingo astekoak moduko "gertakariak alboratzea. Izan ere, berreskuratu egiten ditu euskaldunok atzean utzita genituela uste genuen pasarteak". Eskatu diote Espainiako Gobernuari "aurrerapausoak" emateko.

Arrasateko Udal Gobernuak ere kaleratu du adierazpen instituzionala salatzeko, besteak beste, atxiloketok "Euskal Herrian irekitako bake, demokrazia eta askatasun bide berriaren kontrako eraso" direla. Gaineratu du "presoei dagozkien giza eskubideen urraketen lekuko zuzenak" direla eta "abokatuen atxiloketa hauek defentsarako eskubidea ere urratu" dutela. Eta, oro har, estatuaren izaera "ez demokratikoa" dela salatu du. Aretxabaletako Bilduk, Aralarrek eta EAJk ere adostu dute adierazpena (ikus. 20. orria).

# Kooperatiben arteko elkartasun mekanismoak zorroztu egingo dituzte

## Enpresa bideragarriak laguntzea izango da Mondragon Taldearen nahia etorkizunean

MAIALEN TORRES | ARRASATE

Kooperatiben lehiakortasun derrigortasuna, haien balioak, Fagor Etxetresnen auzia, Ordainduko kideen eskaerak eta beste hizpide izan ditu asteon Javier Sotilek, Mondragon Taldeko presidenteak, Goiena telebistako *Harira* saioan, kargua hartu eta bi hilabetera.

**Balioak eta lehiakortasuna**

Hala, ezer baino lehen, kooperatiben balioen garrantzia azpimarratu zuen: "Kooperatibek zentzu guztia dute balioak eta printzipioak mantentzen badituzte. Horiek galtzen baditugu, joango gara poliki-poliki beste edozein enpresa motatara".

Kooperatibek lehiakor izateko beharra dutela argi du bergararrak: "Ez badira lehiakortasunean sartzen, problemak izango ditugu, bihar edo etzi, beste kooperatiba batekin".

**Ia 300 milioi euro**

Bestalde, 2013an Fagor Etxetresnekin gertatutakoaren harira, Mondragon Taldeko presidenteak azpimarratu du laguntza handia bideratu zutela taldeko gainontzeko kooperatibek bertara. Hala, Sotilek adierazi du Fagor Etxetresnekin gertatutakoa ez zela izan, hain justu, elkartasunik ezaren ondorioa: "Laguntzea lau txakur handirekin erraza da, baina ja diru dezente dagoenean eta beste esfortzu batzuk egin-da, ba, ez da erraza. Eta aipatzekoa da eman dieten laguntza guztia inguruko kooperatibek Fagor Etxetresnei. Fagor Etxetresnen arazoan diru dezente joan da. Guztira, ia 300 milioi euro.

Ildo horretan, Mondragon Taldeko kooperatibek dituzten elkartasun tresnak estutasunak dituzten negozioak berriz errentagarri izan daitezen erabiliko dituzte, eta ez etengabeko diru iturri gisa: "Ditugun elkartasuneko erremintekin kontatuta, gai gara kooperatiba batzuei laguntzeko epe motzean; baina lehiakortasunik ez hori mantentzen bada urtetan, zailtasunak ditugu".

**Ordaindu**

Horrekin batera, Sotilek Ordaindu plataformaren eskaerei ere egin zien erreferentzia: "Korporazioarendako exijentzia eta eskaera dago. Eta horren harira, eta ez da nire iritzia, batzorde iraunkorrak esan du garbi-garbi zein den korporazioaren lana: kooperatibei laguntzea, haiei dirua ematea, ez garantizatzea han dauden diruak baten bati ematea".

**1.050 langile birkokatuta**

Dena den, lanpostuen birkokatzeari dagokionez, baikor agertu da Sotil. Izan ere, galdu ziren 1.900 ingurutik, 1.050 birkokatuta daudela esan du. Aurre-erretiroak, dimisioak eta Catako lehen lanpostuak tarteko, beste 400 ere bideratuta daudela azaldu du. Gainontzeko 400 lanpostuak, berriz, Fagorren itxieratik bi urte igaro baino lehen birkokatzea espero dute.

Bukatzeko, Mondragon Taldearen etorkizunari ere begiratu dio Sotilek, puntu horretan ere baikor, besteak beste, taldearen salmenta kopuruari erreferentzia eginda: salmenten %71 kanpora doaz.



Javier Sotil, Goienaren egoitzan, martitzenean. | XABIER URTZELAI

# Goienak etxeko ateak zabalduta aurkeztu dio 'Puntua' komunitateari

▸ Debagoieneko ordezkaritza nabarmena elkartu zen aurkezpenean

▸ Astekariak utzitako hasierako inpresioa "oso ona" izan da


Arrasateko alkatea . | XABIER URZELAI

**UBANE MADERA** | ARRASATE

Debagoieneko euskaltzale, eragile sozial, udal ordezkari, kirolari, Goienaren komunitatea osatzen duten kolaboratzaile, bezero… eta, oro har, norbanako ugarirekin partekatu zuen atzo, eguena, Goiena Komunikazio Taldeak astekari berria: *Puntua*.

Iluntzean, etxeko ateak zabaldu eta aleak irten baino ordu batzuk lehenago, gonbidatuek bertatik bertara ikusi ahal zuten beste inork baino lehenago zelan ailegatu zen erredakziora Goienaren produktu berria.

**Goiena Klubekoendako**

*Puntua* aldizkariak 48 orri izango ditu, guztiak koloretan, eta askotariko gaiak jasoko ditu. Goiena Klubeko bazkideek jasoko dute, egubakoitzetan, GOIENA paperarekin batera.

Bazkidetza kuotaren truke –55 euro urtean–, etxeko postontzian jasoko dute klubeko kideek. Gainera, kuota horretatik, euro bat elkartasun proiektuetara bideratuko dute. Eta, bestetik, Goiena proiektua babesten lagunduko du. Klubeko kide izan nahi dutenek izena emateko bideak honako hauek dira: *kluba@goiena.eus* helbidera idatzita edo 943-25 05 05 telefonora deituta.



Ainhoa Larrañaga.. | XABIER URZELAI



*Puntua* astekariaren lehen zenbakiko lantaldeko hainbat kide. | JAGOBA DOMINGO


Debagoieneko euskalgintzako ordezkaritza. | XABIER URZELAI


Javier Marcos, Mikel Irizar, Jorge Jimenez eta Lourdes Idoiaga. | XABIER URZELAI

# Alberto Plazaolak kartzela-urte gehiago bete beharko lituzke, Gorenaren arabera

Gorenak erabaki du Frantzian betetako urte kopurua ez hartzea aintzat

**IRATI GOITIA** | OÑATI

"Osaba berriz ere espetxera itzultzeko aukera gertuago ikusi dugu. Bagenuen esperantza, baina zapuztu egin da. Hala ere, oraindik ikusteko dago Gorenak bere kasua aztertzen duenean zer dioen, baina Pikabearen kasuak izango du eragina", adierazi du Zigor Plazaolak, Alberto Plazaola preso ohiaren senideak.

Modu horretan baloratu dute Plazaolaren senideek asteon Auzitegi Gorenak hartutako erabakia: Espainian ezarritako zigorrari ez zaiola kendu behar euskal presoek Frantzian betetako espetxe urte kopurua.

Izan ere, erabaki horrek Plazaola oñatiarra atzera ere espetxeratzea ekar lezake.

Hala, Auzitegi Gorenaren ebazpena salatzeko, manifestazioa egin zuten herritar ugarik martitzenean Oñatin, Sortuk, LABek eta Ernaik deituta.


Foruen plazan bukatu zen manifestazioa. | IRATI GOITIA

**Lasaitasun mezua**

Espetxeratzeko arriskua ikusi arren, Plazaolaren senideak gaineratu du ez dutela uste osaba berehala atxilotuko dutenik: "Bere auziko fiskalak jarritako errekurtsoa aztertu beharko du orain Auzitegi Gorenak". Eta zentzu horretan, martitzeneko manifestazioaren amaieran, lasaitasuna eskatu zuten. Gainera, zalantzak ere ezin izan dituzte argitu, Plazaolaren abokatua asteleheneko polizia operazioan, *Mate* izenekoan, atxilotu zuten-eta.

**Luxenburgoko Auzitegian**

Goreneko hamabost epaileetatik seik fiskalak jarritako helegitearen kontra egin dute, eta boto partikular bateratua kaleratuko dutela adierazi dute. Bestalde, erabakia hartu aurretik, Luxenburgoko Auzitegian kontsulta egitea proposatu zuten, Efe albiste agentziaren arabera.

## 'Bakea eta adiskidetasuna' izeneko hitzaldia egingo du Jonan Fernandezek datorren astean

Oñatiko EAJk antolatuta, Eusko Jaurlaritzako Bakea eta Bizikidetza Saileko idazkari nagusi Jonan Fernandezek hitzaldi ireki eta elebiduna egingo du eguaztenean, arratsaldeko zazpietan, Santa Ana aretoan.


HARREMAN

## Harreman-en otarrea Aramaiora

Harreman dendaren otarrearen aurtengo sariduna Aramaioko Karmele Bengoa da. Bidezko merkataritzako produktuz osatutako otarrea da eta Harreman Dendak urtero zozketatzen du halako bat. Ekintza horrekin, bidezko merkataritzako produktuen aldeko apustua egiten duten kontsumitzaileei proiektu honetan konfiantza jarri izana eskertu gura diete, kontsumitzaile "arduratsu" horiei.

arizmendi ikastola

konfiantzaz
zatoz ikastolara!



Matrikula epea zabalik
OTSAILAREN 2tik 13ra

HITZALDIA:

# IKASTOLA GAUR, ZERGATIK?

HIZLARIA: J. IÑAKI ETXEZARRETA
(Arizmendi Ikastolako zuzendaria)

| | ESKORIATZA | ARRASATE | ARETXABALETA |
|---|---|---|---|
| | urtarrilak 20 | urtarrilak 21 | urtarrilak 22 |
| | IBARRAUNDI MUSEOAN | KULTURATEN | BASABEAZPIN |
| 18:00etan | euskaraz | euskaraz | euskaraz-gazteleraz |
| 19:15ean | gazteleraz | gazteleraz | |



## HAUR HEZKUNTZA 0-6 URTE

ATE IREKIAK

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| JOSE ARANA | urtarrilak | 27 | asteartea, | 17:30ean | Eskoriatza |
| SANTA TERESA | urtarrilak | 27 | asteartea, | 17:30ean | Arrasate |
| URIBARRI | urtarrilak | 28 | asteazkena, | 17:30ean | Arrasate |
| BASABEAZPI | urtarrilak | 29 | osteguna, | 17:30ean | Aretxabaleta |
| OLARTE | otsailak | 3 | asteartea, | 17:30ean | Arrasate |
| UMEZAINTZA | otsailak | 7 | larunbata, | 11:30ean | Arrasate |

## LEHEN HEZKUNTZA 6-12 URTE

ATE IREKIAK

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| ALMEN | urtarrilak | 24 | larunbata, | 11:00-14:00 | Eskoriatza |
| SANTA TERESA | otsailak | 4 | asteazkena, | 17:30ean | Arrasate |
| ARIMAZUBI | otsailak | 3 | asteartea, | 17:30ean | Arrasate |
| GAZTELUONDO | otsailak | 2 | astelehena, | 17:30ean | Arrasate |

INFORMAZIO BILERAK

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| ALMEN | urtarrilak | 24 | larunbata, | 11:00 (IDZn) | Eskoriatza |

## DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA 12-16 URTE

ATE IREKIAK

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| ALMEN | urtarrilak | 24 | larunbata, | 11:00-14:00 | Eskoriatza |
| GAZTELUPE | otsailaren | 4tik 13ra | | 16:30ean | Arrasate |

INFORMAZIO BILERAK

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| ALMEN | urtarrilak | 24 | larunbata, | 12:00 (IDZn) | Eskoriatza |
| SANTA TERESA | otsailak | 4 | asteazkena, | 18:00etan | Arrasate |
| GAZTELUPE | otsailak | 5 | osteguna, | 18:00etan | Arrasate |
| gaztelaniaz > | otsailak | 10 | asteartea, | 18:00etan | Arrasate |

GIZATASUNA LANEAN | MONDRAGON

ikastolenelkartea

informa zaitez: 943 77 20 25
www.arizmendi.eus

## ZABALIK



XABIER ARREGI MURGIONDO
goiena.eus/komunitatea/

# Herritarren sarea

Urte erdi inguru pasa da Sare herri mugimendua jaio eta ibilbideari ekin ziola. Ekitaldi ugari egin dira han-hemenka mugimenduak ezarritako xedeari begira: mendekuan oinarritutako bidegabeko dispertsioaren politika amaitzea. Euskal Herriko herri eta hirietan sortu diren taldeen eta gizabanakoen ekimenei esker, herritarren sarea ehuntzen doa.

Larunbatean Bilbon izandako mobilizazio koloretsuari begiratuz gero, sarea biziki ehuntzen goaz. Ikuspegi eta sentsibilitate anitzetako herritarrak bilduz sarea ehuntzen goaz, berau eraiki eta egonkortzeko beharrezkoak diren sare-nodoak bilakatuz gutako bakoitza. Guztion artean eraikitzen ari garen sarea herritarra izateaz gain anitza ere izatea nahi dugulako. Giza eskubideen alde dauden pertsona guztiak biltzeko bokazioaz sortu delako eta sortzen ari garelako, baita euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen alde ekin nahi dugulako ere.

> **"Kontziente gara ehuntze prozesua ez dela erraza izango"**

Herritarren borondateen sarea ehuntzen goaz, guztien partaidetza sustatu eta partaidetza moduak berrasmatu nahian. Dispertsioaren liburua munduan barreiatuz, ipurtargiak lez, gure nahiaren argi izpiak lau haizetara zabalduz, aldamenean ditugunekin solasean arituz, herritar mosaikoak eratuz, edo bestelako ekimenak eginez, sarea ehundu eta bizirik mantentzea lortuko dugu. Kartzela politika krudel hau amaitzeko desioa, nahia, herri honen jomuga edo xede politiko eta soziala ere badelako, gizartearen kolektibo baten giza eskubideen errespetuaz ari garelako.

Baina kontziente gara sarearen ehuntze prozesua ez dela erraza izango. Egunotako gertakariek modu gordinean erakutsi digute herritarren borondate zintzoa eta tinkoa zapuztu nahi dutela batzuek, Ilunpeko garaietara eraman nahi gaituztela. Guk, aldiz, bizia eta argitasuna ekarri nahi dugu gure herrira. Gurean hain ezagunak ditugun onddoek bezala, sare-gorputz sendoa eraikiz eta hedatuz, sarearen ekimenen bidez, hain ikusgarriak eta ederrak diren onddoen fruituak, perretxikoak, nonahi bistaratu arte.

## USTEAK USTE

JON BEREZIBAR | jberezibar@goiena.eus

# Gaixo, eta zerk jakin ez

Neuri ere gogor erasan dit Gabonetako hotzaldiak eta muki-eztarri/buruko min-eztul-gorputzaldi txar konbinazio posible guztiak sufritu ditut. Luze jo dit osaketak, ohean seko errenditu barik unean unekoari *forte* eta *extra* atzizkidun denetariko kimikoetan ezarri dut fedea. Medikuaren kontsulta, ostera, Googleri (lupusera gerturatzen nabil, noski), eta ondorioz azken astean ikusitako orri eta webguneak ukendu miragarrien eskaintzekin josi zaizkit. Telebistan jendea eztulka eta tronpa jotzen ikusi dut etengabe. Gaixoaldiak aspaldiko partez telebista eta ordenagailuaren pantailen aurrean denbora luzea emanarazi dit eta orain konspiranoiak jota nago.

## MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | goiena.eus/komunitatea/



## HANDIK ETA HEMENDIK

# Urquijok salbu

Anjel Lertxundi
http://goo.gl/zAr9ZU

Aireportutatik Renfera dabilenak daki. Urquijok salbu. Epaitegietan, postetxeetan, Osakidetzako hainbat departamendutan artatua izan denak daki, pasaportea eta antzeko agiriak egitera joan denak daki, aduanako tramiteetan ibiltzen den euskalzorrienak ere badaki. Urquijok salbu. Ertzainen edo sardina zaharren kontrolak sufritzen dituenak daki. Urquijoren bulegora jotzera behartutako mozoloenak ere badaki. Urquijok salbu.

Motzenak ere badaki, Urquijok salbu, zer den gaztelania euskararen gainetik jartzea, zer den hizkuntza bat lehenestea eta bestea gutxiestea bizitza publikoaren eguneroko praktikan, mendeek eta mendeak kaskezurrean iltzatu diguten menpekotasunaren konstruktoan.

Burumentsenak ere badaki zer den erdeinuaren burdinez markatutako hiztun maizterra izatea. Urquijok salbu.

Memelerdoenak ere badakiena pepelerdoenak baleki.

# Don umorea

Zihara Enbeita
http://goo.gl/WF5QwV

Asteotan umorea dugu protagonista. Gustu txarreko eta gustu oneko umorea.

Umorearen mugak. Nori egiten zaion barre, haren araberako zentsura. Ukiezinez. Adierazpen askatasunaz.

Askok idatzi dute umoreaz egunkari honetan barre zipitzik egin gabe.

Frantzian eta baita Espainian ere zigortu, epaitegietara deitu dituzte umore mota batzuk; Facu Diaz edo Dieudonné adibide.

Hori dena, bateko eta besteko agintariek *Charlie Hebdo*-ren umorearentzako askatasuna aldarrikatu ostean.

Leire Narbaizak ere barrea izan du hizpide Euskadi Irratian.

Hari legez, niri ere barre egitea gustatzen zait; ez era diskretuan, gainera.

Barre zantzoen klubekoa naiz ni ere, nabarmen ez señoriten klubekoa.

Eta zenbat eskertzen dudan une latz eta gogorretan irribarrea ateratzeko gai diren horiek. Umore beltz berezi hori dutenak. Umore beltz fina. Ironia fina.

Norbere buruaz barre horren elegante egiten dakitenak.

Narbaizarekin bat nator. Inteligentzia mota bat da hori ere. Gutxi batzuen eskuetan dagoena.

Eta esker oneko barrea izan arren, badira graziarik egiten ez didaten umore motak. Are gehiago badira sutan jartzen nautenak eta umore izena merezi duten ere zalantzan jartzen nautenak.

Andoni Egañak zioen legez, benetako umorea sekula ez delako ahulenen bizkar egiten, praktika bestelakoa izan arren. Errazena baita ahulenari, norbere inguruan gutxiengo direnei barre egitea.

Eta ustezko umore horren atzean asko eta asko ezkutatzen delako, gehiegi. Dela arrazakeria, dela homofobia, dela matxismoa, dela klasismoa...

Arrakastarik handiena duten umoristak zeintzuk diren ikustea nahiko da gure jendartearen erradiografia egiteko. Barre egiten dugun hura garelako.

Has gaitezen, beraz, gure txiste errepertorioa aldatzen. "Hau dok umorea"-tik "hau don umorea"-ra. Geure buruaz barre egiten.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea Otalora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Aitor Izagirre
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
**Argazkilaria** Imanol Soriano
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09
publi@goiena.com

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale
**Difusioa:** 19.951 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## Gabonak pasata, eskerrik asko!

**Zigor Quintanilla Elkorobarrutia**
(Aretxabaletako Udaleko Kultura zinegotzia)
Aretxabaleta

Gabonak pasa dira, eta, Udaletik antolatutako ekintzen balorazioa eginda, eskerrak emateko ordua iritsi da.

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiegu herriko eskolei (Pausoka, Kurtzebarri eta Basabeazpi) eta bertako guraso elkarteei. Lortutako guztia beraiekin izandako bileren eta parte-hartzearen emaitza besterik ez da izan. Lerro hauen bitartez, beraz, gure eskerrik beroenak beraientzat. Bereziki eskertu nahi dugu guraso elkarteek Olentzero, Bizarzuri eta Errege kabalgatan gurasoak inplikatzeko egin duten lana. Ondo dakigu ez dela lan erraza! Eskerrik asko, beraz, guraso elkarteoi eta hiru ekintza horietan parte hartu duzuen guraso guztioi.

Eskerrik asko baita Basotxo elkarteari ere, Olentzero egunean txistorrak banatzen emandako laguntzagatik eta Basotxo Elkarteko Abesbatza haurrekin batera kantuan ibiltzeagatik.

Eskerrak, nola ez, ekintza hauetan urtero parte hartzen duzuen Aretxabaletako txistulariei eta Leizarra Musika Eskolari, eta baita egun horietan lanean aritzen zareten udal langile guztioi ere.

Zorionak, beraz, guztioi, elkarrekin lanean arituta gauzak hobeto irteten dira eta!

## Emakumeen gogoetak

**Isi Pozo Sanchez**
(Emakume Txokoko 'Mikromatxismoak' ikastaroko emakumeen izenean)
Arrasate

Gure gogoetak partekatu nahi ditugu; Emakume Txokoan mikromatxismoei buruzko ikastaro batean sortutako gogoetak, hain zuzen ere.

Honatx zer diren mikromatxismoak: iruzkinak, jarrerak, txisteak, intsinuazioak, eskatu gabeko iritziak, izen ona galaraztea, eskakizunak, gehiegikeriak, paternalismoak… egunero-egunero bizi ditugunak, eta jakizue horiekin ez garela eroso sentitzen eta, gainera, horien helburu ezkutua dela gizona emakumearen gainetik egotea, mendekotasun harremana izatea.

Zenbatetan sentitzen gara txarto jakin barik oso ondo zer gertatzen zaigun? Gutxietsita sentitzen gara, autoestimu oso baxuarekin, familia eta etxea zaintzeko dugun gaitasunaz abusatzen dute. Lan eta soldata diskriminazioa dago gure lanetan. Kasu askotan, uko egiten diogu amatasunari, gure posizioa, estatusa galtzearen beldur, bai eta gure lanpostua galtzearen beldur ere. Zalantzan jartzen dute gure iritzia, gaitasuna, sinesgarritasuna. Barregarri uzten dute gauzak sentitu eta adierazteko dugun modua.

Zer-nolako pena! Izan ere, gauzak adierazteko dugun moduaren atzean ahalmen ezkutu asko dago: zirrarak, senak, asaldatzea, ezinegona, zuzentasuna ulertzeko modua, aldatzeko eta eboluzionatzeko gogoa.

Gauzak zalantzan jartzen dituzten emakume horientzat dira gogoeta hauek. Ikasteko eta hobetzeko gogoa duten emakumeak. Emakume ausartak, borrokalariak, haien buruan eta gaitasunetan sinesten dutenak, haien beldurrei eta mugei aurre egiteko prest daudenak.

Orain arte "agindu" digutena baino gehiago egin nahi dugu, ez gara oso onak "gainerakoak zaintzen" bakarrik, hori baino gehiago gara. Egunero-egunero erakusten dugu, praktikan, askoz ere urrunago joan gaitezkeela.

Eta gizon horientzat guztientzat, gauza batzuetan gurekin alderatuta hain ezberdinak, gauzak zalantzan jartzeko eta beren burua zalantzan jartzeko prest dauden gizonak. Hainbat pribilegiori uko egiteko prest dauden gizonak, gurekin batera kontzientzia egoera handiagoa lortzeko, bai eta bikote harreman zuzenagoak ere, berdintasunezkoak, orekatuak eta osagarriak, elkar hobeto ezagutzen, elkar onartzen eta elkarrekin gozatzen laguntzeko.

Batu ditzagun gure indarrak, gaitz patriarkal honi aurre egin eta gure harremanak ez suntsitzeko. Borrokatu dezagun elkarrekin hauek guztiak aldatzeko, lehendik jarrita dauden eta zaharkituta gelditu diren gauzak eta maila pertsonalean, bikotean, lanean, gizartean… min handia egiten diguten gauza horiek; aldatu dezagun, denon onerako izango da eta.

Ikastaroaren bidez eguneroko mikromatxismo horietako batzuk identifikatzen eta ikusten hasi gara, eta jakin dakigu horiei aurre egiteko eta horiek desaktibatzeko gauza garela; aldaketa handi baten hasieran gaude:

Erantzi ditzagun betaurreko patriarkalok, geure barruan duguna benetan ikusteko!

Edo jarri ditzagun berdintasunaren betaurrekoak!

# GUTUNAK

**Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

## Esker onez, ikastola Ziburun

**Eneritz Urrutia**
(Basabeazpi, Arizmendi Ikastola)
Aretxabaleta

Badira bi hilabete, bailarako ikastolok (Aranzadi, Txantxiku eta Arizmendi) Ziburuko Kaskarotenea ikastolaren aldeko kros solidarioa antolatu genuela. Ekimen honen helburua bikoitza izan zen: batetik, Kaskarotenea ikastolaren egoera sozializatu eta gure herriaren babesa adieraztea; bestetik, momentu honetan bizi duen egoera zailari aurre egiteko elkartasun ekonomikoa ematea.

Ekintza ugari antolatu genituen ikastolok hainbat herritan; tartean, Aretxabaletan eta Eskoriatzan tonbola berezia. Herriko bertako eta Euskal Herriko eragileen ekarpen eskuzabalari esker izan zen posible tonbola hauek antolatzea.

Eskutitz honen helburua tonbola hori aurrera eraman ahal izateko eragileei eskerrak ematea da, jarraian aipatuko ditugunak: Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalak, Aitor eta Erreala futbol taldea, Laboral Kutxa, Arizmendi kirol elkartea, Jakion, Eroski, Markel Irizar, Egaña eta Athletic futbol taldea, Aspe, Felix, Manolo eta Asegarce, Euskara Kontseilua, Elkar, Micros, Eskoriatzako zaharren egoitza, Zubia Pateak, Nerian loradenda, Miren estetika, Astore-Ternua, Katxiporreta, Lanki, Apaolaza farmazia, Mendibitzu ekologikoak, Erañazabal produktu ekologikoak, Copreci, Mapfre, Bertikal, Goiena, UDA, Mahala Naturala, Arteman, Hondarribia arraun elkartea, Orio arraun elkartea, Mondragon Unibertsitatea, Ausolan, JMA, Eguzkigraf, Zahor Natra, Ikasi Mobilteknika, La Caixa eta BBVAko langileak.

Mila-mila esker eragileoi zuen laguntzarengatik, eta baita krosean parte hartu zenuten haur, guraso eta herritarrei.

Zuen laguntzari esker, euskararen argiak pizturik jarraituko du Ziburuko ikastolan.

## Aintzane Oiarbideri

**Ainhoa Gartzia**
Oñati

Aintzane Oiarbidek hau idatzi zuen aurreko asteko GOIENAn:

"Banatzen dugun materia organikoa ez da inolaz ere konpostatzen, Nafarroako Funesera edo Itsasuko zabortegira joaten da osorik".

Bergarako PNVko bozeramaileak esaten duena gezurra da. Funes eta Itsasukoak ez dira zabortegiak, konpost plantak baizik. Epeleko konpostaje planta bukatu bitartean, Azpeitiko Lapatxeko plantan tratatu ezin den organikoa Funes (Nafarroa) eta Itsasuko (Lapurdi) konpostaje plantetara eramaten da konposta egiteko.

Aldiz, zer egiten du zure alderdiak konpostaiaren eta birziklapenaren alde? Debagoieneko herriek baino PNVk kudeatzen duen zein herrik du birziklatze tasa hobea? Bizkaiko Foru Aldundiaren datuak Gipuzkoakoak baino hobeak al dira? Bizkaiak egiten duena egin behar al dugu? Bizkaian sortzen den hondakin organikoaren %4 soilik konpostatu, eta beste guztia errraustegian erre edo zabortegira botatzen dute. Eredutzat hartu behar al dugu hori?

2010ean, PNV Gipuzkoako Aldundian zela, Lapatxek nahikoa kapazitate ez eta gaika bildutako organikoaren ia erdia zabortegira bota zenuten (*Berria:* "Gipuzkoan bereizita bildutako organikoaren %40 zabortegira doa"). Konpostaiaren eta birziklapenaren alde zaudetela diozue, baina 2009rako Gipuzkoan eginak egon behar ziren hiru konpost plantetatik bakarra egin zenuten (Lapatxekoa), eta berau aurreikusita zegoen tamainaren erdikoa.

Europak ahal den guztia birziklatu eta konpostatu behar dela dioenean, zuek erraustearekin tematzen zarete Bizkaiko eredua jarraituz. Zuek ikusiko duzue, baina hitz egin ezazue garbi, eta gezurrik ez, mesedez.

## Logika ez atsegingarria

**Jon Otero Uribarren**
Arrasate

Txiroa naiz, eta, hala ere, logika ez atsegingarri batek harrapatzen nau: txiroak beharrezkoak direla. Eman dezagun Euskal Herrian denek kobratzen dutela 1.400 euro hilean. Ogi batek balioko luke 0,80 euro. Zer gertatuko litzateke hilabete batetik bestera denak 3.000 euro kobratzera pasatuko balira? Ogi berak bikoiztu egingo lukeela prezioa, denek askoz diru gehiago izango luketelako. Horren ondorioz, ogiaren prezioa, noski, erosmen ahalmenaren arabera doa: zenbat eta txiro gehiago egon, ogiaren prezioa orduan eta merkeagoa da.

Baina ni ez naiz marxismoan jakitun; hala ere, gogoan dut Klase Borroka Etengabearen Teoria. Hots, enpresek, jakina, ekoizten dute saltzeko.

Txiro gehiegi badago, ez da saltzen; beraz, klase txiroak borrokatu egin behar du soldata duina, eta, lortuz gero, saldu egiten da.

Errazago saltzen bada, berriro prezioak gora doaz, eta lehengo soldata duina zaharkituta gelditzen da; beraz, denbora batera, berriro borrokatu eta negoziatu beharra dago. Logika enea, ez atsegingarria.

## Kaleak biziago, gu osasuntsuago

**Mikel Arantzabal**
Eibar

Arnasa ekarri dute tabakoaren gaineko legeek. Terrazak ugaritu egin dira, kaleak berpiztu egin dira...; jeneralean, arnasa herriei.

Laster, beste pauso bat eman, eta elkarte gastronomikoetan eta kirol eraikinetan ezin izango da erre. Bazen ordua…

Guztiendako eredu izan beharko luke horrek. Baina ez tabakoarekin bakarrik; izan ere, hor dugu alkohola. Gizartearen parte da, eta umeek zer egiten duten badakigu, gurasoengandik *ikasi.* Guztiz normaltzat daukagu gurasoak ikustea taberna kanpoaldean zerbezak-eta edaten. Eta umeek… ba… *nolako zura, halako ezpala.*

## DUELA 10 URTE

2005-01-14

### Kultura etxea, inbertsio handiena

Arrasateko Udalak 37.470.035 euroko aurrekontua onartu zuen 2005erako. Kopuru horretatik ia 13,5 milioi inbertsioetarako bideratu zituen eta kultura etxeko (egungo Kulturate) lanak bukatzeko bideratu zuen zatirik handiena: 2.480.000 euro.

Orduko albistean azpimarratzen den beste datu bat da oposizioko alderdiak (PSE-EE eta PP) abstenitu egin zirela, Udal Gobernuak jarrera positiboa erakutsi zuelako.



Egungo Kulturate, 2005ean. | I.B.

2005-01-14

### Meningitisarentzako txertoa

Meningitis C gaixotasunari aurre egiteko, gazteei txertoa jartzen hasi ziren Osakidetzakoak 2005eko urtarrilean. Martxora arte iraun zuen kanpainak. Hain zuzen, 11 eta 20 urte arteko gazteei zuzendutako kanpaina izan zen. Horrenbestez, ikastetxeetatik hasi ziren Osakidetzakoak txertoa jartzen. Gazteek eta haien gurasoek gaixotasunaren gaineko informazioa ere jaso zuten aurretiaz.

## DUELA 5 URTE

2010-01-11

### Auzolan ekimena

Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzei esker, abian jarri zuen Bergarako Udalak Auzolan ekimena. Hain zuzen ere, helburua zen lan esparruan sartuz pertsonak gizarteratzea, eta lana aurkitzeko arazoak zituztenendako zen. Lehenengo aldiz jarri zuten martxan mota horretako ekimen bat Bergaran.

## HERRITARRAK

OÑATI

**Paulina Kernstock** 'Alemaniarraren alaba' bezala ezagutzen dute askok Oñatin; hura oso euskaldun eta oso oñatiar sentitzen da. Dio kasualitatez jaio zela Alemanian. | IRATI GOITIA

# "Kasualitatez jaio nintzen Alemanian; ni oso euskaldun sentitzen naiz"

Alemanian jaio zen Paulina Kernstock, 1937an. Nuremberg hirian, hain zuzen ere. Aita alemaniarra du eta ama, berriz, oñatiarra. 2 urte zituenean etorri zen familia Oñatira bizi izatera; oraindik, baina, *Paulina alemaniarra* bezala ezagutzen du jendeak.



Paulina Kernstock oñatiarra. | IRATI GOITIA

**Alemanian jaiotakoa zara.**

Bai. Aita Oñatira etorri zen gaztetan beste bi alemaniarrekin batera. Beste biak itzuli egin ziren eta aita hemen gelditu zen, maiteminduta. Ondoren, nire anaia zaharrena jaiota zegoela, Alemaniara joan ziren bizi izatera. 36ko gerra garaian izan zen hori. Amak beti esan ohi zuen, ordea, denboraldi baterako soilik joan zirela, bera berriz itzuliko zela. Hala izan zen. Urte gutxi batzuk egin zituzten han. II. Mundu Gerrako mugimendua hasi zenean, hona etorri ziren berriro. Tarte hartan jaio nintzen ni han. Nire anaia guztiak, berriz, hemen jaio ziren. Horrela, aitak esaten zuen nire anaia guztiak hemengoak, bertakoak, zirela; ni neu izan ezik. Esaten zuen: "Hauxe bakarrik da alemaniarra".

**Zu zeu oñatiarra sentitzen zara, ordea.**

Zalantzarik, ala? Noski. Ni bertakoa naiz. Ni euskalduna naiz. Alemanian jaio nintzen, kasualitatez, baina oso euskaldun sentitzen naiz. Hala ere, Oñatin *Alemaniarraren alaba* bezala ezagutzen naute; horrek ez dit axola, ordea.

**Itzuli izan zara Alemaniara?**

Bai, familia dugu han. Gainera, aita oso ezaguna zen bai hemen eta baita han ere. Eskulanak egiten zituen. Oñatin fabrika txiki bat zuen. Aterkientzako kirtenak egiten zituzten bertan.

**Etxean zein hizkuntza zen nagusi?**

Aitak alemanez egiten zigun, baina ez beti. Hala ere, ezin izan zuen euskaraz ikasi. Gure amak. berriz, betidanik erakutsi zigun euskara maitatzen.

> **"Hil arte gura nuke San Migeli janzten laguntzea Corpus egunean"**

> **"Askorentzat andereño Paulina izaten jarraitzen dut oraindik ere"**

**Irakasle izandakoa zara. Herrian, askok eta askok horregatik ezagutzen zaituzte.**

Bai; ikastolan ibili izan nintzen, irakasle. Oso gogoan ditut hasierako urteak, 1975 inguruan hasi nintzen bertan lanean. Ordu asko egiten genituen, baina gustuko genuen eta helburu asko genituen. Guk ikasketak gazteleraz egin genituen arren, argi genuen euskaraz ekin behar geniola hezkuntzan, gu euskaldunak garelako. Ez zen euskaraz erakustea bakarrik, guretzako garrantzitsua zen euskaldun izatea maitatzea. Ikastolan nire neska-mutikoak izandakoek kalean ikusten nautenean agurtu egiten naute oraindik ere. Andereño Paulina izaten jarraitzen dut eurentzat. Kontuak esaten dizkidate: emaztea haurdun dutela, edo euren seme-alabak erakusten dizkidate. Niretzako horrek ez du preziorik. Izugarria da, hain da pozgarria!

**Irakaslea izateagatik ezagutuko zaituzte askok, beste batzuek baita San Migelen laguntzaile izateagatik ere Corpus egunean. Zenbat urte daramatzazu horretan?**

Asko, 30 urte inguru. Ni San Juan kalean bizi nintzen eta gaztetan beti izan ohi ginen Santa Ana inguruan. Corpus egunean ere joaten ginen parte-hartzaileak nola janzten ziren ikustera. Horietako egun batean, Gregorio Lizarrak laguntzera joateko esan zigun, eta, harrezkero horrexetan gabiltza, eta gustura egiten dugu.

**Zer esan nahi du zuretzako Corpus egunak?**

Ni ez naiz sekula fededun sutsua izan. Baina gustatu egiten zitzaidan Santa Anara joatea egun horretako prestaketa lanak ikustera. Azken batean, bertako zerbait da, betidanik bizi izan dugun zerbait. Niretzako, adibidez, egun horretako kanpai hotsak bereziak dira. Esango nuke San Juan kalean bizita bihotzean daramadan zerbait dela. Maitasun hori, konturatu gabe, barruraino sartzen da, eta Lizarrak berak ere erakutsi zidan Corpus eguna maitatzen. Gainera, Oñatiko jende askok egin du izugarrizko lana hori aurrera ateratzen, eta nik uste dut garrantzitsua dela horrelako tradizioei jarraipena ematea. Helburu horrekin hasi ginen geu ere taldean sartzen eta laguntzen. Urte hauetan guztietan gauza asko egin behar izan ditugu; adibidez: materiala berritu dugu eta udaletxera laguntza eske joan gara. Egun, oraindik ere, joaten naiz San Migeli janzten laguntzera. Alaba ere ibiltzen da, baina oraindik ez diot testigua pasa. Hil arte jarraituko dudala uste dut. Hala gurako nuke, behintzat.

## NIRE HERRIAN

**:) HERRIKO GAZTEAK**

Esango nuke herriko gazteek dutela etorkizuneko gakoa. Beraz, hori azpimarratuko nuke. Izan ere, nik uste dut euskaldunon izaera eta nortasuna mantentzen jarraitzeko gure herria maitasunetik jaso behar dela, eta hori erakutsi behar diegu gure gazteei. Elkar ulertu eta konpondu behar dugula deritzot.

**:( GORROTOA ALBORATU**

Gure tradizioei jarraipena eman behar zaiela uste dut; adibidez, Corpus egunari. Ez dira txantxetan hartu beharreko kontuak. Prest izan behar dugu gure herriaren alde zerbait ona egiteko, eta sentimendu hori igartzen dut nik faltan. Maitasunetik egin behar da hori; ez egoismotik. Gorrotoa albo batera utzi behar da.

# HERRIAK

OÑATI

# Aizkorri-Aratz parke naturala, Kontserbazio Bereziko Eremu

▸ Biodibertsitatea zaindu eta sustatzeko plan bat egin dute, Europak hala eskatuta

▸ 'Natura 2000' Europako naturguneen sarean dago, balio garrantzitsuak dituelako

MIREN ARREGI | OÑATI

Aizkorri-Aratz parke naturalak badu, izendapen horretatik harago, biodibertsitatean aberats eta interes bereziko egiten duen beste bat; izan ere, *Natura 2000* deritzon Europako naturguneen sarean dago. 1992ko Europako zuzentarau batek dio interes bereziko habitatak babestu behar direla eta Aizkorri-Aratz parkea Europan babestu beharreko horietako bat da. *Natura 2000* sareak Kontserbazio Bereziko Eremu izendapena eman dio parkeari; esandako moduan, ingurumen balio garrantzitsuak izateagatik kontserbatu beharreko eremua da.



Ardiak askan ura edaten; babestu beharreko hainbat tokitan ipiniko dira itxiturak, azienda sar ez dadin. | OIHANA ELORTZA

**Arrazoiak**

Izan ere, Europako Batasunak ingurumen arazo larria atzeman du Europako hainbat tokitan –espezie aniztasunaren eta biodibertsitatearen galera–, eta Aizkorri-Aratzek Europako zuzentarauetako zerrendetan sartutako espezie eta habitatak ditu. Parkean detektatu diren habitat horiek dira, besteak beste, txilardiak, larreak, belardi menditarrak, harkaiztietako habitatak, askotariko basoak, istilak, saguzar populazio zabala, eta abar.

Hain zuzen ere, Kontserbazio Bereziko Eremuaren azaleraren %74 hartzen dute Aizkorri-Aratzeko habitat naturalek; Europako Batasunak haietariko 23 interesekotzat jo ditu; sei lehentasunezkotzat eta florak ere garrantzi berezia du; EAEko Espezie Mehatxatuen Katalogoan jasota dauden 44 espezie atzeman baitira.

**Fauna ere intereseko**

Fauna ere nabarmentzekoa da; guztira, 217 ornodun espezie atzeman dira: ugaztunak, arrainak, anfibioak eta narrastiak. Ornogabeei dagokienez, arriskuan dauden hainbat espezie erregistratu dituzte. Horien artean, ibaiko karramarroa da nabarmentzekoa, hainbat kakalardo eta tximeleta eta Quimper barraskiloa.

**Betebeharrak**

*Natura 2000* Europako naturguneen sarean egoteak eta biodibertsitatean aberats izateak betebehar batzuk ezartzen dizkio parkeari; alegia, atzemandako habitat eta espezieak babestu eta egoera ez hain onean dauden horiek sustatzeko neurriak hartzea. Eusko Jaurlaritzaren eskariz –harena baita helburuak eta markoa zehazteko ardura–, Nafarroako Ostadar enpresak zerrendatu ditu Kontserbazio Bereziko Eremuetan biodibertsitatearen mesedetan egin beharreko aktuazioak. Bada, Gipuzkoako Foru Aldundiarena da horiek betetzeko ardura.

**Helburuak**

Aizkorri-Aratz parkeko gaur egungo balioak kontuan hartuta, epe luzera hainbat helburu zehazten ditu planak. Horiek dira, besteak beste, eta basoei dagokienez, gutxienez basoen egungo azalerari eustea eta baso helduek dituzten naturaltasun nahiz konplexutasun mailetara iristea. Zohikaztegiei dagokienez, haien kontserbazioa ziurtatzea, hezetasun txikiko eremua sustatuz, ahalik eta espezie bereizgarri askotarikoenak bizi daitezen. Harkaiztietako komunitateei dagokienez, berriz, mehatxatuta dauden espezie guztien populazio bideragarriak mantentzea eta behar diren baldintzak hobetzea ugatzarentzat. Saguzarrekin lotuta –egiaztatu da hamazazpi espezie daudela Aizkorri-Aratzen–, kontserbazio egoera onean diren saguzar espezie guztien presentzia ziurtatzea.

**Neurriak**

Helburu horiek lortze bidean, neurri mordoxka proposatu ditu azterketa egiteko ardura izan duen Nafarroako Ostadar enpresak. Neurri horiek dira abeltzaintza sektorearekin lotutako neurriak, baso sektorearekin lotutakoak eta beste sektore batzuekin lotutakoak –hala nola turismoa, aisialdia, ehiza, kirol -jarduerak, ikerketa, eta abar–.

**Parte-hartze prozesua**

Ostadarren proiektua esku artean, Eusko Jaurlaritzak parte-hartze prozesu bat egin du, parke naturalaren parte diren lurren jabeekin, auzotarrekin eta interesa agertu duten herritarrekin. Abenduan egin dira parte-hartze bilerak, lehena Oñatin, bigarrena Zalduondon eta hirugarrena Seguran, eta horietan jaso dituzte bertaratuen ekarpenak. Txostena osatuta dago eta hilabete honen bueltan argitaratuko dute Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean. Gero zabalduko dute, legeak ezartzen duen moduan, alegazio formalak egiteko epea.



Iturrigorriko basoa, Aizkorri–Aratz parke naturalean. | GOIENA



Saguzarra; haren presentzia ere ziurtatu behar da. | GOIENA

# Hurrengo arbola, herritarren erabakiz

## Haritza, astigarra edo ezkia landatuko dute Arbolapetan

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Arrasatearrek erabakiko dute Arbolapetan haritza, astigarra edo ezkia landatu. 114 urte luzez bertan egon ostean, herriko ikonoetako bat bihurtu zen indiar-gaztainondoa haustura arriskuagatik bota behar izan zuten urriaren 29an, eta ordurako Udalak erabakita zuen bertan beste zuhaitz bat landatzea: "Arbolak eman dio izaera leku honi eta horregatik uste dugu egokiena dela beste zuhaitz bat landatzea", adierazi du Ingurumen Saileko teknikariburu Rafa Ugartek.

Gabriel Igiñiz adituari eskatu zioten lehengo arbolaren antzerako itxura eta tamaina mantendu gura zela, eta horren arabera proposatu zituen Igiñizek hiru espezie horiek. Indiar-gaztainondoa landatzea, esaterako, alboratu egin da, gaixotasunak hartzeko joera handia duelako.

**Bozketa hilaren 19tik 26ra**

Arrasatearrendako hain txoko maitatua izanik, haritza, astigarra edo ezkia landatuko den erabakitzeko aukera eman die Udalak herritarrei urtarrilaren 19tik 26ra. BAZen edo Udalaren webgunean bozkatzeko aukera izango dute herritarrek. Landaketa, berriz, otsailaren 21ean egitea zehaztu du Udalak: "Aurreikuspen bat da. Bozketa egin behar da lehenago, zuhaitza ekartzeko kamioi bat kontratatu beharko da... Hasiera baten, otsailaren 21ean landatuko da". Obra ikusgarria izango da, besteak beste, lurra altxatu beharko delako. Zulo handi samarra egingo dute, metro edo metro eta erdiko sakonerakoa, eta zulo hori egiterakoan kenduko da oraindik bertan dagoen arbolaren tokoia edo oinarria: "Ondoren, lurrarekin eta beste material batzuekin beteko dugu, gunea egonkortu eta urbanizatzeko moduan jartzeko. Horren ostean, landatzea eta itxarotea faltako da", dio Ugartek. Landatzen den espeziea landatzen dela, arbolak "urte asko" beharko ditu hazteko; kontuak kontu, Arbolapetak arbola izaten jarraituko du etorkizunean ere.



Ingurumen Saileko Rafa Ugarte, Arbolapetan, asteon. | JOKIN BEREZIARTUA

**ESANAK**

**"Arbolak eman dio izaera leku honi, eta horregatik uste dugu egokiena beste bat landatzea dela"**

**RAFA UGARTE** | INGURUMEN TEKNIKARIBURUA



Udaleko ordezkariak, erakusketa ireki zuten egunean. | TXOMIN MADINA

# Etorkizuneko Arrasate, Kulturaten ikusgai orain

## Hiri Antolamenduaren Plan Orokorraren gaineko erakusketa dago klaustroan, hilaren 22ra arte

**J.B.** | ARRASATE

Arrasateko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorraren hasierako onespenaren xehetasunak jasotzen dituen erakusketa urtarrilaren 8an ireki zuten Kulturateko klaustroan, eta hilaren 22ra arte egongo da zabalik (12:00etatik 13:30era eta 18:00etatik 20:00etara). Bertan, plano eta testu bidez, lurren sailkapena egiten da, eta zehazten da eremu bakoitza garatzekotan, nola garatu behar den.

Azaroko osoko bilkuran aho batez onartu zen hasierako agiria, eta helegiteak hilaren 27ra arte jarri ahal izango dira. Aholku Kontseiluak eta udal teknikariek helegiteak aztertu ostean, apirileko osoko bilkuran behin-behineko onarpena ematea da asmoa. Gero, Jaurlaritzara bidaliko dute; Udalak espero du udazkenean onartzea behin betiko agiria. Erakusketak Plan Orokorraren memoria, hogei plano, fitxa urbanistikoak, araudi urbanistikoa, ingurumen jasangarritasunaren txostena eta azterketa ekonomikoa jasotzen ditu, eta etorkizuneko Arrasate nolakoa izan daitekeen ikusten da.

Orain arteko planarekin alderatuta, aldaketak planteatzen ditu: "Aldaketa nagusia da desklasifikazioa. Hau da, hiri-lurra eta hiritargarriak diren lurzoruen azalera txikitu egiten da; horrek esan gura du urbanizazioarekin okupatzeko aukerak gutxitu egiten direla", dio Hirigintzako Juan Antonio Urdangarinek. Gainera, etxebizitza gutxiago egitea aurreikusten dute, eta, eraikitzekotan, orain arte beste erabilera bat zuten hiri-lurretan egingo dituzte.

# Asfaltatze lanak, behar handien duten guneetan

**J.B.** | ARRASATE

Udalak lanean jarraitzen du asfaltatze planarekin, eta lehentasunezkoak diren guneak konpontzen hasi zen duela hilabete eskas. Orduan, abendu erdialdean, burutu zen aspalditik egin gura zena: Uribarri etorbidea asfaltatzea. Garaia gunetik hasi eta Udala plazako biribilguneraino "lau-laua" geratu da orain errepidea, eta, horrenbestez, aurtengo asfaltatze-lan "garrantzitsuena" beteta. Urtarrilaren 12an ziren hastekoak Alfontso VIII.a kalea asfaltatzen, baina arazoak izan ziren gune horretako asfaltatze lanak prestatzeko behar zen makina batekin. Arazo horrek behartuta eta eguraldi ona aprobetxatzeko asmoz, Kontzezino kaleko lanekin –irudian– hasi ziren astelehenean, eta martitzenean bukatu zituzten.

Lehentasunezko beste gune bat Araba etorbidea da; Maiatzaren Bata plaza paretik hasi eta Polmetasa zaharreraino zatian egingo dira lanak, eta bi edo hiru egun irautea espero da.



Kontzezino kaleko asfaltatze lanak, martitzenean. | ARRASATEKO UDALA

**Erabakia ehuntzea denoi dagokigu**

Hurrengo erronken berri eman genuen eguaztenean Kulturaten. Gogotsu gaude erabakitzeko eskubidea ehuntzen joateko, argi dugu lan hori guztioi dagokigula. Ateak zabalik daude parte hartzeko. Animatu!

K OMUNITATEA GOIENA
GURE ESKU DAGO | ARRASATE




IMANOL SORIANO

### Terrazak jartzeko baimena behar dela gogorarazi du Udalak

Udalak gutunak bidali dizkie ostalariei tabernaren atarian beladore, aulki, kupel edo bestelakoak jartzeko baimena behar dela gogora ekartzen. Bide publikoa okupatzen dutenez, tasa bat ordaindu behar da metro lineal bakoitzeko. Baimenak BAZen eskatu behar dira; baimen barik jartzeak arau-haustea dakar.

### Ekin-en 'Nigandik' tailerraren lehen saioa izango da gaur

Harremanetarako gaitasuna, segurtasuna, lasaitasuna eta botere pertsonala indartzea helburu duen *Nigandik* tailerra antolatu du Ekin elkarteak; doakoa da, eta Marisol Abreu izango da dinamizatzailea. Gaur, hilaren 23an eta 30ean izango dira saioak, 16:00etatik 19:00etara. Argibide gehiago: 651 70 79 36.

# Urteko lehen baserritarren azoka bihar, orain arteko bideari eusteko asmoarekin

Seber Altube plazan hamasei postu egongo dira eta Jesus Romeroren pintxoak dastatu ahalko dira; sentsibilizazio kanpaina bati ere ekingo diote aurten

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Bihar, zapatua, egingo dute urteko lehen baserritarren azoka Seber Altube plazan (09:00-14:00). Udalak azokaren aldeko apustu irmoa egiten jarraituko du 2015ean ere.

Biharko azokan hamasei postu egongo dira. Arrasateko sei baserri, eta horien artean nobedadea izango da Asubealde baserriaren lehen azoka izango dela; Jon Azkoaga gazte arrasatearra ibiliko da saltzen eta haren produktu nagusia baserriko arrautza ekologikoak izango dira: "Animo asko eta zorte onena opa diogu, arlo honetan jende gaztea beti da ongietorria, beti da pozgarria", adierazi du Udaleko Enplegu eta Garapen Saileko teknikari Marga Garmendiak. Arrasatekoez gain, Debagoieneko beste hiru postu eta bailaratik kanpoko beste zazpi egongo dira. Horrez gain, pintxo dastatzea ere egongo da Jesus Romero adituaren eskutik. Neguko errezetak prestatuko ditu Romerok. Pintxo horiek euro baten salduko dituzte edo azokan erosten dutenek doan probatzeko aukera izango dute. Gainera, baserriko produktuz osatutako otarrea ere zozketatuko dute azokan erosten duten herritarren artean.


Azken azoka Santamasetakoa izan zen, urteko azoka handiena. | GOIENA

**Sentsibilizazio kanpaina**

Berritasunetako bat izango da azokan bertan egingo duten sentsibilizazio kanpaina: "Azokara hurbiltzen direnek ikusiko dute. Lelo batzuk dira, baserriko produktuen kontsumoaren arrazoiak azpimarratzen dituztenak. Baserriko produktuen aldeko aukera egiten duten herritarrek azaldu-ko dute zergatik egin duten aukera hori. Baserriaren jardunak paisaia orekan mantentzen duelako, bertako ekonomiarekin konpromisoa duelako edo produktu osasungarriagoak direlako; halako arrazoiak nabarmentzen dituzte herritarrek", dio Garmendiak. Kanpaina hori baserritarren azokan egitea dago aurreikusita baina ez dute baztertzen, esaterako, Azoka Plazan ere egitea.

Orain arteko bidetik jarraituko du baserritarren azokak: "Abenduan balorazio bat egin genuen baserritarrekin, teknikariekin eta arduradun politikoekin, eta adostu genuen azoka hau mantentzea komeni dela, egungo lekuan eta egungo formatuan. Ekimen berriak eta ekitaldi osagarriak egingo ditugu; otsailean, adibidez, arbola mintegien azoka antolatzeko asmoa dugu".

## Orain arteko herri programaren lanketa bateratzeko saioa bihar, EH Bilduk deituta

T.M. / J.B. | ARRASATE

Maiatzaren 24ko udal hauteskundeetara begira, EH Bilduk orain arteko herri programa bateratzeko saioa egingo du bihar, zapatua, Kulturateko areto nagusian (10:00). Herrikideen ikuspegi, planteamendu eta ekarpenak jaso gura dituzte datozen lau urteotako herri programa garatu eta osatzeko, eta arrasatear guztiei egin diete bertaratzeko deia. Arrasate "eten barik eta determinazioz eraikitzen jarraitzeko" asmoa azaldu zuten, eta gaineratu: "Arrasatear guztion eskubideak bermatuko dituena, berdintasuna helburu izango duena, euskalduna eta anitza, kalitatezko zerbitzu publikoduna, demokrazia oinarrizko ardatza izango duena, integratzailea eta herritarren parte-hartzea sustatuko duena izateko".


Kulturateko klaustroan egindako agerraldia, *Hari gara* lelopean. | TXOMIN MADINA


GOIENA

## Liztor asiarraren beste habia bat

Asteon Meatzerrekan hartutako liztor asiarraren edo *vespa velutina*-ren habian 3.000 bat liztor bizi daitezkeela azaldu zuen Babes Zibileko arduradun Jose Luis Etxebarriak: "Ez du eztirik egiten, bertako erlea jan egiten du. Horregatik, maiatzean irteten direnean ahalik eta azkarren akabatu behar dira, habiak ez daitezen handitu". 49 habia kendu dituzte azken urtean; bat ikusz gero, BAZera deitu behar da: 943-25 20 00.

## Jai Zale taberna irekiko du gaur EHE taldeak

J.B. | ARRASATE

Jai Zale tabernak gaur irekiko ditu ateak berriro, Arrasateko Euskal Herrian Euskaraz taldeari esker. Irekiera ekitaldian (19:00) txalapartariek eta Txorbela otxoteak hartuko dute parte, besteak beste. Bideo bat ere jarriko dute, gazteen eta euskararen arteko harremana abiapuntu duena. Herriko "euskararen gune erreferente" bihurtu gura dute: "Ez dugu poteorako eta parrandarako gune soil bat nahi, baina; euskalgintzari proiektuak gauzatzeko txoko bat nahi dugu, aniztasunetik eta euskaratik eraikia", diote.

## Erein Da Jan elkartea, bazkide berrien bila

J.B. | ARRASATE

Erein Da Jan kontsumitzaile eta ekoizle elkartea bazkide berrien bila ari da. 90 bat dira egun eta 200 inguru lortzea dute helburu. Topagunerako egoitza –ez dute denda soil moduan definitu gura– lortu dute Arrasaten: Emaus zena, hain justu. Egoitza 2015eko martxoan martxan jartzea espero dute. Argibide gehiagorako edo bazkide egiteko: 688 63 49 19 edo 943-79 68 48 telefono zenbakira deitu edo *ereindajan@bagara.net* helbide elektronikora idatzi.

## Odola emateko aukera egongo da urtarrilaren 20an anbulatorioan

Odol Emaileen Elkarteak jakinarazi duenez, hilaren 20an odola emateko aukera egongo da anbulatorioan, 16:30etik 20:00etara. Otsailaren 17tik 19ra Laubide plazan egongo dira (16:30-20:15) eta leku berean egongo dira otsailaren 24an ere, goizez; 09:30etik 13:15era, hain zuzen ere.



# Osasunaren Astea, kirola herritarrei hurbiltzeko

▸ Bederatzi jarduera ezagutzeko, debaldeko saioak

▸ Bizkarrezurra eta osasuna hizpide astelehenean

**M.T. J.B.** | ARRASATE

Herritarrak kirolaren mundura erakarri nahi ditu Udalak, eta, urte berriari egiten zaizkion promesen garaia aprobetxatuz, Osasunaren Astea antolatu du, astelehenetik zapatura bitartean. Ariketa fisikoak osasunerako duen garrantziaz ohartarazteko eta herritarrak kontzientziatzeko, hainbat ekintza antolatu dituzte.

### Hitzaldiak

Hitzaldi batekin emango diote hasiera Osasun Asteari, eta, *Bizkarra ondo, ni ere ondo* izenburupean, bizkarrezurraren garrantziaz eta zainketaz jardungo dute. Astelehenean, Kulturaten, bi saio egingo dituzte, lehena euskaraz 18:00etan eta bigarrena gazteleraz 19:15ean. Azalpenez harago, praktikara ere eramango dute esandakoa, k-stretcheko hamaka bat erabilita, eta amaieran galderak egiteko tartea izango da.

Horrez gain, erretiratuen egoitzekin harremanetan dabil Udala, Osasun Astearen ondoren eurentzat ere hitzaldiak antolatzeko. Dena den, ekintzak oraindik zehaztu gabe dituzte.

### Ate irekiak

Kirola egitea sufritzea eta gorputza txikitzea delako ustea apurtzeko, Udalak hainbat ariketa eskainiko dizkie herritarrei, frogatzeko badirela norberaren gaitasun eta beharrei egokitutako ekintza osasuntsuak.

Ate irekietan, bederatzi kirol probatzeko aukera izango da, horiek ezagutuz herritarrek gertuago senti ditzaten. Besteak beste, nordic walking saioak izango dira, bereziki diseinatutako makila batzuekin ibiltzeko teknika ezagutzeko. Horrez gain, pilates, hata yoga, k-stretch eta body balancea zer diren ikusi eta ikasteko aukera izango da. Haurdun dauden emakumeek eta etxeko txikienek ere izango dute tartea eskaintza horretan, matrogym eta kid pilates ekintzetan.

Ekintza guztiak debalde izango dira, baina izen-ematea beharrezkoa da, 943-77 16 77 telefonora deituta edo Musakolako kiroldegira bertara joanda. Saio guztien informazio zehatza eta ordutegia *Arrasatekirola.com* webgunean dago ikusgai.

### Kiroldegiko abonuak

Herritarrak kirolarekin gozatzera eta osasuna zaintzera animatzeko, gainera, Udalak ez ditu kirol abonuen prezioak igoko 2015ean. Prezio zehatzak eta abonu aukerak Udalaren webgunean daude ikusgai.

Arrasaten kirola egiteaz gainera, Bergarako, Oñatiko eta Eskoriatzako kiroldegietako eremu heze zein lehorrean kirola egin gura duenak abonu mankomunatua egin dezake; 18 urtetik gorakoek zein familiek.

## ZALDIBAR

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Dribling - Drink Team | **11-0** |
| Abokajarro - Alytis FK 2.0 | **6-5** |
| Arrasate Taberna - Kantzerlauten | **2-6** |
| Sonografos - Aldatz | **3-4** |
| Betrayer - Iluntz | **5-5** |
| Jibaros F. C. - Lasagabaster | **5-4** |
| Ostantz - Haizea's Weah | **4-2** |

**SAILKAPENA**

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | Dribling 2.0 | **19** | **7** |
| **2.** | Aldatz | **18** | **7** |
| **3.** | Jibaros F. C. | **18** | **7** |
| **4.** | Alytis 2.0 | **13** | **7** |
| **5.** | Abokajarro | **12** | **7** |
| **6.** | Sonografos | **12** | **7** |
| **7.** | Lasagabaster | **9** | **7** |
| **8.** | Haizea's weah | **8** | **7** |
| **9.** | Betrayer | **8** | **7** |
| **10.** | Kantzerlauten | **7** | **7** |
| **11.** | Ostantz | **7** | **7** |
| **12.** | Drink Team | **4** | **7** |
| **13.** | Arrasate Taberna | **3** | **7** |
| **14.** | Iluntz | **1** | **7** |

**PARTIDUAK**

URTARRILAK 17, ZAPATUA

**10:00** Haizea's weah- Lasagabaster / **Arrasate Taberna**

**11:00** Arrasate Taberna - Ostantz / **Lasagabaster**

**12:00** Dribling - Betrayer / **Ostantz**

**13:00** Drink Team - Kantzerlauten / **Dribling**

URTARRILAK 18, DOMEKA

**11:00** Abokajarro -Aldatz / **Jibaros**

**12:00** Sonografos - Jibaros / **Aldatz**

**13:00** Iluntz - Altys 2.0 / **Sonografos**

# Eskiatuz hasiko dute urtea Besaide elkarteko kideek

Gutxienez mendi irteera bat egingo dute hilero, eta ikastaroak eta eski irteerak ere antolatu dituzte



Eskiatzailea, Besaidek Baregesera egindako irteera batean. | BESAIDE

**M.T.** | ARRASATE

Besaide mendizale elkarteak prest du 2015erako egutegia. Urtarrilean, urte sasoiak eskaintzen dituen baldintzak aprobetxatuz, elurra izango da protagonista ekintzetan. Bihar bertan, asteburu-pasa joango dira Formigalera, eskiatzera.

Datorren astebururako, berriz, mendiko eski ikastaroa antolatu dute. 166 euro balio du izen-emateak, baina federatuek 140 euroren truke egin ahal izango dute ikastaroa eta 21 urte artekoek %65eko deskontua izango dute.

Hileko azken asteburuan, izotzetan eskalatzen ikasiko dute. Hasiberriek hastapen mailako ikastaroa jasoko dute, eta dagoeneko arituak direnek trebatzeko aukera izango dute.

Bi ikastaroetarako izen-ematea zabalik dago, baina plazak mugatuak dira, eta gomendagarria da lehenbailehen izena ematea.

### Urtea, mendirik mendi

Otsailaren 14-15eko asteburuan egingo dute lehen mendi irteera. Erraketekin joango dira, eta sagardotegia izango dute ondoren.

Horrez gain, besteak beste, martxoan eskola arteko ibilaldi neurtuak izango dira Arrasaten bertan; ekainean, Besaideko beteranoen martxa egingo dute Adarrara, ibilbidea Hernanin hasi eta Andoainen bukatuta; uztailean, berriz, Pirinioetara eta Moncayora joateko asmoa dute.

Gainera, urte osoan, Arabako lautada etapaka zeharkatuko dute, hamabi tartetan banatuta, martxoan hasi eta azarora bitartean, hain zuzen ere.

## AKE padel elkarteak abantailak eskainiko dizkie federatuei

AKE elkartean federatutakoek kiroldegiko eremu lehorreko abonuan %90eko deskontua izango dute, urtean zehar txapelketetan parte hartu dutela egiaztatuz gero. Era berean, federatuek astean ordu batzuez pistak ordaindu gabe erreserbatzeko eskubidea izan dezaten lanean ari dira elkartekoak. Azkenik, ohi bezala, federatuek osasun asegurua izango dute, baita federazioko txapelketetan parte hartzeko aukera ere. Izen-ematea urtarrilaren 20a baino lehen egiteko eskatu du AKEk.

# Danel Argoitia errugbilari arrasatearrak Euskal Selekzioaren deia jaso berri du

16 urtez azpiko autonomien arteko txapelketan lehiatu da aste bukaeran

**IMANOL BELOKI** | ARRASATE

Arrasate Errugbi Taldeko harrobian hazitako Danel Argoitia arrasatearrak Euskal Selekzioaren deia jaso berri du. Euskal konbinatuak zenbait entrenamendu egin zituen aurreko astean Mojategin, eta horietan guztietan egindako lan onaren ostean, Argoitia 16 urtez azpiko selekzio autonomikoen arteko txapelketan hautatutako jokalarien zerrendan sartu zen.

Aurreko aste bukaeran San Cugat del Vallesen izan da Euskal Selekzioa, eta Argoitia haiekin izan da Kataluniaren kontrako partidua jokatzen. Zoritxarrez, emaitza 64-0 izan zen eta ezin izan ziren garaipenarekin bueltatu etxera.

### Hemendik aurrerako partiduak

Datozen hilabeteetan, gainontzeko taldeen kontra lehiatu beharko du Euskal Selekzioak: Valentzia, Madril, Galizia, Gaztela eta Leon, Balear Uharteak eta Andaluzia.

Autonomien arteko txapelketa dela-eta, asteburu honetan ez da liga jardunaldirik egon, baina datorren asteburuan, armagin eta sarrailagileek Bera Bera talde donostiarra hartuko dute etxean.



Danel Argoitia arrasatearra. | GOIENA

# Sailkapenean gora egiteko, gogor borrokatu beharko du Mondrak

**M.T.** | ARRASATE

Mutrikuarren aurka 2-1 galdu ostean, jardunaldi honetako norgehiagokan irabaztea ere ez du erraza izango Mondrak, Josu Zubia entrenatzaileak onartu duenez. Izan ere, tolosarrek, sailkapenean beherago egon arren, "talde polita" dute, "joko konbinatuan ona", eta, Zubiaren esanetan, baloia mugitzen dakiena. Ligako lehen jardunaldian ere izan ziren bi taldeak aurrez aurre, eta orduan tolosarrek irabazi zuten.

Astean zehar, ordea, entrenamenduetan "lan ona" egin dute arrasatearrek; beraz, ikusteko dago oraindik partiduan zer gertatzen den. Zapatuan 17:30ean izango da hori, Tolosako Usabal kiroldegian.

Zubiak uste du Mutrikun gertatutakoa urduritasunaren ondorio izan zela, jokalariek jarrera ona erakutsi zuten-eta jokoan. Horregatik, konfiantza eman nahi die zapatura begira: "Ausartak izateko esaten diet".

### Igoerarekin itsutu gabe

"Urruti gaude igoeratik", dio Zubiak, eta ez du ahazten helburua hori dela, baina, bide horretan, lehenengo beste pauso batzuk eman behar direla dio. "Lehenengo, gauzak ondo egin behar ditugu, eta horrela hurbilduko gara goiko postuetara", esan du.


Dantzaz taldearen *Itzalak-Txoriak* ikuskizuna. | DANTZAZ


Borobil taldearen *On egin* antzezlana, umeendako. | BOROBIL

# Udaberriak giroa epeldu bitartean, denetik Amaian

- Zuzeneko hamabi kultura ikuskizun iragarri dituzte martxora bitartean
- 'Arrastoak' antzezlanak zabalduko du programazio berria, domekan

**IMANOL GALLEGO / L.Z.** | ARRASATE

Indartsu hasiko da 2015a Arrasateko Amaia antzokian. Hiru multzo nagusitan banatuta, urte hasiera honetan dozena bat zuzeneko ikuskizun izango dira antzokiko oholtzan.

Musikan, esaterako, herriko eta kanpoko taldeek osatuko dute hiruhileko honetako eskaintza. Asteon egindako aurkezpenean, Arrasateko Kultura zinegotzi Kepa Urteagak etxekoen eskutik etorriko diren ikuskizunak azpimarratu ditu. "Arrasate Musikalen eskutik etorriko zaigu lehena —otsailak 13—. Gero, Euskadi Brass taldearen emanaldia izango dugu, Kirmen Uribe idazlearen partaidetzarekin, otsailaren 22an. Euskadi Brass taldearen sustatzaileetako bat Alberto Urretxo arrasatearra da. Ozenkiren ekoizpenak itxiko du programa, martxoaren 28an, *Tosca* operarekin".

Musikaz gain, antzerkiak ere bere tokia izango du; hain zuzen ere, antzokiko programatzaileek euskal panoramaren lekuko izango diren hiru proposamen interesgarri ekarri gura izan dituzte. Lehenengoa Dejabu panpina-laborategiaren *Arrastoak* lana izango da, domekan, urtarrilak 18. "Euskal antzerki garaikidearen ordezkari paregabea da. Konfiantza osoz sentitzeko eta ikusteko modukoa", esan du Arrasateko Kultura teknikari Jon Garaik.

Lehenengo antzerki horrez gain, Markeliñek *Kixote* antzezlana eskainiko du urtarrilaren 24an. Etxeko txikienei zuzendutako lana da, eta Kixoteren eta Santxoren arteko adiskidetasun istorioa kontatzen da.

Dantza diziplinan, aipagarria da Dantzaz konpainiak martxoaren 7an taularatuko duen *Itzalak-Txoriak* ikuskizuna. Dantza ezagutzera eman eta zaletasuna pizteko ahaleginaren testuinguruan kokatu beharreko ikuskizuna da. Horren harira, Dantzaz konpainiak harreman estua egin du Arizmendi Ikastolarekin; izan ere, fruitu onak eman ditu orain dela bi urte abiarazitako elkarlanak. Arizmendi Ikastolako hezkuntza ez formaleko arduradun Gari Ibartzabalek adierazi duenez, konpainiaren *Firi Fara* programaren bitartez Arizmendin garatutako egitasmoak bere bidea egin du, eta harremana sendotzen joan da. Horri esker, bertako ikasleek ikuskizun soil bat baino gehiago jasoko dute.

### Amaia: 25 urteko udal kudeaketa

Arrasateko Udalak Citesa (Cines y Teatros SA) enpresari erosi zion antzokia, 1989an. Ordutik hona, erabilera handiko espazio izan da, eta artista eta ekitaldi ugari izan dira han. Ikuskizun batzuek izen handiko artistak ekarri dituzte Arrasatera; beste batzuk herriak eta herritik antolatutakoak izan dira. Aldaketen eta berritze-lanen ostean, aretoak 789 ikuslerendako lekua du egun.

## Bihar, Drop eta Highkick taldeak gaztetxean

**L.Z.** | ARRASATE

Hardcore musikaz gozatzeko aukera egongo da bihar, zapatua, Arrasateko gaztetxean.

Drop eta Highkick taldeak iragarri dituzte. Sarrera doan da, eta kontzertua 22:30ean hasiko da. Drop taldea Sevillatik dator. Laukoteak urrian kaleratu zuen bigarren diskoa. Estiloari dagokionez, *shoegaze-noise* talde moduan aurkezten dute euren burua. Highkick taldea, berriz, madrildarra da, eta urtebete dela eratu zen. Bost lagunek osatzen dute eta hardcore-metal musika egiten dute.

**Domekan, dokumentala**

Euskal Herrian elikadura burujabetzaren gainean eraikitzen ari diren esperientzien eta alternatiben berri ematen duen *Bide berriak: elikadura burujabetza Euskal Herrian* dokumentala eskainiko dute domekan, arratsaldeko seietan, gaztetxean.

## Eguenean ipuin kontalaria Kulturaten

**L.Z.** | ARRASATE

Udal Bibliotekak antolatuta, Miriam Mendozak ipuin kontalari saioa egingo du eguenean, hilaren 22an, Kulturaten. Hain zuzen ere, 3 eta 4 urteko umeei bideratutako saioa izango da eta 40-45 minutu iraungo du. Haurren adina kontuan hartuta, euskarri zuzenak erabiliko ditu Mendozak: txotxongiloak eta ipuin bildumak.

Ofizioz Haur Hezkuntzako irakasle, "afizioz" da ipuin kontalari Mendoza. Santa Marinako liburutegian saioa egin zuen atzo.

### Dantza gustuko dutenendako, Herrixa Dantzan gaur Uarkapen

Portaloi elkarteak antolatuta, Patxi Monterok gidatutako dantzaldi saioa egingo dute gaur, urtarrilak 16, Uarkape pilotalekuko tabernan. Musikak eta dantza tradizional ludikoek osatuko dute programa, eta sokan, bikoteka, soltean, korroan, taldeka... dantzan egiteko aukera egongo da, 19:30etik 21:00etara. Sarrera doan da eta parte-hartzea librea.

arbolapeta
arrasate
beinke

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Lore
LURRINDEGIA
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Jaione Isazelaia | Alkatea

# "Gardentasunarekin eta herritarrekin hartutako konpromisoa da memoria"

## Udal webgunean eskegi dute, azken hamabi hilabete honetako lanen errepaso interaktiboa

I.G. | BERGARA

Azken hamabi hilabeteotan Udalak herrian egindako lanik azpimarragarrienak batu, eta memoria aurkeztu du gobernu taldeak. Bertan, oso modu ulerterrazean, landa eta hiri auzoak, gizarte ongizatea, kirola, kultura edo hirigintza bezalako hamabi arlotan sailkatu dituzte abiarazi edo bukatu dituzten proiektu adierazgarrienak.


Jaione Isazelaia. | IMANOL GALLEGO

**Zer ikus daiteke 2014. urte amaieran aurkeztu zenuten memorian?**

Joan den urtean Udalak martxan jarri dituen proiektuak ageri dira. Asko amaituta dauden lanak izan arren, zenbaitetan, esleipena baino ez dago eginda, eta horrela adierazi gura izan dugu. Dena den, proiektu guztien diru partidak ere bideratuta dute. Jendeak modu errazagoan kontsultatu ahal izateko, gainera, arloka banatu ditugu. Memoria asko egiten dira, baina guk herritarrek erraz ulertzeko moduko memoria bat egin dugu. Udal webgunean, memoria horretako puntu guztiak oso modu bisualean mapa baten gainean kontsulta daitezke.

**Arlo guztiek dute garrantzia, baina proiektu izarrak ere nabarmendu dituzue.**

Maila edo multzo horretan, hauteskunde-programan hartutako konpromisoak eta herritarrekin bileretan adostu ditugun proiektu esanguratsuenak sartu ditugu.

**Memorian, gainera, hain erraz ikusten ez diren zenbait proiektu ere garatu dituzue.**

Tokiko garapen arloan, adibidez, Mekolalden irisgarritasuna bermatzeko lanak markatu ditugu. Industrialdearen garapenarekin lotura duen proiektua da hau. Udalaren barne antolaketa ere aldatu dugu. Prozesuetan oinarritutako antolaketa bat bultzatzen ari gara, eta herritarrek ikusi ez arren, onura handiak ekarriko ditu. Laster, tramite asko Internet bidez egin ahalko dira.

**Hau azken memoria izango da?**

Datozen hilabeteetan memoria osatuko dugu. Gure asmoa da etorkizunean ere horrelako memoriak bultzatzea.



Alokairu soziala kudeatzeko webgunea. | GOIENA

# Martxan da herriko alokairu soziala kudeatzeko webgunea

## Hain zuzen ere, herritarrak Suradesara edo udaletxera joan daitezke informazioa bila

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Jakina da Bergaran etxeak alokairuan hartzeko eskaera handia dagoela, eta, aldi berean, etxebizitza ugari, maizter gabe, hutsik daudela. Egoera horren aurrean, 2010-2020 Plan Estrategikoak markatzen dituen irizpideak erabilita, egoerari bueltа emateko programa abiarazi du Udalak. "Lur berririk okupatu gabe, dauden etxebizitzei irtenbidea ematea eta alokairuaren kultura sustatzea da gure helburua", dio Jaione Isazelaia alkateak.

Hutsik dauden etxebizitzak alokairuan jartzeko erraztasunak eman ahal izateko, alokairu programa propioa garatu du. "Lanketa luze askoren ondoren sortutako programa da alokairu sozialarena", azpimarratu du alkateak.

Programa garatzeko orduan, maizterren nahiz etxeko jabeen ahotsa entzun dute. Horri esker, alokairu prozesuaren bi aldeak babestu, eta "programa eraginkorragoa" egitea lortu dute.

**Programa ziurra**

Alokairu soziala sustatzeaz gain, egokitzapen-lanen kostua edo jabeen eta maizterren arteko mesfidantzak leuntzera dator. Horretarako, Udalak diru laguntzak aurreratuko ditu, eta ondoren, lagapen baten bidez, Udalak kostu hori berreskuratuko du interesik aplikatu gabe. Egin beharreko obren tasetan hobariak emango ditu Udalak, eta diru hori bonutan banatuko da.

Programa horien barruan sartzen diren etxejabeek abantaila ugari igarriko dituzte. "Kontratua amaitzerakoan etxea hasierako baldintza berberetan bueltatuko zaio jabeari, hori berme handia da", argitu du Isazelaiak.

**Kontsultarako plataforma**

Udal webgunearen barruan dagoen *www.bergara.eus/etxebizitza/* plataforma berrian, informazioa jasotzeko txokoa izateaz gain, alokairuak bertatik kudeatzeko aukera egongo da. Programaren parte izango diren etxe aukeren stock kontrolatu bat egongo da; gune berean, gainera, informazio teknikoa bertan kontsultatzeko aukera egongo da.

Plataforma berria herriko alokairu programa berriaren muina izango da, nahiz eta Udalak martxan jarri dituen proiektuak Bizigunen eta ASAPn ere aintzat hartzen dituen.

## Meza eta mokadutxoarekin ospatuko dute zaindariaren eguna San Anton auzoan

I.G. | BERGARA

Bihar da San Anton eguna, eta, urtero moduan, bertako auzotarrek zaindariaren eguna ospatuko dute. 11:00etan, auzoko baselizan, meza egingo dute.

Biharkoa, baina, ez da edozein meza izango; auzoari izena ematen dion santuaren eguna ospatzen dela kontuan izanda, ohiko mezaz gain, elizkizunean kantuak ere entzungo dira.

**Meza osteko mokadutxoa**

Zaindariaren eguna behar bezala ospatzeko, elizkizuna amaitu ondoren, auzotarrek eta gerturatzen diren bisitariek txorizoa, lukainka eta salda dastatzeko aukera izango dute.

## Zabalik dago helduen eskolan matrikulatzeko bigarren epea

Astelehenean ireki zuten bigarren matrikulazio epea helduentzako eskolan. Izena emateko bigarren epe hori hilaren 23an amaituko da. Ikastaroak ezagutu edo eskolei buruz argibideak behar dituztenek egoitzatik pasatu edo 943-76 44 52 telefono zenbakira dei dezakete.

## Pestiziden gaineko bideo emanaldia eta solasaldia martitzenean

Pestiziden gaia lantzeko, urtarrilaren 20an bideo emanaldia izango da, 19:30ean, kultura etxean. Gaiaren nondik norakoak ezagutzeko, martitzeneko saioa dokumental batekin hasiko da. Filma ikusi eta gero, solasaldia egongo da, eta bertan, ikusle guztiek iritzia emateko aukera izango dute.

## Gurasotasuna oinarri duten hainbat proiektu gaztetxean

Kartzela zaharreko Haur eta Guraso Asanbladatik, Ttiklik eta Sabeletik Mundura egitasmoak ezagutarazteko, domeka honetarako mahai inguru antolatu dute. 11:30ean bi hezitzaile aditük proiektu interesgarri horien aplikazio errealez hitz egingo dute gaztetxean.



Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com
TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK
Amillaga 5, behea - BERGARA

UREDERRA
ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918

MIZPILDI

OKINDEGIA
Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA



Agorrosingo kirolguneko pantailetan eskaintzen den informazioa. | ARANTZAZU EZKIBEL

# Arauak errespetatzearen garrantzia gogoratu dute

## Bizikidetza hobetzeko kanpaina egin dute Agorrosinen, baztertu beharreko jarrerak zehaztuta

**ARANTZAZU EZKIBEL** | BERGARA
Bizikidetza hobetzeko kanpaina egin dute azken asteotan Agorrosingo kiroldegian. Abendu erdialdean hasi zuten kanpaina kirol instalazioko langile eta arduradunek. Kanpaina honen bitartez erabiltzaileei gogorarazi nahi izan diete guztien ardura dela portaera egokia izatea eta arauak errespetatzea.

Agorrosingo instalazioetara jende asko joaten da egunero. Hori ikusita, kirol arduradunek uste dute gero eta garrantzitsuagoa dela portaera egokia izatea guztien arteko bizikidetza egokia izan dadin.

**Erabiltzaileak ere kexu**

"Baztertu beharreko hainbat jarrera antzeman ditugu", azaldu du Iñaki Ugarteburuk, Bergarako Udal Kirol teknikariak. Antzeman dituzten jarrera horiek Agorrosingo langileek eta arduradunek bakarrik ez, erabiltzaileek eurek ere antzeman dituztela azaldu du: "Kasu batzuetan erabiltzaileak eurak izan dira jarrera horiekin konturatu direnak eta kexatu direnak". Jarrera horiek askotarikoak izan daitezke: adibidez, baztertu beharreko jarrera bat da sorosle eta langileek emandako gomendioei kasurik ez egitea; baita fitness gimnasioko materiala jaso gabe lagatzea ere. Bada, emandako gomendioei kasu egitea da langile eta arduradunek eskatzen dutena. Igerilekura sartu aurretik ez dutxatzea, spako bainuontzian kapela ez janztea, bakoitzari dagokion aldagela ez erabiltzea eta itxiera ordua ez errespetatzea ere baztertu beharreko jarreren artean antzeman dute. Aurrerantzean, arauak errespetatzen ez dituztenei arautegia zorrotz aplikatuko zaie, zigor espedienteak zabalduta.


**ENRIQUE ROMERO**
ERABILTZAILEA

"Ez nekien informazio kanpaina abian zenik, baina ondo iruditzen zait. Arau batzuen berri baneukan, baina beste batzuen berri ez. Hala ere, uste dut beharrezkoa dela arauak errespetatzea denon artean hobetu konpontzeko".


**OIER ELORTZA**
ERABILTZAILEA

"Ez nekien informazio kanpaina hau abian jarri dutenik. Gainera, dagoeneko jaso dut etxean gutun bat zigor abisu batekin. Ordutegia ez errespetatzearren, bi minutu beranduago irtetearren, zigorra jarri didate, beste inongo abisurik jaso barik. Uste dut oso zorrotzak izan direla horretan".

## Bergarak Basauriren kantxara egingo du bisita bihar, zapatua

Azkeneko jardunaldian Lau Bide jatetxeari 22-23 irabazi ostean, mahoneroak indartsu daude Basauriren aurka lehiatzeko. 14. jardunaldian, Basauriko Artunduaga kiroldegira egingo dute bisita; partidua bihar izango da, zapatua, 18:15ean. Muniategiren mutilak sailkapenaren erdialdean daude, baina atzeko postuak gertu dituzte. Hala, beharrezkoak dituzte puntuak hortik ateratzeko. Bergara 10. postuan dago 11 puntuarekin. Basauri, aldiz, indartsu dago hirugarren postuan, 18 punturekin.

## Aurkari zuzenaren bisita izango du saskibaloi taldeak

Soraluce Bergara KEk partidu garrantzitsua izango du zapatuan. Sailkapenean aurkari zuzena duten Viento Sur taldearen bisita izango dute Labegaraietan. Partidua zapatuan izango da, 19:30ean. Asteburukoa hamalaugarren jardunaldia izango da. Orain arteko sailkapenari begira, hau da egoera: Bergara 6. postuan dago 21 punturekin; eta Viento Sur 5. postuan dago 21 punturekin. Jardunaldiaren ostean, egoera horri buelta emateko aukera izango dute mahoneroek.

## Hiru pilota partidu jokatuko dituzte asteburuan etxean

Etxeko pilotariek hiru partidu izango dituzte asteburuan etxean. Gaur, egubakoitza, bi lehia izango dira, 19:30ean hasita: lehenengoa lagunartekoa izango da; haien ondoren, lehenengo mailakoek Usurbilen aurka jokatuko dute. Bihar, zapatua, bigarren mailako kadeteek eskuz binaka jokatuko dute Gaztelekuren aurka, 11:30ean; eta ondoren Txukun-Lakuaren aurka euskal ligako lehia. Etxetik kanpo, infantiletan Goierriren aurka jokatuko dute gaur 18:00etan Urretxun eta 21:00etan gazteek Elgoibarren.

## Bertako euskara lantzeko ikastaroa

**A.E.** | BERGARA
Berba egiterakoan egiten diren ohiko akatsak zuzentzeko ikastaroa egingo dute Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Udal Euskaltegiak, Jardunen laguntzarekin.

Hamar orduko ikastaroak izango dira, ordu eta erdiko saioetan banatuta. Otsailean eta martxoan egingo dituzte ikastaroak. Urtarrilaren 30a baino lehen eman beharko da izena, Udal Euskaltegira deituta (943-76 44 53) edo inprimakia Udal Euskaltegira eramanda. Izen-ematea 10 euro ordaindu beharko da. Zortzi laguneko taldeak izango dira, eta taldeak osatu ostean zehaztuko dute ordutegia. Edonori zuzendutako ikastaroa izango da. Helburua da ohiko hizkuntza akatsak zuzentzea.

## Datorren martitzenean egingo du Lokatzak urteko batzar nagusia

### Aurreko akta onartzea eta diru kontuak izango dituzte bertan berbagai

**A.E.** | BERGARA
Lokatza Ziklismo Eskolak urteko batzar nagusia egingo du datorren astean martitzenean, urtarrilaren 20an. Bi deialdi egingo dituzte: lehena 18:30ean eta bigarrena 19:00etan. Irizar jauregiko bilera gelan egingo dute batzarra.

Besteak beste, aurreko akta onartzea eta diru kontuak izango dituzte berbagai.

**Gai zerrenda**

Urteko batzar nagusian lau gai nagusi landuko dituzte: lehenengoa aurreko akta irakurtzea eta onartzea izango da. Ohikoa den moduan, ez da arazorik egongo horretarako. Bigarren gaia diru kontuak izango dira: aurtengo denboraldiko diru sarrera-irteeren aurkezpena eta datorren denboraldiko aurrekontua onartzea.

Hirugarren puntua kirol gaiak izango dira: 2013-2014 denboraldiko memoria aurkeztuko dute lehenengo, eta horren ondoren, 2014-2015 denboraldirako aurreikuspenak zeintzuk diren zehaztuko dute. Azkenik, batzarrera joandako bazkideek galderak eta eskaerak egiteko aukera izango dute. Modu horretan, Lokatzak amaitutzat emango du urteko batzar nagusia.

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...
Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

BERGARA MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

# Simon Arrietaren aztarna erakutsiko du Beartek

Herriko margolarien mostra otsailaren 2ra arte egongo da Aroztegi aretoan

**IMANOL GALLEGO** | BERGARA

Simon Arrietaren mendeurrenari hasiera emateko, Beart elkarteak Gabonetako erakusketa kolektiboa urtarrilera pasa du. "Herrikidea omentzeko hasiera ekitaldia izango da hau", esan du Bearteko lehendakari Juanjo Altunak. Ateak gaur zabalduko dituen mostra margolariak landatu zuen hazi horren ondorio garbia da. "Arrieta maisua izan zen", dio Altunak.

Arrietaren hazia bizkor ernaldu zen, eta, hein handi batean, herrian horrenbeste margolari badago, haren erruz da: "Egun, zuhaitz mardul bat da". Eta haren azpian, margolari bakoitzak bere estiloa garatzeko aukera izan du.

Aroztegin 40 bat erakutsiko dituzte, eta, gehienak olio eta akuarelak diren arren, estilo eta formatuak zeharo desberdinak dira. Otsailaren 2ra arte guztiez gozatzeko aukera egongo da Barrenkaleko aretoan.

### Hurrengo erronkak

Mendeurren berezi honetan, Beart elkartearen lana ez da margo mostra horretara mugatuko. "Hasi gara inbentarioa osatzen joateko lan ugari jasotzen", aipatu du Altunak. Eta onartzen du koadroen identifikazioa "martxa onean" doala. Horrez gain, irailean urtero antolatzen den aire zabaleko pintura lehiaketak herriko pintorearen izena eroango du, eta haren izena izango duen sari berezi bat emango da.

Askotan esan ohi da nor bere sorterrian profeta izatea ez dela lan erraza izaten, baina, kasu honetan, mendeurren honetako ekintzak eta parte-hartzaileak ikusita, argi dago Simon Arrietaren lan onena bere herrikideengan lagatako aztarna dela.


Simon Arrieta. | UDAL ARTXIBOA


Bearteko kideak erakusketa muntatzen. | IMANOL GALLEGO

**JUANJO ALTUNA** | BEART-EKO LEHENDAKARIA

## "Arrietak irakasten irakatsi zigun"


I.G.

**Maisua, margolaria... Simon Arrieta pertsona garrantzitsua izan zen.**

Margolari bezala zuen kalitatea ezaguna da oso, baina berak ikasitakoa erakutsi egiten zuen. Irakasten irakatsi zigun, eta horrek, koadroez gain, bere aztarna areagotzen lagundu du.

**Hortik dator mendeurren honen garrantzia.**

Hirugarren omenaldia izango da, baina, data borobil bat denez, egitarau oparoagoa antolatu gura izan dugu. Aurten, gainera, herriko beste kultura talde batzuek ere bat egingo dute ospakizun honekin.

**Erraz antzematen da Arrietaren koadro bat?**

Haren pintura oso garbia da, pintzelada bakoitzak norabide eta asmo jakin bat dauka. Kolorea ere maisuki menderatzen zuen eta bere koadroetan koloreak garrantzi handia dauka. Bere estilo propioagatik lortu zuen horrenbesteko ospe eta izena. Erretratista bikaina zen.

NIRE USTEZ



**PEDRO GARITANO**

## Ohitura arriskutsuak

Badaude onurak ekartzen dituzten ohiturak, baina galerak eta arriskuak ere badakartzate batzuetan. Horien artean Whatsapp, bat-bateko mezuen sistema izugarria. Horren bidez 1.000 milioi pertsona baino gehiagok elkarrekin komunikatzeko aukera dugu.

Galerei dagokienez, bi puntutan gelditucko naiz gaurkoan, alde batetik daukan pribatutasun eza, eta bestetik, gramatika zein ortografiaren erabilera kaskarra.

Whatsapp erabiltzen dugunean, badakigu seinale jakin batzuk azaltzen direnean, *Chek, Chek bikoitza, eta Chek bikoitz urdina,* mezuak sistemara bidali direla, hartzaileak jaso, eta irakurri dituela, baina ez dago inongo segurantzarik, hartzaileak bakarrik jaso dituenik. Izan ere, momentuz, ez da pribatutasuna bermatzeko neurri eraginkorrik hartu.

Bat-bateko mezuen sistema izanik, edozein ordutan eta hainbat leku sinestezinetan ikusten da jendea mezuak bidaltzen, bere gisako terminologia erabiliz: Zertarako erabili *b, v, h?* Eta zergatik ez idatzi kalean berba egiten dugun bezala? Azken finean elkar ulertzen dugu nahiz eta askotan, ganoraz idatzi beharra dagoenean, sekulako lotsak pasatu, baina ez bakarrik idazleak, hartzaileak baizik…

Nire ustez, gustura eta erremedio gabe hartzen ditugun ohiturak dira, naiz eta ustekabeko galeren arriskuan egon. Horrelakoak gara.

**"Whatsappean hizkuntza kaskarra erabiltzen da "**


Idazlaguna programaren aurkezpenera joan ziren herritarrak. | GOIENA

## Lehen fasearen ostean, Idazlaguna programa otsailaren 7an abiaraztera goaz

KOMUNITATEA GOIENA | JARDUN EUSKARA ELKARTEA | BERGARA

Abenduaren 3an, Euskararen Egunean, aurkeztu genuen Irizar jauregian Idazlaguna proiektua. Orain, proiektua martxan jartzeko lanei ekingo diegu.

Izen-emateak oso emaitza onak izan ditu eta dagoeneko 125 komertziotatik gora eta 80 idazlagun baino gehiagok eman dute izena. Dena dela, oraindik ere izena emateko aukera zabalik dago eta interesa duenak Jardunen webgunean eskegita dagoen fitxa bete dezake.

### Merkatarien ondoan

Merkatari eta idazlagunek otsailaren 7tik aurrera ekingo diote lanari. Lehenek euren kezkak adieraziko dizkiete, eta bigarrenek lagun egingo diete.

Programa honi esker, euskarak herriko merkataritzan duen pisua areagotu egin nahi dugu.

## 'Elizaren kantu zaharra' emanaldia gaur arratsaldean

Ensamble Sapientiak eta Frederic Tavernier-Vellasek emanaldia egingo dute gaur. 20:00etan hasiko den kontzertua oso interesgarria izango da; besteak beste, sinagogetan kantatzen ziren abestiak eta Erromako elizako kantuak entzungo dira. Emanaldia Trinitateko komentuan izango da, eta sarrera borondatea izango da. Emanaldiaren ostean, bertaratutako guztiek mojek prestatutako mokadutxoa dastatzeko aukera izango dute.

## Datorren zapatuan inauguratuko du eskolak eraikin berria

Urtarrilaren 24an izango da San Martin Agirre eskolako Haur Hezkuntzako eraikin berriaren inaugurazio ekitaldia. Bada, eskolako langile eta gurasoak gonbidatzeaz gain, eskolako arduradunek zehaztu dutenez, 30 urtez eskolako komunitatearen parte izandako norbanako guztientzako ekitaldia izango da. Orain arte bezala, eraikin berriarekin, San Martin eskolak bere kalitate eta konpromisoarekin jarraitzeko asmoa azaldu du.

## 'Chef' komediak zaporea jarriko dio zineklubari

Familia eta sukaldea batzen direnean, drama edo komedia handiak sortzen dira. *Chef* filmak bigarren bidea hartu du, eta eguaztenean, 20:00etan, umore puntua jarriko dio Zabalotegi aretoko hurrengo zineklub saioari. Egungo egoera barre eragiten duten uneekin lotu dituen komedia estatubatuar horrek oso kritika onak jaso ditu. Hiru euroren truke, besteak beste, Dustin Hoffman, Sofia Vergara eta Manu Leguizamo aktore ezagunekin barre egiteko aukera polita izango da.

## Herritarrek odola eman ahal izango dute urtarrilaren 21ean

Herriko Odol Emaileen Elkarteak dei egin die bergararrei, batik bat gazteei, datorren eguaztenean, urtarrilaren 21ean, 18:00etan, anbulatoriora joan eta odola eman dezaten. Emaileek bi baldintza bete behar dituzte: 18 urtetik gora izatea eta 50 kilo baino gehiago pisatzea. Odol Emaileen Elkartetik zehaztu dutenez, jende gazteak parte hartzea oso garrantzitsua eta premiazkoa da. Lehen aldiz doazenen emaileek osasun -galdeketa bete ostean eman ahal izango dute odola.

# Herriko kultur ondarearen transmisioa gal ez dadin

Oñatiko Herri Curriculuma sortzeko lehen saioa egingo dute eguaztenean

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Oñatiko Herri Curriculuma sortzeko lanean dihardu Hezkuntza Mahaiak. Hau da, Oñatiko kultura ondarea herriko haurrei transmititzeko egitasmoa jarri gura du martxan. "Garrantzitsua da gai hau Udalarendako eta datozen urteetan pisu handia izango duen egitasmoa da", dio Hezkuntza zinegotziak, Nerea Zubiak.


Oñatiko ikuspegi orokorra. | OIHANA ELORTZA

**Hiru esperientzia**

Lehen jardunaldia datorren eguaztenean, hilaren 21ean, egingo dute eta Gipuzkoako hiru herritako esperientziak zuzenean ezagutzeko aukera egongo da. Batetik, Arrasateko *Herria ezagutzen* esperientzia azalduko du hango Udaleko Hezkuntza teknikariak, Juanito Barberanek; *Orioko Curriculuma sortzen* egitasmoaz proiektuko koordinatzaile Iñigo Gaitonek jardungo du eta Azpeitiko Udaleko Hezkuntza taldeko Joxe Garmendia eta Irene Valverde ere etorriko dira euren herrian duten *Azpeitia ezagutzen, Azpeitiko ondarea* unitate didaktikoetan proiektua azaltzera. Jardunaldia zinema aretoan izango da, 18:00etan.

"Hiru herri horietako esperientziak ezagutuko ditugu eta gero guri geure curriculuma egitea tokatuko zaigu. Ez da egun batetik bestera egingo den proiektua, urte batzuetako lana izango da, baina beharrezkoa ikusten dugu", adierazi du Nerea Zubiak.

Proiektu hau Hezkuntza Mahaiak bideratuko du, hau da, Udalak, ikastetxeak eta bertako Guraso Elkarteek, elkarlanean. Hori aberasgarria dela iritzita, egitasmo berriak elkarrekin martxan jartzeko borondatea dute.

# Odol emaile egiteko dei egin du odol elkarteak

Urteko lehen ateratzea gaur, egubakoitza, izango da, arratsaldeko bostetan, Txantxiku ikastolan

O.E. | OÑATI

Oñatiko odol emaileen elkarteak prest du 2015ean egingo dituen odol ateratzeen egutegia. Hamar ateratze egingo dituzte; hilean bat, udako bi hilabeteetan izan ezik. Gaur, egubakoitza, izango da urteko lehen ateratzea.

**Jaitsiera**

Odol emaileen elkarteko kide Pili Irazbalek azaldu duenez, "iazko gorabeherei dagokienez ez dago aldaketa handirik, baina, hilabetez hilabete begiratuz gero, kopuruak zertxobait jaitsi egin direla ikusten da". Hori dela eta, 2015ari begira herritarrei bi mezu helarazi nahi diete elkartekoek: "Dagoeneko emaileak direnei, ez daitezela hitzorduez ahaztu eta etor daitezela. Bestalde, inoiz eman ez dutenei, lehenbailehen odol emaile egin daitezela, besteak beste, erretiratzen ari direnak ordezkatzeko".

**Betiko tokian**

Tokiari dagokionez, aurtengo ateratzeak ere Txantxiku ikastolako beheko solairuko aretoan egingo dituzte, betiko moduan, 17:00etatik 19:30era bitartean. Donostiatik mediku eta erizainez osatutako talde bat etorriko da ateratzeak egitera.

**URTEKO ODOL ATERATZEAK**

- ▶ Urtarrilak 16.
- ▶ Otsailak 6.
- ▶ Martxoak 13
- ▶ Apirilak 17
- ▶ Maiatzak 15.
- ▶ Ekainak 12.
- ▶ Iraila 11.
- ▶ Urriak 9.
- ▶ Azaroak 6.
- ▶ Abenduak 11.

**Ariane Intza** | Ikaslea

# "Ur falta da Mozanbiken duten arazo larriena, eta lagundu gura diegu"

Mozanbiken ateratako argazkien erakusketa zabaldu dute lau gaztek kultura etxean

TXOMIN MADINA | OÑATI

*Beste errealitate bat: Salaue-Mozabike* izeneko argazki erakusketa dago Oñatiko kultura etxean urtarrilaren 25era arte. Pasa den udan hiru hilabetez lanean egon ziren han lau euskaldun. Ariane Intza oñatiarra da horietako bat.


Ariane Intza. | GOIENA

**Nolako herria da Salaue?**

Imajinatzen ditugun herri tipiko horietako bat: zuhaitz handiak, area, lur gorria, banbuz eta lastoz egindako etxeak... Mozanbikeko probintziarik pobreenean dago Salaue.

**Zer nolako beharrak ikusi dituzue?**

Batez ere, ur falta. Urteko sasoi lehorrean ez dute urik. Askotan egoera txarrean dagoen ura hartzen dute hango herritarrek, eta gaixotasun asko dakartza horrek.

**Zer lan egin duzuen hara joan zareten gazteok?**

Eusko Jaurlaritzak emandako beka baten bitartez joan gara, Gazteak Lankidetzan izenekoa. Gure aldetik erabaki dugu zer egin eta informazioa batzen ibili gara, ikerketa antropologiko eta arkitektoniko bat egin dugu: elkarrizketak, grabazioak... egin ditugu. Dokumentazioa jasotzen ibili gara.

**Nolako esperientzia izan da?**

Oso aberasgarria. Jendeak oso ondo hartu gaitu eta gauza asko kontatu dizkigute.

**Zeuek ateratako argazkiak dira erakusketakoak, ezta?**

Bai. Batzuk erretratuak dira. Badira orokorrak ere, politak. Eta beste asko eguneroko bizitza erakusten dutenak dira; nola bizi diren ikusten da argazkien bitartez.

**Erakusketa gelan, gainera, hitzaldia egingo duzue bihar, ezta?**

Bai. Erakusketan zehar bideo bat ere proiektatuko da etengabe. Horrez gain, bihar, zapatua, hitzaldi bat emango dugu, 18:30ean, argazkietan ikusten dena eta gure esperientzia geure ahotik ezagutzeko. Elkarrekin egon ginen laurok egongo gara hitzaldi horretan.

**Esperientzia honek izango du jarraipenik? Badizue plan gehiago erakusketaz gain?**

Bai. Hangoa ikusi eta gero, asmoa da proiektu ezberdinak aurrera eramatea. Ur putzuak edo ura urte guztirako pilatzeko depositu edo horretarako propio izango den eraikin bat egitea, adibidez. Osasun zentro bat eta amatasun gela bat eraikitzeko asmoa ere badugu etorkizunean.

**Nola lortuko duzue dirua?**

Erakusketako argazkiak, adibidez, salgai daude. Bestalde, kontu korronte bat ere zabaldu dugu Laboral Kuxan, gura duenak dirua sartu dezan. Hauxe da: 3035 0054 51 0540068609. Diru laguntzak lortzen ere saiatuko gara aipatutako proiektu horiek gauzatzeko.

**"Bihar hitzaldia emango dugu erakusketa gelan, 18:30ean"**

**Noiz arte dago erakusketa eta zein ordutegi du?**

Erakusketa hilaren 25era arte dago zabalik, egunero, 18:00etatik 20:00etara.

### Baba eta Bizarra musikariek zuzenean joko dute bihar gaztetxean

Ondarroako Baba bakarlariak eta Oñatiko Bizarra musikariek kontzertua egingo dute bihar, zapatua, Antixena gaztetxean, 22:00etan. Doan izango da.

Datorren zapaturako, berriz, punk gaua antolatu dute. Arrasateko Dirty Brothers, Azpeitiko Baserriko Oillasku Labin eta Zumaiako Brote taldeek joko dute zuzenean.

### Olabarrieta auzora irteera domekan Aloña Mendirekin

Urteko lehen irteera egingo du Aloña Mendiko mendi sailak domekan. Olabarrieta auzora izango da irteera. 12 kilometroko ibilaldia egingo dute, Amiño , Jentiletxe, Gorostiaga eta Udanatik bueltan Olabarrietara iritsita. Abiatu ere auzotik abiatuko dira, hango elkartetik, hain zuzen ere, 08:30ean.

### Krossfit eskaintza ezagutzeko ate irekiak Zubikoa kiroldegian

Krossfit izeneko zerbitzu berria eskainiko du Zubikoak, eta zer den erakusteko ate irekiak egingo dituzte datozen bi asteetan. Martitzen eta eguenetan, 18:15ean. Krossita entrenamendu modu bat da, askotariko ariketa funtzionalak lantzen ditu intentsitate handian. Indarra eta tonu muskularra lantzea da helburua.

### Jonan Fernandez dator eguaztenean Santa Ana antzokira

Oñatiko EAJk antolatuta, Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetza Saileko idazkari nagusi Jonan Fernandezek hitzaldi ireki eta elebiduna egingo du datorren astean. *Bakea eta adiskidetasuna* izenburua izango du hitzaldiak eta eguaztenean izango da, hilaren 21ean, Santa Ana antzokian, 19:00etan.

### Zikloturisten lizentzia berriak Aloña Mendik tramita ditzake

Zikloturisten lizentzia berriak Aloña Mendiko txirrindularitza sailaren bidez tramitatu ahal izango dira aurten. Urtarrilaren 23ra bitartean, saileko arduradunak Aloña Mendiko bulegoetan egongo dira, 19:00etatik aurrera, herriko zikloturismo-zaleei tramitazioak egiten laguntzeko. Urteko kuota zortzi euro da.

# Jarraipena eta berritasunak 2015eko aurrekontuan

- Ia 17 milioi euro izango ditu aurten Udalak
- Kirol Sailak izan du jaitsiera handiena
- Bilduren botoekin onartu da; EAJ abstenitu egin da

OIHANA ELORTZA | OÑATI

16.742.668 euroko aurrekontua izango du Oñatiko Udalak 2015ean, iazkoa baino %1,30 txikiagoa. 221.000 euro gutxiago izango ditu, hain zuzen. Abenduko osoko bilkuran onartu zuen datorren urterako aurrekontua udalbatzak, Bilduren aldeko botoekin. EAJ abstenitu egin zen. "Gure ustez, aurrekontu onak dira, orekatuak. Udalaren egoera finantzario-ekonomikoa saneatua da eta hori seinale ona da", adierazi zuen amaieran Mikel Biain alkateak. Hain zuzen, kontu-hartzaileak zehaztu zuen krisian egonda, aurrezki arrunta positiboan izatea oso adierazle garrantzitsua dela, eta 2008a ezkero dagoela positiboan. "Guk abstentziora jo dugu. Bilduk egin dituen proposamenak onartu ditugu eta ez ditugu kritikatu. Baina gu gureak defendatzera etorri gara. Egin ditugun batzuk onartu egin dira eta beste batzuk ez. Beraz, gu ere erdibidean geratu gara", esan zuen Lourdes Idoiagak, EAJko bozeramaileak.

**Gizarte Zerbitzuak**

Mikel Biain alkateak adierazi du saiakera berezia egin dutela gastu sozialak mantentzeko edo indartzeko. "Nik uste dut lortu dugula gai sentsibleenak ez ukitzea: Gizarte Zerbitzuetarako laguntza, larrialdietarakoa, babesik gabeko egoeran daudenentzat bideratzen dena, etxez etxeko zerbitzura emandakoa...", esan zuen Biainek. "Horrekin batera, pertsonal gastuei eustea ere lortu dugu, eta baita kontratazio berriak egitea ere", gaineratu du.

Hain zuzen, etxez etxeko zerbitzura bideratuko da partida garrantzitsuenetako bat: 661.400 euro. Aipagarriak dira baita ondorengoak ere: gazteek etxebizitzak alokatzeko laguntza programarako 108.000 euro eta Musika Eltzia gauzatzeko 300.000 euro.

Arloz arlokako sailkapenari dagokionez, Kirol Departamentua da jaitsiera txikiena izan duena. Hain zuzen ere, herriko kirol plangintza egiteko proiektuarekin ari dira orain bete-betean. Atzo, eguena, ziren egitekoak herriko kirol diagnosiaren aurkezpena, egungo erabilera datuak eta ohiturak jasotzen dituen azterketaren emaitza. Bigarren fasea izango da etorkizunerako plangintza egitea. Kirola egiten duten eragileekin eta norbanakoekin ari dira egiten plangintza hori, Astigarragan egoitza duen Kirol Management enpresaren laguntzarekin.

**Kontratazioak**

Sozio-ekonomian, herriko merkataritza bultzatzeko proiektuekin jarraituko dute. Hala, moneta sozialaren hirugarren faseari ekingo diote urtarrilean. Hau da, herriko lantegiekin harremanetan jarraitu ekimen horretara txertatzeko moduak zehazteko. Enpresa berrien promozio bekak emateko, bestalde, 26.000 euro daude jasota eta merkataritza arloko ekintzetarako, berriz, 40.000 euro. Azoka biziberritzeko plana egiteko asmoa ere badu Udalak, besteak beste, saltzeko postuak berrantolatu eta azoka bereziak egiteko aukera aztertzeko. Ideia horri forma emateko lanean hasita dago Udala. Enpleguari lotuta, bestalde, autonomoendako ikastaroak eta langabeendako prestakuntza eskolak antolatzea ere aurreikusten da. Lanbageek, gainera, eurei zuzendutako orientazio zerbitzua



Kale Barria, eguaztenean. | JAGOBA DOMINGO

## Alokairurako laguntzak gazteendako

Gazteek etxebizitza alokatzeko laguntza programan 108.000 euro gorde dira. Helburua bikoitza da: hutsik dauden etxebizitzak alokairurako sustatzea eta emantzipaziorako zailtasunak dituen kolektibo bati emantzipazioko pauso hori ematen laguntzea. Hiruzpalau esperientzia kontrastatzen ari da Udal Gobernua, Oñatirako eredu propioa egiteko.

**MIKEL BIAIN** | ALKATEA

## "Diru laguntzak indartu egin ditugu"

Joan den urtekoak baino txikiagoak izan arren, aurtengo aurrekontuak "orekatuak" direla uste du Udal Gobernuak.

**%1,30 txikiagoa izango da aurtengo aurrekontua. Zertan nabarituko da jaitsiera?**

Aipatu portzentaje hori dirutara eramanda, 221.000 euroko diferentzia da. Jaitsiera nabarmenena (313.000 euro) inbertsioetan eta mailegu interesetan (185.000 euro) izan dira izan da eta igoera handienak, aldiz, pertsonaleko kontratazio berrietan (323.000 euro) eta Udalak emaniko diru laguntzetan (127.000 euro), etxebizitza hutsen alokairu programagatik. Interes gutxiago ordaintzea, logikoa den moduan, mailegu gutxiago eskatzea aurreikusten delako izango da.

**Zein izan da oinarria?**

Nagusiki, inbertsioetan izan da jaitsiera, eta enplegu kontratazioan beste horrenbeste igoko da.

**Nolakoak dira aurrekontu hauek? Zeintzuk dira ildo nagusiak?**

Garrantzia eman nahi izan diogu gobernuak lehentasunezko jotzen dituen departamentuak indartzeko pertsonal kontratazioak abian jartzeari: Ongizateko arduradun bat, Berdintasun teknikari bat, Parte-hartzeko teknikaria... Bestalde, gainontzeko diru laguntza lerro guztiak mantendu ez ezik igo ere egin dira; desbabes egoeran dauden herritarrei zuzendurikoa, esaterako, %13 bat igo da; 113.000 euro arte.

**Kontu-hartzaileak adierazi du krisian egonda aurrezki arrunta positiboan izatea adierazle garrantzitsua dela.**

Urte latzak dira eta 2009-2010 arte Udalak hirigintza alorretik izan zituen sarrera ezohikoak joan ziren pikutara. Hori horrela izanik ere, sarrera eta gastu arrunta parean izatea osasun ona izatearen seinale da. Gainera, kontuan izan behar da udal zergak izoztuta daudela eta, aipatu bezala, Udalak diru laguntza lerro ezberdinak mantendu ez ezik indartu ere egin dituela.



GOIENA

**"Sarrera eta gastu arrunta parean egotea ona da"**

**Aurrekontuak lantzeko, ekarpen asko jaso dituzue herritarrengandik?**

Aurten, herriko hainbat eragilerekin izan dira harremanak eta posta elektronikoz ere jaso dira ekarpenak.

**Asmo berriak eta lehengoen jarraipena datoz jasota txostenean.**

Bai, horrela da. Eltziaren kasuan, inbertsio urtea izango da 2015a, musika taldeendako entsegu lokalen egokitzapena dela-eta. Errekaldeko sotoko egoera kaskarra ahal den lasterren bideratzea da helburua. Moneta sozialari dagokionez, balorazio positiboa egiten dugu eta ildo horretan ahal diren urratsak egiten jarraituko dugu herritar eta dendariekin elkarlanean. Bidegorriari eta eraztun berdeari dagokienez, helburu garbia da: gure herria alderik alde bidegorriz lotzea. Mugikortasun jasangarriaren eta segurtasunaren ikuspegitik ez ezik aisialdirako ere balioan jarriko da egun dagoeneko herritar askok egiten duten ibilbidea. Gauza handia da Elorregitik Udanara oinez nahiz bizikletaz seguru joan ahal izatea.

**Oposizioa abstenitu egin da, baina aurrekontuak lantzeko egon den elkarlana ona izan dela aipatu du.**

Saiatu gara, bai. Dena dela, uste dut proposatu zituzten proiektuei eman diegun ezetza ondo arrazoitu dugula eta onartu egin dutela.

**LOURDES IDOIAGA** | EAJ



## "Guk egindako proposamen gutxi onartu dizkigute"

Alderdi jeltzalea abstenitu egin da aurrekontuen bozketan. Lourdes Idoiagak, EAJren bozeramaileak, bi arrazoi nagusi aipatu ditu: "EAJren proposamen gutxi onartzeaz gain, atez atekoa sortzen ari den defizitak bultzatu gaitu abstentziora". Eta gaineratu du: "Kontu-hartzaileak esan zuen moduan, 2008an krisia lehertu zenean hartutako erabakiak ere izan dira oraingo orekaren oinarria. Orduan Gobernuan geundela, Austeritate Plana ipini genuen martxan, baina Gizarte Zerbitzuetarako partidak sendotu eta enplegu plan bat ezarrita . Hala ere, bi milioi eurotik gorako diru poltsa utzi genuen, eta horrek ere gaurko orekan lagundu du. Aurrekontuen oreka mantentzea positiboa da, baina zabor bilketaren gastua gehitzen doala ikustea, negatiboa; gastuak gora eta tasak izoztuta. Horrek hiru urtetako aurrekontuetan 600.000 euro inguruko defizita erakutsi du. Positiboa da aurreko legealdian planifikatu eta idatzitako hainbat proiektu aurrera eramaten ari direla: Errekalde eta San Lorentzoko auzoen errehabilitazioa, efizientzia energetikoa, bidegorriak... Baina orain, EAJren proposamen gutxi batzuk onartu dira. Horregatik, eta, besteak beste, atez atekoak sortzen duen defizitarengatik, ezin genion baiezkorik eman".

EAJk egindako eskaeren artean, "kirolari dagozkion biak ukatu dizkigute. Atletismo pista herrian dagoen zaletasunari egoki erantzuteko beharrezkoa da eta padelarena, berriz, eskaera handia dago eta proiektua bideratzeko lehen pausoak ematea beharrezkoa ikusten dugu", adierazi du Idoiagak. Egindako beste eskaeren inguruan, hauxe esan du bozeramaile jeltzaleak: "Mugikortasun urria duten pertsona nagusientzat gimnasia egokitu zerbitzua jartzea eta Bidaurreta-Olakuako argiteria eraberritzea onartu egin dizkigute, baina ukatu egin dizkigute ITEren (Etxebizitzen Azterketa Teknikoa) ondoren egin beharreko obrak diruz laguntzea (50 urtetik gorako etxebizitzetan) eta oinezkoen pasealekuak egokitzea (argia, eserlekuak, komunak...).

**Kezka**

Aurrekontuek zer falta duten galdetuta: "Adierazi genuen gure kezka, joan den urteko aurrekontua ez delako betetzen, batez ere, inbertsioetan. Azken finean, exekuzio mailak neurtzen du agindutakoa ondo bete den. Bestalde, ezin da horrelako defizita sortzen duen hondakin bilketa bat mantendu", erantzun du Idoiagak.

## San Martin parkean estalkia

San Martin auzoan dauden ziburuen parkean estalkia jarriko dute. Ez da izango Goiena kalean dagoen moduko estalkia. Batez ere, eguzkitik babesteko estalkia jartzea aurreikusten da, eta udarako prest izaten saiatuko dira. Bestalde, Etxaluzeko parkean ere egingo dituzte lanak. Batez ere, zoladura guztia konponduko dute; zuhaitzetako alkorkeak eta iturri bat ipintzeko aukera ere aztertuko dute. Saskirk jartzea ez da aurreikusten. 30.000 euro daude gordeta Etxaluzerako.



San Martin auzoko ziburuak. | TXOMIN MADINA

## AURTENGO AURREKONTUAK SAILKA

| SAILAK | GASTUAK 2014 | GASTUAK 2015 | ALDEA 2015-2014 | % 2015/2014 |
|---|---|---|---|---|
| **Komunikazioa eta Parte-hartzea** | 164.122,00 | 151.580,00 | -12.542,00 | -7,64 |
| **Gizarte Zerbitzuak** | 1.973.753,39 | 1.922.881,17 | -50.872,22 | -2,58 |
| **Kirola** | 1.281.098,77 | 1.060.990,34 | -220.108,43 | -17,18 |
| **Kultura** | 1.160.444,10 | 1.516.833,55 | 356.389,45 | 30,71 |
| **Barne Antolaketa** | 6.210.790,07 | 6.384.098,80 | 173.308,73 | 2,79 |
| **Sozioekonomia** | 585.379,34 | 514.872,81 | -70.506,53 | -12,04 |
| **Lurralde Antolaketa** | 4.845.187,18 | 4.416.822,24 | -428.364,94 | -8,84 |
| **Aisialdi Hezitzailea** | 743.124,88 | 774.589,88 | 31.465,00 | 4,23 |
| **GUZTIRA** | **16.963.899,73** | **16.742.668,79** | **-221.230,94** | **-1,30** |

izango dute 2015ean. Hiru kontratazio ere zehazten dira: Gizarte Zerbitzuetako zuzendari teknikoa, Berdintasun teknikaria eta Parte-hartze teknikaria.

Arreta sozialean, eguneko zentroan bost plaza gehiago egokitzea eskatuko diote Gipuzkoako Foru Aldundiari. Apartamendu tutelatuen proiektuarekin lotuta, 30.000 euroko partida bat proposatu dute proiektu horren aholkularitzan eta komunikazioan aurreikusten diren gastuak ordaintzeko. Gainera, 2015eko lehen hiruhilekoan proiektua eta obrak deialdi bakarrean esleitzea aurreikusten da.

**Elikadura subiranoa**

Lurralde antolamenduan, egoera okerrean dauden auzoak urbanizatzen eta irisgarri bihurtzen jarraituko dute. Hala nola San Lorentzo eta Errekaldeko lanen fase berriak gauzatu, Olabarrieta eta Ugarkalde bidegorriz lotu (250.000 euro), Olabarrietako errepide azpiko pasabidea egin, ibilbide natural historikoak berreskuratu eta eraztun berdearen proiektua (200.000 euro) osatu. Sail horretan, parke naturaleko ibilbidea den Oñati-Olapoto-Jaturabe aurreproiektua eta aurrekontua egiteko asmoa ere badago. Baita Udalaren, Aldundiaren eta Aloabel taldearen arteko lantaldea berreskuratzeko asmoa ere. Bestalde, elikadura subiranoaren astea txertatu gura dute Ura eta Errekaren Astearen barruan eta auzo-konposterako izena emanda dutenei irtenbidea eman gura diete, bai gune gehiago prestatuta edo bai teknika berriak aplikatuta.

Hezkuntzan, berrikuntza modura, Oñatiko Herri Curriculuma eta Eskolara Oinez egitasmoak aurrera eramatea jasotzen da. Euskaran, mintzalagun programari, euskararen egunari eta Auzoko egitasmoari eta antzekoei jarraipena ematea da asmoa. Gainera, joan den urtean kaleratu zen *Oñatiko euskeria* liburua oinarri hartuta, lan hori jendarteratzeko eta herritarrek ondare hori barneratzeko helburuarekin egitasmo desberdinak jarriko dira martxan. Kulturan, bestalde, Eltzia proiektuarekin aurrera jarraitzearekin batera, herriko kultura taldeen arteko diru laguntza banaketa ere egingo da aurten.

Herriko gazteen lokalen azterketa lanarekin jarraituko dute aurten eta aisialdirako begirale ikastaroetarako diru laguntza ere emango dute aurten. Berdintasunari lotuta, teknikari bat kontratatzeko asmoa izateaz gain, berdintasuna ikastetxeetan, etxean, hezkuntzan eta gainerako eremu guztietan bultzatzeko asmoa ere jasotzen dute aurrekontuek.



Olabarrieta auzoko labaderoa, auzolanean eraberrituta. | OÑATIKO UDALA

## Auzotasuna programarekin aurrera

Auzotasuna programak jarraitu egingo du, eta horretara bideraturiko kopurua era mantentzen da. Udalarendako garrantzitsua da auzoek bertako bizitza dinamizatzeko, indartzeko, bitartekoak euren esku izatea. Alde horretatik, Udal Gobernuaren apustua garbia da: Auzo alkate foroa, auzotasun programa... Guztia ildo berean doa; auzoetako bizitza indartzeko asmoarekin.

# Gazteen 24 lokal daude, gehienak mutilenak

Elkarbizitza eta segurtasuna bermatuko dituen protokoloa Aste Santu osterako egongo da

**AMAIA TXINTXURRETA** | OÑATI

Oñatiko gazte lokalen azterketa egiten hasita dago Udala eta gazteekin egindako elkarrizketetatik ateratako datuen aurkezpena egin zuten eguaztenean gaztelekuan. Bilera horretan eman zuten aditzera, adibidez, Oñatin 24 gazte lokal daudela. Genero aldetik, 23 lokal dira mutilenak, horietako batean, neska batzuk ere egoten dira, baina, bestela, nesken lokal bakarra dago herrian.

Erabilerari dagokionez, gazteek bertan egoteko erabiltzen dituzte eta herriko beste eragileekin harremana duten edo ez galdetuta, gehienek baietz erantzun dute, eta esan dute, batez ere, gaztetxearekin dutela harremana. Gabonetan hainbat lokaletan izan dira informazioa jasotzen, eta eguaztenean gazteekin batera egindako bilerarekin, hasiera eman zioten herriko gazte lokalen azterketako lehen faseari. Datorren eguaztenean bizilagunekin egingo dute bilera eta hilaren 28an, guraso eta lokalen jabeekin. Bigarren fasean, otsailean hasiko dira bigarren fasearekin eta orduan gazteak, bizilagunak eta lokal jabeak batera bilduko dira eta adostasunetara iristen saiatuko dira. Nerea Zubia zinegotziak azaldu duen moduan, helburua da lokalen azterketa egitea eta protokolo bat zehaztea elkarbizitza eta lokalen segurtasuna bermatuko dituena. "Ez da dekalogo hutsa izango, udaleko sail ezberdinen lana eta funtzioak ere zehaztu behar dira. Kalkulatzen dugu Aste Santu osterako egongo dela gertu", dio Zubiak.



Gaztelekuan eguaztenean egin zuten bilera. | AMAIA TXINTXURRETA

## Tindayan hartutako irudiak muntatzen ari da Kepa Aranburu zinegilea

**O.E.** | OÑATI

Bere bidetik doa Tindaya mendiari buruz Kepa Aranburu zinegile oñatiarra egiten ari den dokumentala. Hartutako irudien muntaketa lanetan ari dira orain, nahiz eta errekurtso plano konkretu batzuk hartzeko asmoa ere baduten oraindik. Irudien muntatze lana bukatutakoan, irudi eta audio postprodúzioarekin hasiko dira, eta, horren atzetik, musika eta irudi aldetik egin beharreko azken ukituak.

*Tindaya, montaña sagrada* ondare kultural eta arkeologikoa babestearen gaia aztertzen duen film luzea egiten ari da Aranburu. Proiektuak berak 8.000-9.000 euro inguruko aurrekontua du osotasunean: aurre-prestaketa, grabaketa eta muntaia kontuan hartuta.



Tindayan hartutako irudietako bat. | K.A.

# 'Ez da egun txarra izango!' kantuak girotuko die Aratuste-martitzena ikastetxeetako neska-mutikoei

## Arizmendi Ikastolako 16 urteko zortzi gaztetxok asmatu dute

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA
Hilabete eskas geratzen da Aratusteetarako, eta Kultura batzordea hasita dago lanak aurreratzen. Azaroan deitu zuen Aratuste-martitzenerako abestia hautatzeko lehiaketa, eta dagoeneko aukeratu dute irabazlea. *Ez da egun txarra izango!* kantua da eta Arizmendi Ikastolako 16 urteko zortzi gaztek egin dute.

**Sei abesti dotore**
Aratuste-martitzeneko ekitaldiak hankamotz zeudela konturatu ziren iaz Kultura batzordeko kideak eta ikastetxeetako ordezkariak, eta martitzen goiza girotze aldera *flashmob* edo dantza bat asmatzea bururatu zitzaien. Horretarako, baina, abesti bat behar, eta erabaki zuten lehiaketa bidez aukeratzea abesti hori. "*Flashmob*-a egiteko zergatik ez sortu Aretxabaletako kantu bat?", jakinarazi du Zigor Quintanillak, Kultura zinegotziak.

Lehiaketara inor aurkeztuko ez ote zen beldur izan ziren. Eta a ze ezustekoa hartu zuten sei abesti jasota. Seiak Aretxabaletako musikariek egin dituzte; abesti dotoreak, gainera. Epaimahaiko kideek –kultura batzordekoak eta ikastetxeetako ordezkariak– onartu dute lan zaila izan dutela: "Abesti benetan politak eta ezberdinak jaso ditugu, eta eskerrak eman gura dizkiegu guztiei. Seiek merezi izan dute saria, baina batek irabazi behar", gaineratu du Quintanillak. Puntuak banatzerakoan kontuan hartu dituzte musika, batetik, eta letra, bestetik. Eta baloratu dute koreografia edo dantzarako pausoak aurkeztu izana. "Balitekeke musikari dagokionez irabazlea baino hobeak izatea aurkeztutakoen artean, baina abestiaren helburua da umeek dantzan egitea, eta horretarako aproposena iruditu zaigu", argitu du zinegotziak. Hala, puntu gehien lortu dituena izan da Aripro taldeak aurkeztutako *Ez da egun txarra izango!*

**Abesti alaia eta jai girokoa**
Arizmendi Ikastolako 16 urteko zortzi neska-mutikok asmatu dute. Hona musikariak: Ainhoa Sanchez, Eider Luengo, Irati Gaztelu, Irati Gutierrez, Beñat Abasolo, Josu Irure, Iñaki Arana eta Jon Egidazu. Eta erabili dituzten instrumentuak izan dira: biolina, trikitia, gitarra elektrikoa, baxua eta bateria. "Abesti alaia eta dantzarako aproposa asmatu dugu, jakinik umeendako izan behar zuela, eta jai girokoa", esan du Ainhoa Sanchezek. 600 euro jaso dituzte eta ikas bidaiarako poltsan gordeko dute.

Lehiaketara aurkeztutako talde guztiek egin dutela lan handia ikusirik eta abesti benetan politak direla jakinik, horiek zelan jaso eta zelan erabili Aratusteetan zehazteko asmoa du Kultura batzordeak.

**Lokalak gertu erabiltzeko**
Herriko kuadrillak, ostera, dagoeneko hasi dira Aratuste-domekarako gertatze lanetan. Mozorroak gertatzeko lokalak utzi izan ditu Udalak, eta aurten ere gertu daude iaz erabilitako biak. Kontu txikietarako dago Mitarte plazakoa, eta muntaia handietarako Eskoriatzako Torrebaso pasealekuan dagoena (Almen azpian), G pabilioian. Bi horietarako giltzak dagoeneko eska daitezke Arkupeko harreran.

Udalak gogorarazi du lokalak erabili ahal izateko zehaztutako araudia bete behar dela, aurreko urteetan legez. Hala, fidantza jarriko da izena ematerakoan, 20 euro. Kuadrilla bakoitzak arduradun bat izango du, eta harena izango da taldekideen erantzukizuna. Arduradun horri emango diote giltza, eta ezingo da kopiarik egin. Arduradunak bere datuen berri emango du Arkupeko harreran giltza jasotzerakoan –ENA eta telefonoa– eta dokumentua sinatu. Adin txikikoen ardura nagusi batek izango du, hortaz, lokala erabiltzen hasi aurretik datuak eta telefonoa eman beharko ditu. Gainera, gurasoak jakinaren gainean egongo dira. Eta adin txikikook umeak badira, arduradunak, lokalean bertan egon beharko du.




Kultura batzordeko kideak, ikastetxeetako ordezkariak eta talde irabazleko lau kide. | M.A.

### 'Ez da egun txarra izango!'

**Aratuste-martitzenerako asmatu duten abestiaren letra.**

*Karnabalak ailegau die, Atxabaltara*
*goiz goizetik hasita guazen danok plazara*
*mozorro ta kolore danok a ze algara*
*pirata edo cowboy...*

*Karroza itzelak ikusi, Duranan behera*
*bertatik politenak dauko sari edarra*
*goizeko indarrak galduta guazen jatera*
*tripa ondo bete ostien, ez fan etxera!*

*Egun osuen lagun artien*
*urtien behin da, ez galdu aukera*
*Aratusteak ez da egun txarra izango...*

*Gaztiak, zaharrak ta umiak kalejirara*
*txarangiak jarriko baitau giro alaia*
*geldirik egon ezinien aitzakik ez dau*
*eguzkixa edo eurixa, beti da jaixa!*

*Domeka bikainan ostien asteartea*
*danok fango gare berriro Duranan behera*
*Dotore-dotore jantzitxa kandela atera*
*Txinek egin du aurtengoa ezin hobea!*

*Egun osuen lagun artien*
*urtien behin da, ez galdu aukera*
*Aratusteak ez da egun txarra izango!*

# "Estatu espainolak bere izaera ez demokratikoa" erakutsi duela diote Bilduk, Aralarrek eta EAJk

## Adierazpen instituzionala onartu dute hamasei lagunen atxiloketak direla-eta

**M.A.** | ARETXABALETA
Aretxabaletako Udalean ordezkaritza duten Bildu, Aralar eta EAJ alderdiek adierazpen instituzionala onartu dute astean izandako atxiloketak direla-eta. Hala jakinarazi gura izan diete herritarrei: "Guardia Zibilak hamasei euskal herritar atxilotu ditu. Atxilotu gehienak abokatuak dira, euskal presoen abokatuak, hain zuzen ere. Oinarrizko giza eskubideen kontrako eraso oso larria izan da eta adierazpena onartu dugu".

Hala, adierazpen hori babestu duten hiru alderdiek uste dute atxiloketak Euskal Herrian irekitako bake, demokrazia eta askatasunaren bide berriaren kontrako "erasoa" direla: "Estatuaren itxikeriak eta bortizkeriak euskal jendartearen bake eta normalizazio politikorako borondate argia zapuztu nahi dute".

Gaineratu dute abokatuek "funtzio berezia eta ezinbestekoa" dutela pertsonen giza eta defentsa eskubideak babesteko, oraindik gehiago eredu demokratiko batean, eta, horregatik, zera esan dute: "Kasu honetan presoen eskubideen defentsan aritzen diren abokatuak atxilotu ditu Guardia Zibilak. Presoei dagozkien giza eskubideen urraketen lekuko zuzenak dira eta abokatuen atxiloketa hauek defentsarako eskubidea ere urratu dute".

Eta bukatzeko gaineratu dute: "Estatu espainolak, berriro ere, bere izaera ez demokratikoa erakutsi du. Urtarrilaren 10ean milaka euskal herritarron aldarrikapenari jaramonik ez eta oinarrizko eskubideak urratzearen aldeko apustua egin du".

**Operazio mediatikoa**
EAJko kideek gaineratu dute Espainiar gobernuaren eta bestelako botereen jarrerek ez dakarkiotela inongo onik euskal bakegintza eta normalizazio prozesuari. "Batetik, azken makro-operazioko hamasei atxilotuetatik hamahiru kalean dira jada, inputatuta bai, baina kargu eta fidantzarik gabe; operazio mediatiko ugari eta judiziala urri."

Eta bestetik diote, lehenago edo geroago Estrasburgok atzera botako duela Auzitegi Gorenak, kanpoko presioak medio, estatu desberdinetan betetako zigorrak ez konputatzeko derrigorrean hartu behar izan duen erabakia. "Tamalgarria da espainiar gobernuaren marketing operazio batengatik pertsona errugabeen, presoen eta preso izan direnen giza eskubideak beste behin ere zigorgabetasun osoz urratzea".

**PSE-EEk ez du bat egin**
Aretxabaletako Udalean ordezkaritza duen PSE-EE alderdiak, ostera, ez du bat egin adierazpenarekin.

# Apurketa Murubide plazako umeendako jolasparkean

## Helikoptero itxurako jolasaren helizeko hainbat elementu solte zeuden, eta jaso egin dituzte langileek

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Murubide plazan egindako jolasparke berriko zabu batean hainbat apurketa egin dituztela antzeman dute astean udal langileek. Apurketak helikoptero itxura duen jolasak izan ditu; haren helizeak, hain zuzen ere.

Langileek jolasa aztertu dute eta erabaki solte zeuden elementuak jasotzea, kalte handiagoak saihesteko. Udal arduradunek gero, hornitzaileari jakinarazi diote, Lappset enpresari hain zuzen, hondatutako elementua konpon dezan. Konponketa hori hamar bat egun barru egingo dute, Gernika plazako jolasgunea berritzeko lanak hasten dituztenean Lappseteko langileek. Hilaren 26aren bueltan izango da.



Murubideko helikopteroa helizerik gabe. | UDALEKO HIRIGINTZA SAILA

Udal ordezkariek gogorarazi gura diete herritarrei guztien ardura dela Aretxabaletako kaleak eta instalakuntzak zaintzea eta egoera onean mantentzea, eta guztien esku dagoela, gainera. "Aretxabaleta gure herria da, zain dezagun!", esan dute.



Odei Vazquez karateka borrokarako gertu. | ODILO VAZQUEZ

**Odei Vazquez** | Karateka

# "Lesionatuta nago eta ezingo dut onena eman, baina ikastera noa"

## Estatuko karate txapelketa jokatuko du aste bukaeran Guadalajaran, Euskadiko Selekzioarekin

**M.A.** | ARETXABALETA

Estatuko karate txapelketa jokatuko du Guadalajaran Odei Vazquezek, UDAko karate jokalariak (Aretxabaleta, 1992), bihar eta etzi. Euskadiko Selekzioko kide izango da Bartzelonan bizi den Ivan Galan arrasatearrarekin batera. 5 urterekin hasi zen karatean, eta aste bukaerako txapelketa hori saria dela argitu du.

**Noiz jakin zenuen estatuko txapelketa jokatuko zenuela?**

Orain dela hilabete inguru, aurre-aukeraketa bat egin ostean esan zidaten.

**Horrek esan gura du aurretik lanak ondo egin dituzula, ezta?**

Bai, edo beste batzuek okerrago egin dituztela. Ondo nabil hemen, Euskadin, baina Espainian kontuak oso ezberdinak dira. Nire kategorian [67 kiloz azpikoetan], esaterako, oso maila handia dago.

**Txapelketa gogorra da orduan...**

Bai, oso gogorra.

**Euskadiko Selekzioarekin aurretik ere ibili izan zara, ezta?**

Bai, baina oraingoan, finalen fasea bakarrik jokatuko dute Guadalajaran, eta halako txapelketa batean lehenengoz nago.

**Zein probatan hartuko duzu parte?**

Kumite modalitatean; hau da, borrokan jardungo dut. Hiru minutuko borroka da eta puntu gehien eskuratzen duenak irabazten du. Txapelketa honetan, gainera, zuzenean kanporatzen da galduz gero.

**Eta zer espero duzu?**

Ahal dudana egingo dut, baina ez dut espero aparteko emaitzarik. Izan ere, lesionatuta nago, bihurdura dut hankan eta aukerak asko murriztu zaizkit. Hala eta guztiz, ikasteko oso baliagarria izango da.

**Min hartuta zaude orain, baina, bestelakoan, momentu onean zaudela esango zenuke?**

Momentu hobeak izan ditut, fisikoki batez ere, orain dela urte pare bat, esaterako. Baina 20 urte bete eta gero asko aurreratu dut.

**Zeintzuk dira zure asmoak, erronkak, aurrera begira?**

Txapelketei dagokienez, Espainian zerbait irabazi gurako nuke. Eta bestelakoan, gerrikoak irabazten joatea; orain beltza daukat, lehenengo Dan maila, eta hamar Dan daudenez, horiek eskuratzen joan.

> **"Ondo nabil hemen, baina Espainian kontuak oso ezberdinak dira"**

### Astelehenean eta martitzenean danbor hotsak izango dira

San Sebastianen omenezko danbor hotsak Aretxabaletan ere entzungo dira datorren astean. Arizmendi Ikastolako Basabeazpi guneko neska-mutikoek astelehenean, hilaren 19an, astinduko dituzte danborrak, 16:30ean.

Kurtzebarri eskolakoek, ostera, martitzenean, San Sebastian egunean, egingo dute, 15:30ean. Eguraldi onarekin Herriko Plazan elkartuko dira eta, bestela, pilotalekuan. Eta Pausoka haur eskolakoek ere martitzenean jardungo dute danborrari, eskolako patioan; 11:00etan, hain zuzen.

### Dantza garaikidearen gaineko ikastaroa egingo dugu eguenetan

KOMUNITATEA GOIENA |
JAIKI ELKARTEA | ARETXABALETA

Urtarrilaren 22an hasi eta martxoaren 26a bitartean dantza garaikidearen gaineko ikastaroa egingo dugu berriro, eguenetan: *Dantza garaikidea: inprobisaketa-konposaketa*. Kuartel zaharrean elkartuko gara, 18:30etik 20:00etara, eta Arantza Iglesias izango dugu gidari. Ertza antzerki eta dantza konpainiako dantzaria da hura eta *Cuerpos limites* proiektuaren koreografoa eta dantzaria.

Izena emateko epea zabalik dago. Hona bideak: *jaikielkartea@yahoo.es*; 943-53 43 96; eta Facebook bidez. Prezioa: 60 euro; eta langabeek, 50 euro.

### Erretiratuak Tolosako Inauterietara joango dira aurten ere

Tolosako Inauterietara joateko ohitura dute Basotxo erretiratuen elkarteko kideek, eta aurten ere Inauteri-martitzeneko giroa bertatik bertara bizi izateko gogoz daude. Hala, otsailaren 17an joango dira; 10:00etan irten autobusean Azbeko geltokitik eta 19:00etan itzuli.

Izena eman eta txartelak erosteko epea zabalik daukate dagoeneko, eta azken eguna otsailaren 6a izango da. Horretarako, Basotxoko bulegotik pasatu behar dute interesatuek astegunetan, 11:00etatik 12:00etara bitartean. Prezioa: 35 euro.



M.A.

## Basoko kontuak Arkupen

Onddoen, goroldioen, likenen eta iratzeen berri jaso dute argazkitan, eta erakusketa dago Arkupe kultura etxean urtarrila bukatu artean. *Basoaren azala* izenarekin, basoko landaretzan hain ezagunak ez diren izakien berri eman gura dute. Hala, basoko protagonistak zuhaitzak eta zuhaixkak izan arren beste izaki batzuk ere badirela diote, eta, gainera, kromatismo berezia ematen diotela.

### OHARRAK

**'BIG EYES' FILMA DAGO ASTE BUKAERAN**

Helduek *Big eyes* filma izango dute gaur eta bihar (22:00), etzi (19:30) eta astelehenean (16:00). Umeek, ostera, *Friends* izango dute bihar eta etzi (17:00), euskaraz.

**ZIRKU EMANALDIA EGINGO DUTE UMEEK**

Zirku tailerrean ikasten jardun duten neska-mutikoek emanaldia egingo dute bihar, 13:00etan, Arkupen.

**GERTU ARETO-BIZIKLETA BIRTUALAREN ORDUTEGIA**

Ibarra kiroldegian gertu daukate areto-bizikleta birtualaren ordutegi berria. Argibideak hemen: 943-03 98 42.

MartiN
Mitarte 16
ARETXABALETA
943 79 01 72
ERLOJU DENDA - BITXITEGIA
ERRETIROAGATIK
%30eko
deskontua bitxietan
Eskerrik asko denoi!

# Eskoriatzako toponimiaren gainean egindako lana gertu dago

## Baserrien, erreken, tontorren eta kale-etxeen izenak jaso dituzte azken hiru urteotan, eta gaur aurkeztuko dute lan hori Ibarraundi museoan

MIRARI ALTUBE | ESKORIATZA

Eskoriatzan azken hiru urteotan toponimiaren gainean egindako lana aurkeztuko dute gaur, egubakoitza, 18:00etan, Ibarraundi museoan. Azaroan egindako osoko bilkuran onartu zuen lana udalbatzak, eta orain, herritarrei emango diete horren berri.

**Kale-etxeen izenak ere bai**

IkerMap enpresak izan du ikerketaren ardura, eta hango zuzendari Imanol Goikoetxea etorriko da gaur lana aurkeztera. Goikoetxeak, gainera, Oxel Uribe-etxeberriaren laguntza izan zuen ahozko bilketa egiteko, eta Onintza Eskibel eskoriatzarrak herritarren ekarpenak jasotzen jardun zuen erakusketa fasean.

Leku-izenak aztertzen ditu toponimiak, eta horixe egin dute Eskoriatzan, leku-izenak jaso. Denetarik bildu dituzte: baserrienak, tontorrenak, zelaienak, iturrienak, parajeenak... Eskoriatzaren kasuan, badago bereziki egin den lan bat: kaleko etxeen izenak batu: "Kale-etxe asko egon izan dira herrigunean duela oso gutxi arte, eta ikusten genuen, hirigintzak izan duen aldaketaren ondorioz, etxe horiek desagertu diren hein berean izenak ere desagertzen ari zirela. Horregatik, horiek jaso nahi izan ditugu, eta, jasotzeaz gainera, idazkera ere arautu dugu", jakinarazi dute Euskara Zerbitzuko kideek.

Hala, bada, artxibo administratiboen ikerketa lana eta ahozko erabileraren bilketa egin dute. Izenak batzeaz gainera, izen horien normalizazio edo estandarizazio lana ere egin dute; hau da, euskal grafiaz egoki nola idatzi behar diren erabaki. Horretarako, Euskaltzaindiaren laguntza teknikoa izan dute.

**Herritarren ekarpen asko**

Ikerketa fasea iaz bukatu zuten. Eta horren ostean etorri ziren erakusketa eta normalizazio faseak. Maiatzean, ikerketan jasotakoa erakusgai jarri zuten, eta herritarren ekarpenak jaso zituzten. Euskara Zerbitzuko kideak harrituta geratu ziren, jende askok agertu zuelako interesa, eta, ondorioz, ekarpen dezente jaso zituzten: "Erakusketa kultura etxean jarri genuen, kalera ere atera genuen, eta zazpi elizateetara eraman. Izan ere, geuk ere herritarren ekarpena jasotzeko interes handia geneukan, ez genuen ikerketa hutsean utzi nahi, askotan ingurua hobeto ezagutzen dutenak herritarrak dira-eta", diote.



Bolibar elizatea. | MIRARI ALTUBE

Izenen idazkerak, kasu batzuetan, zalantzak sortu ditu; batez ere, Euskaltzaindiak emandako idazkera irizpena eta herriko ahoskera oso ezberdinak izan diren kasuetan. Beste kasu batzuetan, ostera, forma bereko izenak desberdin jasotzeko proposamena egon da. "Halakoetan, etxe-izen bat denean, adibidez, etxe-jabeari galdetu izan diogu eta haren iritzia aintzat hartu dugu".

**Mapa banatuko dute gaur**

Lana ez dagoela behin betiko bukatuta diote Euskara Zerbitzukoek: "Toponimia erabat bizia da. Eta badaude modu erabat logikoan onartuta gelditu ez direnak ere. Beraz, ez dut uste horrelako lan bat inoiz erabat bukatuta gelditzen denik. Baina lanaren zati handiena ahalik eta egokien egin da".

Jasotako izen horiekin guztiekin paperezko mapa egin dute. Eta gaur, aurkezpen ekitaldian banatuko diete herritarrei.


MIKEL LARREA

## Xota taldearen bisita atsegina

Eskoriatza kirol elkarteak 50. urteurreneko ekitaldiekin jarraitzen du, eta martitzenean, lehen mailan jokatzen duen Magna Navarra Xota areto futbol taldearen bisita izan zuten. Imanol Arregi, entrenatzailea, Eskoriatzako begiraleekin elkartu zen lehenengo, eta gero, partidua jokatu zuten. "Kiroldegia bete egin zen, eta aparteko giroa sortu. Herriko gaztetxoak jokalari nafarrekin egon ziren argazkiak ateratzen, botak sinatzen... Hunkigarria izan zen", jakinarazi du Narciso Pavok, elkarteko kideak.

## Literatura solasaldietarako izena emateko epea gaur itxiko da

M.A. | ESKORIATZA

Literatura solasaldiak izango dira bibliotekan, otsailean hasita. Euskaraz eta gazteleraz jardungo dute liburu baten gainean. Ordurako, baina, izena eman beharra dago, eta gaur da horretarako azken eguna. Hona bideak: *biblioteka@eskoriatza.net* eta 943-71 31 35. Debalde dira saioak.

Euskarazko solasaldiak Pako Aristi idazleak gidatuko ditu, eta lehenengoa otsailaren 24an da, martitzena; Arantxa Urretabizkaiaren *3 Mariak* liburua aztertuko dute.

Gaztelaniazko saioen gidaria, ostera, Ruben Angel Arias Rueda izango da. Lehenengoa otsailaren 10ean egingo dute, eta Mario Vargas Llosa idazle ezagunaren *La ciudad y los perros* lanaren gainean jardun.

## 'Zhunba day' egunerako izen-ematea zabalik dago

M.A. | ESKORIATZA

Lehenengo *Zhunba day* eguna egingo dute Joseba Iñurrategi pilotalekuan urtarrilaren 24an, zapatua, eta ordurako izen-emate epea zabalik dago. Eguaztena, urtarrilak 21, da azken eguna, eta kiroldegira jo behar da horretarako (943-71 53 28). Eskoriatzako *zumba* eskolako ikasleek lehentasuna izango dute, baina antolatzaileek uste dute nahiko leku izango dela interesa duten guztiendako.

Ekitaldia 10:30ean hasiko da, eta kirolari eskainitako festa izatea gurako lukete antolatzaileek, Eskoriatzako Udalak eta E-goitek kirol zerbitzuak. Musika eta mugimendua bateratzen dituen kirola da *zumba*, eta jarraitzaile asko ditu.

NIRE USTEZ

MARISOL ANDRADE



## Urte jasangarria

Urte zaharra joan da eta berria hasita daukagu jadanik; proposamenez, nahiez zein ametsez beteta. Nire nahi nagusia *jasangarri* hitzarekin batera doa: nondik datozen lehengo elikagaiak gure nuke jakin; bai jateko, janzteko zein arnasteko orduan.

Gaur egun, nire ustez, gure osasunerako funtsezkoa da horrelako erantzunak jakitea. *Mens sana in corpore sano* esaldia bete gura badugu, besteak beste. Horretarako, informazioaren bila abiatu nintzen; *kola* famatuen freskagarri mota baten monopolioa nola formatzen den ikusi nuen telebistan. Alde batetik, osagaien artean bere formula sekretua zegoen; aroma naturala sartuta eta onartuta. Beste aldetik, arto ziropea ere gehitzen da. "Arto ziropea" entzuterakoan santu bat agertu zitzaidan, bai! *Monsanto*, hain zuzen. Ene jainkoa! Nire pentsamenduek zalantza handi batekin topo egin zuten: artoa, transgenikoa ala ekologikoa erabiltzen da? Monopolio hori milioi kantitateaz mugitzen baita. Zalantzan nago oraindik; beraz, nire iritziz etiketatzeko orduan oso garrantzitsua da trazabilitatea erakustea; nondik hartzen diren elikagaiak jakiteko lehenengo, bai herrialdetik baita naturatik ere.

Etxe jasangarri bat osatzeko, filosofia jasangarria eduki behar da, eta informazio zuzena ezinbestekoa da; horrela lortuko dugu: *corpore sano* eta *mens sana* urte jasangarri honetarako.

**"Arto ziropea entzuterakoan santu bat agertu zitzaidan, bai!"**

### Saskibaloiko kadeteek hondarribiarren aurka jokatuko dute

Saskibaloi partidu bi izango dira bihar, zapatua, Manuel Muñoz kiroldegian. 11:15ean Bergararen aurka jokatuko dute juniorrek, eta 16:30ean, Hondarribiko Cafeteria Miramar taldea hartuko dute errendimenduko kadeteek. Ez dituzte partidu samurrak; hortaz, etxeko zaleen berotasuna eskertu egingo dute.

# Erretiratuek gimnasia egiteko parkea laster egongo da zabalik

## Falta diren argiteria lanak bukatu eta ingurua txukundu ostean, erabiltzeko moduan izango dute

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Torresoroako ingurune berdean erretiratuen psikomotrizitatea lantzeko parkeko azken lanak egiten dihardu Antzuolako brigadak. "Gimnasia egiteko aparailuak jarrita ditugu, baina oraindik argiteria lanak egitea eta ingurua txukuntzea falta da parkea publikoari zabaltzeko", azaldu dute brigadako langileek. Lanak ondo bidean, asmoa da datorren astean bertan erretiratuek erabilgarri izatea.

"Oso pozik" eta "gustura" jaso dute albistea herriko erretiratuek. "Herri guztietan dago eta nik erabili izan ditut; semearengana joaten naizenean Gasteizera, adibidez, horrelako aparailuak erabili ditut. Beharrezkoa zen", dio erretiratutako emakumezko batek.



Erretiratuen artean interesa sortu du gimnasia parkeak. | MAIDER ARREGI

### Sei gimnasia aparailu

Guztira, gimnasia egiteko sei aparailu daude. Psikomotrizitatea lantzeko dira. Gerria, eskumuturrak, besoak, hankak eta belaunak lantzeko. Probatzeko "desiratzen" daudela diote.

### Olamendikoen borondatez

Ima Beristain alkateak esan du Olamendiko senar-emazteek Ongizate Sailerako utzitako herentziari esker egin ahal izan dutela parkea. "Olamendiko senar-emazteak hil zirenean, Ongizatean gastatzeko dirua utzi zuten. Hori errespetatuz egin ditugu erretiratuendako parkeko lanak. Euren oroimenez esker-oneko plaka jarriko dugu", dio. Beharrezkoak diren hainbat material ere erosi dira: koltxoiak, oheak, aulkiak... Gainera, Torresoroa atzealdeko irteera ez da guztiz irisgarria; hala, irteera hori egokitu egin gura du Udalak, jasotako diru -partida horri esker.

# A8M lasterketan izena eman daiteke gaurtik

## Antolatzaileek ohartarazi dute boluntarioak behar dituztela proba prestatzeko

M.A. | ANTZUOLA

Aurten, hirugarrenez egingo dute Antzuolako 8 Miliak lasterketa, otsailaren 22an. Kirola bultzatzea eta guztiondako jai herrikoia egitea du helburu antolakuntzak.

Gaur, urtarrilak 16, goizean zabaldu dute izen-ematea, *Kirolprobak.net* webgunean.

### Adin guztiendako festa

Herritar guztiendako kirol festa izango da. Hala, 10:30ean, A8M helduen mendi lasterketari emango zaio hasiera. 16 eta 17 urteko gazteek parte hartzeko gurasoen baimena sinatuta bidali behar dute *antzuolako8m@gmail.com* helbidera. 11:00etan, txikiendako A8M minimotoen lasterketa egingo da. Plastikozko motortxoa eta kaskoa parte-hartzaileek eroan beharko dute eta sinatutako gurasoen baimenak bertan jasoko dituzte. Proba bakoitzaren ostean hamaiketakoa egongo da parte-hartzaile guztientzat. 13:00etan sari banaketa izango da.

### Hamar izen-emate opari

Iaz moduan, Udalak hamar izen-emate oparitu ditu. Zozketaren emaitzak *Antzuola.com* helbidean daude.

### Boluntario beharra

Lasterketa aurretik eta baita egunean bertan ere hainbat lanetarako boluntarioak behar izango dituzte. Denetariko lanak izango dira, baina ez dira konplikatuak izango: bidea markatu, bidegurutzeak egin, horniduretan egon, eta abar.

Laguntzeko prest daudenek posta elektroniko bat bidali beharko dute, izen-abizenekin: *antzuolako8m@gmail.com.*



Iazko parte-hartzaileek elurra izan zuten oztopo. | GOIENA

# Atxiloketak salatu dituzte

Urtarrilaren 12an gertatutako atxiloketak salatzeko eta "erasoak" gera daitezela eskatzeko, elkarretaratzea egin dute 60 herritarrek asteon. Leloa *Atxilotuak askatu, eraso gehiagorik ez!* izan zen. Biharko, manifestazioa deitu dute Donostian hainbat eragilek.




ANTZUOLAKO EHBILDU

## OHARRAK

**2015ERAKO AURREKONTUA**

Urtarrilaren 19an, aurtengo aurrekontua herritarrei aurkeztuko die Udal Gobernuak Olaranen, 19:00etan. Ondoren, 19:30ean, Hirigintza batzordean prestatutako oinezkoendako plana aurkeztuko dute.

**AUTOBUSAREN IRTEERA**

Atxiloketak salatzeko biharko hainbat eragilek deitutako manifestaziora joateko autobusa 15:40an irtengo da gaztetxetik.

**ARATUSTEETAKO BAZKARIA**

Aratuste jaietan, otsailaren 15ean, bazkaria egingo dute pilotalekuan. Bazkarira joateko txartelak salgai daude gaztetxean, udaletxean eta liburutegian. Txartelak erosteko azken eguna: otsailak 10. Prezioak: helduek, 14 euro; umeek, 9 euro.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJIKA HARATEGIA
Berezitasunak:
Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

GAILUR
taberna eta gozotegia
Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

**Ramon Ajuria** | Alkatea

# "Datorren neguan biomasa bidez berotu ahal izango dira Ibarrako zenbait etxe, dena ondo bidean"

Ajuriak dio herritarren atxikimendua "beharrezkoa" dela; 270 bat behar dira

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Burujabetza energetikorako bidean aurrerapausoak "poliki" ematen ari da Udala, baina espero dute datorren neguan biomasa errealitate izatea, behintzat, Ibarrako zona baten. Ramon Ajuria alkatearekin egon da Goiena, "proiektu estrategiko" horren gaineko azken urratsen berri jasotzeko.

**Hurrengo negurako Ibarra auzoan biomasa proiektua errealitate bihur daitekeela uste duzu?**

Lehendabizi, sentsibilizazio kanpaina bukatu beharko dugu, proiektua modu egokian aztertzeko eta herritarren zalantzak argitzeko. Gainera, herritarren parte-hartzea ezinbestekoa da, euren atxikimendua behar-beharrezkoa da. Erakundeek, oro har, apustu indartsua egin dute biomasaren alde eta Aramaion dagoeneko eman dugu lehen urratsa elkar kolaboratzeko. Horren adierazle da lehen hitzarmena gauzatu genuela iaz eta aurrerapausoak ematen ari garela poliki-poliki. Dena ondo bidean, lehen fasearen barruan dauden etxeak –Ibarrako zonalde baten– biomasa bidez berotu ahalko dira datorren neguan.

**Hilaren 9an modu ofizialean aurkeztu zuen Jaurlaritzak duela urtebete sinatutako hitzarmena. Zer da hitzarmenak eskaini dizuena?**

Hitzarmenaren bitartez babesa lortzeaz gain, momentuan momentuko aholkularitza teknikoa izango dugu. Horrekin batera, datozen hilabeteotan diru laguntzak gauzatuko direla espero dugu.

**Amaitzear da legealdia. Nola baloratzen duzu 2011 ezkero burujabetza energetikorantz egindako bidea?**

Aramaioko proiektua Euskal Herri mailan eta estatu mailan erreferentetzat hartzen da eta horren adibide da komunikabideetan izan duen oihartzuna, gaian interesatu direnen aldetik herrian jaso ditugun bisitak.…



Ramon Ajuria, Santikurtz Abadearen plazatxoan. | JOKIN BEREZIARTUA

**"Herritarrek ez dute obrarik egin beharko; errebisioak ez dira urtero egin beharko"**

**"Espero dugu diru laguntzak datozen hilabeteotan gauzatuko direla"**

Legealdi hasieran proiektua abiatuta zegoen eta lekukoa hartu genuen, nolabait ulertu genuelako herriak horren alde egin nahi zuela. Guretako, estrategikoa izan da eta burujabetza energetikoa lortzeko eredu bihurtu gara. Herritarren erantzuna oso positiboa izan da; zalantzak eta kezkak egon dira eta seguru egongo direla aurrerantzean ere, edozein aldaketak dakartzan kezkak dira-eta. Baina gertu egongo gara edozein momentutan horiek argitzeko, guztiok elkarrekin aurrera egin dezagun.

**Atxikimendu bila ari zarete oraindik. Zenbat beharko dira proiektua bideragarria izan dadin?**

Gure helburua da gutxieneko atxikimenduak lortzea; 270 behar dira, gutxi gorabehera. Hala ere, zenbat lortzen ditugun arabera, proiektua egokitzeko aukera egongo da, eta, datu berriak aztertuta, bideragarria izango den edo ez baloratuko dugu. Herritarrek ez dute obrarik egin beharko etxean, hodi bat eta interakumulatzaile deritzon aparailua bakarrik jarri beharko dute. Gainera, ez daude derrigortuta urteroko errebisioak egitera, orain arteko galdarekin gertatzen den moduan.

**Zertarako antolatu zenuten eguaztenko jardunaldi teknikoa?**

Jardunaldiaren helburua zen biomasaren proiektua barrutik ezagutzea eta bilera irekia zenez, herritarren zalantzak argitzeko erabili genuen. Horregatik gonbidatu genituen proiektua diseinatu duena eta Jaurlaritzaren erakundeetako adituak.

## Kezka teknikoak argitzeko jardunaldia

Eguaztenean jardunaldi teknikoa egin zuten kultura etxean: Iñaki Gerenabarrena (HAZI), Sergio Lopez eta Iñaki Boveda (EEE) eta instalazioak egingo dituen enpresako Guillermo de la Puente ibili ziren berbetan. Bertako baso-baliabideak, energia-eskaria, proiektuaren bideragarritasuna eta instalazio-teknikak izan zituzten berbagai, besteak beste. Herritarrek aukera izan zuten zalantzak modu teknikoan argitzeko.




Eguazten iluntzean egin zen jardunaldia, kultura etxean. | ARAMAIOKO UDALA

# 'Erabakia ehuntzen' aurkeztuko dugu gaur

KOMUNITATEA GOIENA
GURE ESKU DAGO | ARAMAIO

Gure Esku Dago ekimena ez dago lo. Eta Aramaion ere, martxa betean goaz. Zertan ari garen jakin gura baduzu, gaur izango duzu aukera. Izan ere, Aramaioko Gure Esku Dago batzordetik ekitalditxo bat antolatu dugu asmo birekin. Lehen helburua izango da orain arte egin dugun bideari gainbegiratua ematea eta *Erabakia ehuntzen* izeneko erronka berria aurkeztea.

Horrekin batera, erabakitzeko eskubidearen alde lanean jarraitu behar dugula eta zeregin horretan modu askotara lagun dezakegula gogora ekarriko dugu. Ildo horretatik, lantaldean parte hartu gura duenak erabat zabalik izango ditu gure ateak. Animatu eta parte hartu!

**Jatekoa eta edatekoa**

Egitarau xumea antolatu dugu gaurko. Hasteko, 18:30 aldera, kalejira abiatuko dugu kultura etxetik Sastiñara. Trikikalejira trikiti taldeak girotuko du kalejira. Gero, 19:00etan, *Erabakia ehuntzen* deritzon erronkaren aurkezpena egingo dugu Sastiñan.

Aurkezpena ez da ordu erdira helduko eta ondoren bertsolariek eta Papargorri abesbatzak hartuko dute parte. Horren ostean, Aramailur taldeak kudeatzen duen ekonomatoko jatekoak zein edatekoak dastatzeko aukera izango dute Sastiñara hurbiltzen diren herritarrek. Hau da, jatekoa eta edatekoa gura adina egongo da, eta musikarik ere ez da faltako. Zure zain egongo gara!

## Urtarrilaren 31n irtengo gara Santa Ageda eskean: edonor dago gonbidatuta

KOMUNITATEA GOIENA
BERTSO ESKOLA | ARAMAIO

Joan den eguenean elkartu ginen lehenengoz Trikitixa Eskola, abesbatza eta bertso eskolakook, Santa Ageda eskean irteteko lehen entseguan. Urtarrilaren 31n aterako gara herriko baserri, auzo eta kaleak kantu eta doinuz betetzera, eta, horretarako, urtarrileko eguen guztietan entseguak egingo ditugu kultura etxean (19:00). Gogoratu edonor dagoela gonbidatuta.

**Eskea, egun osoan**

Egun osoan izango da eskea. Goizean Eguzkierripa, Zalgo, Arraga, Matxinkale, Errotabarri eta beste hainbat tokitan abestu ondoren, Iturrieta sagardotegian bazkalduko dugu, pilak kargatu, eztarriak busti eta arratsaldean zehar Ibarrako kaleak Santa Ageda doinuz alaitzeko. Jasotako dirua antolakuntzakook herriarendako beste ekintzaren bat antolatzeko bideratuko da.



Iazko Santa Ageda eskea, Bizente Goikoetxea plazatik gertu. | GOIENA

## Mus txapelketa antolatu du biharko Alaiak elkarteak

Alaiak elkartearen eskutik mus txapelketa egongo da bihar, zapatua, erretiratuen egoitzan (17:30). Bikote bakoitzak hogri euro ordaindu beharko ditu; afaria egongo da parte-hartzaile guztiendako eta sariak urterokoak izango dira. Antolatzaileek eskerrak eman dizkiete laguntzaile guztiei. Bestalde, kantu tailerra gaur abiatuko da (10:00-11:00); hamalau lagun dira, oraingoz.

## Mintzalagunendako bertso eta kantu afaria urtarrilaren 30ean

Gorbeialde osoko mintzalagunak elkartzeko bertso eta kantu afaria antolatu dute hilaren 30erako. Paula Amilburu aramaioarra eta Izar Mendiguren laudiarra ariko dira bertsotan. Gainera, entzuleek kantuan egiteko aukera izango dute, liburuxken laguntzaz. Urtarrilaren 22a baino lehen eman beharko da izena: 662 12 02 09 edo *gorbeialdea@mintzalaguna.org* (15 euro).

ELGETA

# Zazpi talde lehiatuko dira herri mailako areto-futbol txapelketan

## Etzi, domeka, jokatuko dituzte lehenengo jardunaldiko hiru norgehiagokak

**LARRAITZ ZEBERIO** | ELGETA

Martxan da Elgetako III. areto-futbol txapelketa. Zazpi taldek eman dute izena gizonezkoen txapelketa jokatzeko. Taldeak dira Astuan Villa, Jaitxo, La Kokotxa, Intxortas Crew, Txapela, Nahaste Borraste eta Tzibaz United.

Parte-hartzaileek martitzenean egin zuten txapelketa antolatzeko batzarra, eta adostu dute norgehiagokak domeka goizetan jokatuko dituztela. Partiduen egutegia eta epaile lanen banaketa ere erabakita dago.

Zazpi jardunaldik osatuko dute martxoaren 8ra arte iraungo duen ligaxka. Denetan jokatuko dira partiduak, Aratusteetako domekan —otsailak 15— izan ezik. Finalerdiak eta finala Aste Santu aurretik jokatzea da asmoa.

Etzi, domeka, jokatuko da txapelketako lehen jardunaldia. Norgehiagokak dira: Intxortas Crew-Astuan Villa (11:00), Nahasta Borraste-Tzibaz United (12:00), eta La Kokotxa-Txapela (17:00).



Astuan Villa taldeak irabazi zuen, iaz, gizonezkoen futbito txapelketa. | L.Z.

### Nesken txapelketarik ez

Azken orduko aldaketarik ezean, aurten ez da emakumezkoen areto-futbol txapelketarik jokatuko. Talde bakarra aurkeztu da: Bandoleira. Beste talde bat osatzeko saiakera egon da, baina, azkenean, ez du emaitzarik eman.



Uxue Gallastegi eta Amaiur Guridi, marrazki lehiaketako sariekin. | L.Z.

## Uxue Gallastegik eta Amaiur Guridik jaso dituzte marrazki lehiaketako sariak

**L.Z.** | ELGETA

Liburu eta bideo sorta eta marrazteko materiala jaso dituzte saritan Uxue Gallastegik eta Amaiur Guridik marrazki lehiaketan parte hartu eta irabazteagatik. Liburutegitik eskerrak eman dizkiete parte-hartzaile guztiei, baita epaimahai lanak egin dituzten Arrasateko Bibliotekako kide Ane Miren Berasategiri eta Amaia Minerri ere. Onartu dutenez, ez dute lan erraza izan: "Oso ideia eta marrazki originalak aurkeztu dituzte Elgetako gaztetxoek". Margolan guztiak ikusgai ipiniko dituzte, laster, liburutegian.

### Ipuin kontalari saioak

Boluntarioekin egindako ipuin kontalari saioei dagokienez, urtarrilaren 23rako iragarri dute hurrengoa. Asteon batzartu dira boluntarioak, ekintzaren jarraipenaz berba egiteko.

## Danbor-joleak eta kofradeak nagusi martitzenean

**L.Z.** | ELGETA

San Sebastian egunerako, urtarrilak 20, urteroko ekitaldiak iragarri dituzte Nobleen Kofradiatik eta Herri Eskolatik.

Eskolan hasita daude Sarriegiren kantuak entseatzen. Kofradeak, berriz, 12:00etarako egin dute hitzordua eliza atarian. Haur Hezkuntzako neska-mutikoen danborradaren piezak entzungo dituzte lehenengo, eta ondoren urteroko meza. Amaitutakoan, urteroko ekitaldia egingo dute sakristian, eta bazkaria Iñaki jatetxean. Aurten, 24 kofrade daude deituta ekitaldietan parte hartzera.

Arratsaldean ere danbor hotsa izango da Elgetan. Eskolako neska-mutikoek saio berezia egingo dute gurasoendako, arratsaldeko saio amaieran. Seguruenik, eskola atarian izango da.



ELEDER LOZANO

## Herriko pilotari txikiak gustura txapelketa amaieran

Elgetako neska-mutikoek domeka eguerdian jokatu zituzten Gabonetako pilota txapelketako finalak eta bigarren eta hirugarren postuak erabakitzeko norgehiagokak. Haurrekin batera, guraso ugari elkartu ziren frontoian partiduak ikusteko. 7 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoak aritu dira, aurten, pilota txapelketan, eta, bai eskuz, bai palaz, serio hartu dute lehia guztiek. Udalak antolatzen du urtero pilota txapelketa, eta aurten ere parte-hartzaile guztiak saritu ditu finalak jokatu ostean. Kopak, dominak eta gozokiak banatu zituzten. Txapelketaren amaierako argazkian, pilotan egin duten umeak, Oxel Erostarbe alkatea eta Kiroletako zinegotzi Jose Mari Zubiaurre agertzen dira.

## OHARRAK

**MONIKA GUECH**
*La voz* saioko abeslariak kontzertua egingo du gaur, barikua, Espaloian. Ikus 32. orria.

**AZOKA DOMEKAN**
Bigarren eskuko eta truke azoka egingo dute etzi Espaloian, 11:00etatik 14:00etara.

**KANTSATZEKE TALDEA**
Eguaztenean, bazkide edo federatu txartela egiteko aukera kultura etxean, 19:00etatik 20:00etara.

**HONDAKIN SISTEMA**
Zalantzak argitzeko informatzailea udaletxean izango da martitzenetan eta eguenetan (09:00-13:00) eta eguaztenetan (15:30-19:00).

**KZGUNEA**
Dinamizatzailea Elgetan izango da hilaren 21ean, 16:00etatik 17:30era.

**PODOLOGOA**
Eguenean, hilak 22, izango da kontsulta. 943-76 80 77 (Nati).

LEINTZ GATZAGA

# Itxi dute Labidearako eskaintzetarako epea

## Azken urtean saltokia kudeatu dutenek aurkeztu dute eskaintza, eta jarraitzeko gogotsu daude

**UBANE MADERA** | LEINTZ GATZAGA

Atzo, eguena, itxi zen Labidea saltokia datozen lau urteotan kudeatzeko eskaintzak aurkezteko epea. Eta, besteak beste, hilabeteotan saltokia kudeatzen ibili diren Inaxio Gabilondok eta Isidor Salaberrik aurkeztu dute euren proiektua. "Iaz lantzen hasi ginen proiektua ez zen ez sei hilabeterako eta ezta urtebeterako ere. Beraz, guk geurearekin aurrera egingo dugu. Gustuko lekuan, aldaparik ez. Horixe da guk pentsatzen duguna. Izan ere, gu aldapa bete-betean egon arren… Uste dugu, adibidez, elikagaien alorrean landu dugun eskaintzarekin –bertako jakiak eskaintzeko ahalegina…– eta Labidean bideratutako espazio berriekin iraultzatxoa egin dugula. Horrez gainera, gaur da eguna Gatzagan egiten diren ekimen gehienak Labideatik pasatzen direla; dela arbelean jartzen direlako, edo batzarrak hemen bertan egiten direlako… Uste dugu gure arima baduela dendak", adierazi du Inaxio Gabilondok.

### Puntu-lanak

Ildo horretan, gogora ekarri du, adibidez, iaz abiarazitako puntu-lanak egiteko ikastaroarekin aurrera segituko dutela. Eguaztenetan hamar lagun pasako taldea elkartzen da Labidean bertan, 17:00etatik 19:00etara, "baina ekimena irekita dago interesa duen edozeinendako, bertara etorri besterik ez du", dio Gabilondok.

LEINTZ GATZAGA

## Korrika batzordea sortzeko lehen batzarra egingo dute

Gaur, egubakoitza, 18:30ean dute hitzordua Korrikaren 19. edizioari begira herri batzordea osatzeko. Labidean egingo dute batzarra. Eta interesa duten herritarrekin batera, besteak beste, Korrikako Debagoieneko koordinatzailea izango da han. Korrika, hori bai, ez da Leintz Gatzagatik pasatuko aurten.



Gorka Valle, Aurreraren kontrako partidu batean jokalariei aginduak ematen (artxiboko erretratua). | GOIENA

**Gorka Valle** | Aretxabaleta futbol taldeko entrenatzailea

# "Bai, urte honetan oso emaitza onak izan ditugu, baina oraindik ez dugu ezer irabazi"

- Albistegi ordezkatzea egokitu zitzaion iaz, eta aspaldiko emaitza onenak lortu ditu
- Aretxabaleta zuzendu du 41 partidutan: 32 garaipen, sei berdinketa eta hiru porrot

XABIER URZELAI | ARRASATE

Ohorezko Erregionala jarraitzen duena Aretxabaletako sekretuaz galdezka ibiliko da. Izan ere, Gorka Vallek –eta ondoan duen lantaldea– emaitza ikusgarriak izan ditu azken urtean. Iazko denboraldian jaitsiera postuetan hartu zuten taldea, eta hirugarren amaitu zuten liga, ia igoera postuetan. Aurten, ostera, lider daude, eta bigarren sailkatu Aurrerari 4-0 irabazi berri diote.

**Domekan hiru puntu baino ez zeuden jokoan, baina halako garaipenak bultzada galanta dira.**

Bai, duda barik, bigarren sailkatuari ondo irabazi geniolako eta lau puntura daudelako orain. Baina partidu bat gehiago baino ez zen.

**Hain zuzen ere, lau puntura dago Aurrera, eta hirugarren sailkatua, Anaitasuna, dagoeneko hamaika puntura dago. Zer esan gura du horrek, liga honek zuen eta Aurreraren arteko borrokara mugatu behar duela?**

Ez, ezta gutxiago ere. Oraindik bigarren itzuli osoa geratzen da, eta edozer gerta daiteke. Hau luzea da.

**Baina onartuko duzu Aretxabaleta sendotasun handia erakusten dabilela.**

Bai, eta horrek poztu egiten gaitu. Oso indartsu hasi genuen liga, intentsitate handiz jokatzen genuen eta horrek emaitza onak eman zizkigun. Baina fisikoki behera egin dugunean ere aldeko emaitzak batu ditugu, nahiz eta partiduak ez ditugun nahi moduan menperatu. Orain, estutzea tokatzen zaigu ostera, eta arlo fisikoa errekuperatzea.

**Egin dezagun atzera. Talde berdintsuaz Aretxabaletak aurrean egoteko asmoz hasi zuen iazko denboraldia, eta jaitsiera postuetan Albistegiren lekua hartu behar izan zenuen; orduan, bigarren entrenatzaile zinen. Nondik etorri zen halako aldaketa?**

Bada, ez genuen aparteko aldaketarik egin, Albistegirekin ere nik antolatzen nituen-eta entrenamendu saioak. Gure lan egiteko moduan sinesten genuen, eta

> "Bigarren itzulia geratzen da oraindik, puntu asko daude jokoan"

> "Futbolean oso garrantzitsua da taldea psikologikoki zelan dagoen"

berdin jarraitu genuen. Baina garbi geneukan partidu on bat behar genuela, joko aldetik kontrarioa menderatzea. Hori zen jokalariak konbentzitzeko modurik onena, eta eurei konfiantza handiagoa ematen ahalegindu ginen. Egia da ordura arte aitzakiak baino ez genituela bilatzen, epaileen erabakiak... Baina kanpo faktore horietan itsutu beharrean, gure esku zegoen horretan zentratu ginen, hori hobetzen ahalegindu ginen, gaur arte.

**Zuen hasiera ere ez zen ona izan, lehenengo lau partiduetan berdinketa bat eta hiru porrot.**

Ez, aurreko dinamikan jarraitzen genuen, baina, kontrara, ikusten genuen partiduak ez zirela txarrak, gol aukera mordoa egiten genituen, baina kontrarioak bakarrean gola sartzen zigun. Egoera horri buelta eman genion arte.

**Ze partidutan berreskuratu zenituzten sentsazio onak?**

Irunen hasi ginen egoerari bueltа ematen (0-1), eta Gabonetatik bueltan Ostadarren kontra 2-2 berdindu genuen, baina oso partidu ona eginda. Eta orduan hasi genuen bolada ona.

**Lehen ere esan dugu, orain arte egindakoa zenbatuz gero, 32 garaipen, sei berdinketa eta hiru porrot. Bolada ona baino gehiago da hori.**

Bai, emaitza onak dira, oso bolada ona da, baina oraindik ez dugu ezer irabazi. Emaitza horiei esker, iaz hirugarren izan ginen, eta aurten, oraingoz, lider gaude. Baina horraino, oraingoz ez dago gehiago, lanean jarraitu behar dugu.

**Udan bazenuen bolada ona eten eta irailean ostera txarto hasteko beldurrik?**

Ez, benetan. Oso garbi neukan denboraldiaurre polita eginez gero taldeak ondo hasiko zuela liga, ez zela halako etenik egongo. Denboraldia zela amaitu genuen ikusita, taldearengan konfiantza handia neukan.

**Aretxabaleta ei da aurtengo sorpresetako bat. Komatxo artean jarriko dugu hori, iazkoa ikusita garbi dagoelako aurrean egoteko gaitasuna daukazuela. Gainera,**

> "Albistegirekin nik prestatzen nituen lan-saioak, hor ez dugu askorik aldatu"

> "Gure eskuetan dagoena zuzendu dugu, eta jokalariei konfiantza eman"

**postu bakoitzean jokalari onak ditu Aretxabaletak.**

Garbi dugu hori, bestela ezinezkoa da halako bolada on bat izatea. Jokalari on barik posible da itzuli on bat egitea, edo liga txukun bat jokatzea. Baina gu egiten gabiltzana egiteko jokalari onak behar dira, derrigor. Hala ere, hori ez da nahikoa, eta lanean jarraitu behar dugu, edozein momentutan beherakada izan dezakegulako eta kategoria honetan edonork irabaz gaitzakeelako. Esaterako, urteko lehen partiduan Azkoagainen berdindu egin genuen, baina lasai asko gal genezakeen partidu hura, Aloña Mendik oso txukun jardun zuelako.

**Taldean egiten duzue Hirugarren Mailaz berba? Ala tabu moduko bat dago gai horrekin?**

[Irribarrez] Ez, ez dugu horren gainean askorik berba egiten; horrenbestez, posible da tabu samarra izatea. Baina ez dago aparteko motiborik, edo halakorik lortu nahi ez dugulako. Kontrara, oso urrun dagoen helburu bat delako ez dugu horretaz berba egiten, eta gertuko helburuetan jartzen dugulako indarra; alegia, datorren asteko partiduan. Hala, epe motzeko helburu horiek betetzen baditugu, denboraldi amaieran egongo da Hirugarren Mailaz berba egiteko astia.

# "Jokalari baliotsuenaren saria niri eman didate, baina talde osoaren saria da"

## MU taldeko saskibaloi jokalari Mikel Arexolaleiba EBAko A-A multzoko MVP izendatu dute asteburuan

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Mondragon Unibertsitatea taldeko antolatzaile Mikel Arexolaleibak EBA mailako A-A multzoko jokalari baliotsuenaren (MVP) saria jaso zuen aste bukaeran, 38 punturekin. "Pozik nago. Denboraldi hasieran ez nuen uste halakorik lortuko nuenik. Ondo egindako lanaren seinale da", esan du jokalariak.

Jokalariak baloratzeko orduan, partiduan egindako gauza positiboak hartzen dituzte kontuan: saskiratzeak, asistentziak, erreboteak, txapelak, jasotako faltak... "Balorazio altua izateko gauzak ondo egin behar dira, baina, halakoetan, zenbakiak, datuak bakarrik hartzen dira kontuan. Ez dituzte jokoaren alderdi guztiak kontuan hartzen", esan du Arexolaleibak.



Mikel Arexolaleiba | GOIENA

**"Liga luzea da"**

Hauek izan ziren Arexolaleibaren zenbakiak EBAko A-A multzoko talde indartsuenetako baten kontra (La Gallofa): 28 puntu sartu, lau errebote hartu, bederatzi asistentzia eman eta sei falta jaso zituen. "Partidu ona atera zitzaidan, baina talde osoaren lana dela uste dut. Garaipenak ez ditu jokalari bakar batek lortzen. Oraingoan, niri egokitu zait, baina taldekide asko daude sasoi bikainean. Hori da gure indarra, talde moduan jokatzen dugula", esan du.

Azken hiru partiduak jarraian irabazi ostean, seigarren daude arrasatearrak. Hala ere, MUko jokalariarendako "liga luzea da oraindik. Gure helburuak berberak dira: partiduz partidu hobetzen joan, edozein aurkarirekin lehiatzeko gai izan eta EBAn mantendu". Eta helburu horiek lortzeko bidean dago taldea: "entrenamendutan lan gogorra egiten dugu eta emaitzak partiduetan ikusten dira", dio.

**Iturripera joateko gonbidapena**

Maiatzean igoera lortu zutenean amets bat bete zuen Arexolaleibak, eta, oraingoz, maila horrekiko zituen helburuak bete egin direla esan du: "Urte askoko lanaren saria da EBAn jokatzea. Maila handiagoko jokalariak, bidaia luzeak eta gogorrak... baina guztia kirolaren parte da eta ez nuke ezerengatik aldatuko".

Bestalde, asko "eskertzen" du hamabostean behin Iturripera doazen zaleen laguntza. "Inoiz egon ez direnak animatu gurako nituzke. %100a ematen dugu partidu guztietan eta animoek asko laguntzen dute", dio.

### MUk Santanderren jokatuko du bihar

Josu Larreategiren taldeak bihar, zapatua, jokatuko du Santanderren, Igualatario Cantabria Estela taldearen kontra, 18:30ean. Laugarren garaipena jarraian lortzeko asmoz joango dira Kantabria aldera. Bestalde, Natra Oñatik Zubikoan jokatuko du bihar, zapatua, 18:00etan, Mungiaren kontra; eta Soraluze BKEk Viento Sur taldea hartuko du Labegaraietan (zapatua, 19:30). Eskoriatzak, aldiz, etxean jokatuko du, Orioren kontra: gaur, egubakoitza, 20:15ean.



Zabaletak eta Cestafek, biak bergararrak, jantzi zuten iaz txapela. | GOIENA

# Arlabango auto igoerak "atseden" hartuko du

X.U. | ARRASATE

Euskadiko Automobilismo Federazioak aurkeztu du 2015eko lasterketen egutegia, eta orokorrean orain arteko guztiek eutsiko badiote ere, Debagoienean izango da nobedaderik, aurten Arlabango Igoerak "atseden" hartuko du-eta, federazioko ordezkarien arabera. Halaxe erabaki dute antolatzaileek, seguruenik, 2016an indarberrituta bueltatzeko asmoz.

Kontrara, lasterketa berriak ere egongo dira, edo lehenagotik desagertuta zeudenak errekuperatuko dituzte; esaterako, Azkoitiako rallysprinta.

Bailarako gainontzeko probek sasoiko jarraitzen dute. Rallysprinten barruan, guztira hamar lasterketa izango dira, eta Aramaiokoa izango da egutegiko azkenaurrekoa, irailaren 19an. Hala, Gabiriak, Goierrik, Hondarribiak, Azpeitiak, Zornotzak, San Migelek, Azkoitiak, Aramaiok eta Gamiz-Fikak osatuko dute egutegia.

**Bi igoera gurean**

Igoeretan, ostera, zazpi probatatik bi Debagoienean lehiatuko dituzte; hain zuzen ere, Gorlako Igoera (maiatzak 9) eta Udanakoa (ekainak 13).

# Sei triatloi taldek parte hartuko dute Oñatin egingo den errelebokako igeriketa erronkan

## Oñati, Urola, Antxintxika, Triku, Tolosa eta Azkoitiko ordezkariak egongo dira

M.B. | OÑATI

Oñatiko Triatloi Taldeak Urolako Triatloi Taldeari lekukotza hartu, eta lehen aldiz taldekako 100x100 proba egingo du zapatuan, 15:30ean, Oñatiko kiroldegiko igerilekuan. Erreleboka egiteko erronka izango da: igerilari bakoitzak 100 metro jarraian igeri beharko ditu, eta taldekideen artean 100 errepikapen egin beharko dituzte. Igerilari bakoitzak zenbat metro egiten dituen taldeen artean zehaztu beharko dute.

Igerilarien aldaketak igerileku barrutik edo kanpotik egin daitezke.

**Kale bakoitzean bina talde**

Erronka nagusia lekua izango da. Zubikoako igerilekuak dituen bost kaleetatik hiru erabiliko dituzte probarako eta bakoitzean bina talde lehiatuko da. Hau da, talde bakoitzak kale erdia izango du erreleboak egiteko.

Oñatiko Triatloi Taldeko, Urolako triatloi taldeko, Antxintxikako, Trikuko, Tolosaldeko triatloi taldeko eta Azkoitiko triatloi taldeko kideek parte hartuko dute erronkan: hamar bat kide talde bakoitzeko. 100 erreleboak azkarren egiten dituen taldeak irabaziko du proba.



Igerilaria. | GOIENA




Iazko txapelketako finala. | GOIENA

# Hogeita hamar bikote erakartzeko helburua dute

X.U. | ARETXABALETA

Badator Emakumezkoen II. Frontenis Txapelketa; urtarrilaren 24tik martxoaren 8ra arte jokatuko dute Aretxabaletako Iturrigorri pilotalekuan, eta zapatu goizetan izango dira partiduak: "Urtetan Loramendi Elkarteak antolatu du txapelketa, eta, pare bat urtez txapelketa barik egon ostean, iaz UDAtik hartu genuen ostera ere antolatzeko ardura. Baina helburua hasierakoa da, emakumezkoak, kirola eta euskara batzea", azaldu du Agurtzane Elkorok. Hala, iaz arrakasta polita izan zuen txapelketak; guztira, hogei bikotek eman zuten izena: "Aurten ere bailarako neska guztiei egin gura diegu deialdia. Akaso, baikor samarrak izango gara, baina ea 30 bikote erakartzen ditugun. Horrek esan gurako du 60 emakumezko izango ditugula zapatu goizetan frontenisean".

**Bikote bakoitzeko hamar euro**

Izena emateko azken eguna urtarrilaren 21a da, eta horretarako nahikoa da helbide honetara idaztea: *emakumeenfrontenisaUDA@gmail.com*. Ordainketa, berriz, lehenengo partiduan egin beharko da.

# Antzuolak bigarren garaipenaren boladari eutsi eta puntuak batzen jarraitu nahi du

Ordiziaren aurka jokatuko dute etxean, Eztalan, zapatuan, 16:00etan

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Antzuolak hil edo biziko puntuak lortu zituen aste bukaeran Irungo Real Union aurka. Jon Muruamendiaratzek zuzentzen duen taldeak ligako bigarren garaipena eskuratu zuen. "Modu honetan, mailari eusteko muga bederatzi puntura izatetik sei puntura izatera pasa zaigu", azaldu du Muruamendiaratzek.


Antzuolako jokalariak gola ospatzen (Martuteneren aurkako lehia). | GOIENA

Antzuolak badaki etxean gogor egin behar duela, eta etxeko puntuak izango direla garrantzitsuak. Hala, urte hasiera honetan, lau partidutatik hiru etxean izango direnez, horietan puntuak lortzea ezinbestekoa izango da mailari eusteko. "Modu horretan, liga amaierara arte borrokatzeko moduan egongo gara", gaineratu du entrenatzaileak.

**Ordiziaren aurka zapatuan**

Zapatuan 16:00etan jokatuko dute, Eztalan, Ordiziaren aurka. "Ondo hasi zuen liga Ordiziak, puntu asko batu zituen hasierako partiduetan", azaldu du Muruamendiaratzek.

Hala, puntuek ematen duten lasaitasuna izango dute ordiziarrek, eta etxekoek, ostera, puntuak lortzeko beharra. "Ordiziak atzetik baloia aterata jokatzen du, baina hori Eztalan ezin da egin, oso zelai estua delako", dio. "Guk, aldiz, aurrean azkar jokatzen dugu", gaineratu du. Zapatuko lehiari begira, hainbat baja izango ditu Antzuolak.

Antzuola ligako azkeneko postuan dago, hamar punturekin; eta Ordizia bederatzigarren postuan, 24 punturekin. Hurrengo lehia Hernaniren aurka jokatuko dute etxetik kanpo; eta, otsailaren lehenengo aste bukaeran, aurkari zuzena duten Hondarribia izango dute Eztalan, nor baino nor gehiago.

**Gainerakoak, etxetik kanpo**

Gainerako taldeek etxetik kanpo jokatuko dute aste bukaeran. Aretxabaletak lidergoari eutsi nahiko dio Oreretan Touring-en aurka (zapatuan, 16:15ean). Aloñak domekan jokatuko du, 16:00etan, Donostian, Martuteneren aurka. Bergarak Zarautzera egingo du bisita. Zapatuan jokatuko dute, 15:45ean, Zarautzen. Bestalde, Erregional Preferente mailan, Mondrak Tolosaren aurka jokatuko du zapatuan, 17:30ean, Tolosan. Goikoekiko aldea murriztea izango da arrasatearren nahia.

# Kanpanzar ART taldeak Getxoren aurka jokatuko du zapatuan

A.E. | ARRASATE

Ibarreko errugbizaleek lehia polita ikusteko aukera izango dute zapatuan. Arrasatearrak Getxo Artea taldearen aurka lehiatuko dira, 16:00etan, Mojategin. Etxeko taldea ligako liderra da 48 punturekin, eta Getxo Artea, aldiz, hirugarren postuan dago 39 punturekin.

Etxeko taldeak lidergoa berretsiz hasi du urtea. Izan ere, Igor Isasiren mutilek Iruñean jokatu zuten urteko lehenengo lehia: 17-35 nagusitu ziren La Unica B taldearen aurka. Bigarren lehia honetan ere, lidergoa gogor eutsi nahiko dute Isasiren mutilek eta hamabigarren garaipenaren bila irtengo dira. Horretarako, etxeko jarraitzaileen babesa ezinbestekoa izango dute moretxoek.

**Euskal Selekzioarekin**

Arrasate Errugbi Taldeko nagusiak bakarrik ez; gazteak ere gogor datoz atzetik. ARTko jokalari Danel Argoitiak Euskal Selekzioaren deia jaso berri du; hala, joan den aste bukaeran, 16 urtez azpiko Euskal Selekzioarekin lehiatu zen autonomien arteko txapelketan, Katalunian. Euskal Selekzioak hainbat entrenamendu egin zituen Gabonetako oporretan Mojategin; hala, horietan egindako lan ona kontuan hartuta, Argoitia hautatutako jokalarien zerrendan sartu zuten hautatzaileek.

Katalunian ez zuten emaitza onik lortu. Hala ere, datozen hilabeteetan norgehiagoka gehiago jokatuko ditu Euskal Selekzioak.

## Hirugarren postuan indartsu jarraitu nahi du Ford Mugarrik; Usurbilen aurka jokatuko du zapatuan

Arrasatearrek Usurbilen jokatuko dute zapatuan, 19:30ean, Oiardo kiroldegian. Pablo Gartziaren taldea ligako hirugarren postuan dago, eta, hain zuzen, postu horri eutsi nahiko diote. 23 puntu dituzte arrasatearrek. Usurbil ligako azkeneko postuetan dago, hain zuzen, 13. postuan, zortzi punturekin. Ligako hamaseigarren jardunaldia izango da aste bukaeran jokatuko dutena. Ford Mugarrik bost puntura du ligako liderra den Somos Eibar eskubaloi taldea.

# Aitor Mendizabal eskuz binakako promozio txapelketan izango da

A.E. | ANTZUOLA

Astelehenean hasiko den eskuz binakako promozio txapelketan izango da Aitor Mendizabal Antzuolako pilotaria. Hilaren 19an Tolosan jokatuko du Mendizabalek, Julen Urruzolarekin batera, Jakaren eta Tolosaren aurka. Ondo baino hobeto ezagutzen dute laurek elkar, eta partidu gogorra izango dela iragarri du. "Batera entrenatzen garenez, ondo ezagutzen dugu elkar. Kontrario gogorrak dira Jaka eta Tolosa, eta txapelketa irabazteko faboritoak. Guk hasieratik hasiko dugu topera txapelketa", azaldu du Mendizabalek.

Azkeneko partiduetan erakutsi duen moduan, Mendizabal sasoi betean iritsiko da lehiara.

**Bergaran etxekoen aurrean**

Joan den egubakoitzean, etxekoen aurrean jokatu zuen Mendizabalek. Zezilio bikotekide zuela, Gorkari eta Tolosari 22-11 irabazi zieten Bergarako Udal Pilotalekuan. Partidu borobila jokatu zuen Mendizabalek, eta gustura geratu zen egindako lanarekin: "Etxean jokatuz gero, gertuko asko etortzen dira, eta hori polita da, baina, era berean, presio handixeagoa ere egoten da", dio.

Egun berean Beñat Rezustak ere jokatu zuen Bergarako pilotalekuan. Rezustari, ordea, etxeko presioa igarri egin zitzaion, eta normalean baino "lotuago" jokatu zuen. Lasak eta Rezustak 22-8 galdu zuten Bengoetxearen eta Aretxabaletaren aurka.



Mendizabal sakea egiteko gertu, atzean Rezusta duela. | JOSETXO ARANTZABAL

# Aizkorriko maratoiko izen-ematea zabaltzear da

A.E. | ARRASATE

Astelehenean, hilaren 19an, zabalduko dute Zegama-Aizkorriko maratoian eta kilometro bertikalean izena emateko epea. *Kirolprobak.com* atarian egin ahal izango da hori. Maiatzaren 15ean eta 17an izango dira probak. Munduko probarik garrantzitsuenetako bat da Aizkorrikoa, eta, Munduko Koparako puntuagarria izateaz gainera, aurten Europako Txapelketa ere izango da.

Astelehenean aurkeztu zuten proba Donostian. Aurtengoak hainbat berritasun izango ditu: batetik, bederatzigarren kilometroan dagoen pista zatia saihesteko, ibilbidea aldatu egingo dute zati horretan; bestetik, Munduko Koparako puntuagarria ez ezik, Europako Txapelketa ere izango da aurtengoa; eta, azkenik, aurten, lehenengoz, kilometro bertikala jokatuko da, egubakoitz arratsaldean. Aste bukaera osora zabalduko dute proba, eta, modu horretan, aste bukaerako festa bilakatuko da.

## ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

**FUTBOLA**

**OHOREZKO ERREGIONALA**
Touring-Aretxabaleta
Zapatua. 16:15. Fanderia.
Martutene-Aloña Mendi
Domeka. 16:00. Martutene.
Zarautz-Bergara
Zapatua. 15:45. Asti.
Antzuola-Ordizia
Zapatua. 16:00. Eztala.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**
Tolosa-Mondra
Zapatua. 17:30. Usabal.
Getariako-Aretxabaleta
Domeka. 18:00. Mendibeltz.

**LEHEN ERREGIONALA**
Beti Ona-Bergara
Zapatua. 15:30. Beraun
Mutriku-Arizmendi
Domeka. 16:30. San Migel

**OHOREZKO GAZTEAK**
Mondra-Aurrera
Zapatua. 16:00. Mojategi.
Aretxabaleta-Aloña Mendi
Zapatua. 16:30. Ibarra.
Billabona-Bergara
Zapatua. 15:30. Arratzain.

**EMAKUMEZKOEN ERREG.**
Eibar-Mondra
Domeka. 15:30. Unbe.
Intxaurdi-Arizmendi
Domeka. 14:00. Cesar Benito.

**BIGARREN MAILA**
Mondrate
Atsedena.

**GAZTE MAILA**
Mondrate
Atsedena.

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKAL LIGA**
Eskoriatza
Atsedena.

**GIPUZKOAKO LIGA**
Aretxabaleta
Atsedena.

**ESKUBALOIA**

**LEHEN NAZIONAL MAILA**
Usurbil-Ford Mugarri Arrasate
Zapatua. 19:30. Oiardo.

**EUSKADIKO TXAPELKETA, GIZONEKZOAK**
Basauri-Bergara
Zapatua. 18:15. Artunduaga.

**EUSKADIKO TXAPELKETA, EMAKUMEZKOAK**
Aloña Mendi-Aiala
Zapatua. 14:00. Zubikoa.

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA**
Izarraitz Aloña Mendi
Atsedena.

**GIPUZKOAKO BIGARREN MAILA**
Bergara
Atsedena.

**SASKIBALOIA**

**EBA MAILA**
Cantabria-MU
Zapatua. 18:30. Santander.

**SENIOR GIZONEZKOAK**
Natra Oñati-Mungia
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

**EMAKUMEZKO SENIORRAK**
Eskoriatza-Orio
Gaur. 20:15. Manuel Muñoz.

**SENIOR GIZONEZKO 2. MAILA**
MU-Alde Zaharra
Gaur. 20:00. Musakola.
Soraluze Bergara-Viento Sur
Zapatua. 19:30. Labegaraieta.

**GAZTEAK, ERRENDIMENDUA**
Easo-MU A
Zapatua. 16:00. Paco Yoldi.

**ERRUGBIA**

**NAGUSIAK**
Arrasate-Getxo Artea
Zapatua. 16:00. Mojategi

**ESKU PILOTA**

**FEDERATUAK**

**Eskoriatzan, gaur:**
Nagusiak: Eskoriatza-Gaztelu (20:00).

**Bergaran, gaur:**
Nagusiak: Bergara-Usurbil (19:30).

**Aretxabaletan, gaur:**
2. urteko alebinak: Aloña Mendi-Behar zana 2 (19:00).
Infantilak: Aloña Mendi-Tolosa (19:00)

# Amaia antzokia

## Urtarrila-Martxoa 2015

*Antzerkia*
*Haur antzerkia*
*Musika*
*Dantza*
*Opera*







### *Urtarrila*

| | | |
|---|---|---|
| 18 | *Arrastoak (Dejabu panpin laborategia)* | *Antzerkia* |
| 24 | *Kixote (Markeliñe)* | *Haur antzerkia* |







### *Otsaila*

| | | |
|---|---|---|
| 04 | *Debagoieneko piano kontzertua* | *Musika* |
| 13 | *Arrasate Musikaleko ikasleen inauterietako kontzertua* | *Musika* |
| 15 | *De cuerpo presente (Glu Glu)* | *Antzerkia* |
| 17 | *Magiklown* | *Pailazoak* |
| 22 | *Euskadi Brass Ensemble eta Kirmen Uribe* | *Musika* |
| 28 | *On egin (Borobil)* | *Haur antzerkia* |







### *Martxoa*

| | | |
|---|---|---|
| 07 | *Itzalak – Txoriak (Dantzaz)* | *Dantza* |
| 15 | *Erdibana (Txalo)* | *Antzerkia* |
| 21 | *Opera abeslaria (Deabru Beltzak)* | *Haur antzerkia* |
| 28 | *Tosca* | *Opera* |







ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Laguntzailea:
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

**Aldez aurretiko sarrera salmenta:**
***www.arrasate.eus***
(Amaia Antzokiko sarrerak)

# KULTURA



Jose Angel Petralanda, Eskoriatzako Kultura zinegotzia, Zaldibar antzokiko atea irekitzen. | IRATI GOITIA


Mikel Laboaren hitzak horman. | I.G.


Antzokia barrutik. | I.G.

## Ateak irekitzeko prest

- Urtarrilaren 23an inauguratuko dute Eskoriatzako Zaldibar antzokia
- Askotariko erabilera izango du eta Kultur Mahaiak prest du egitaraua

**IRATI GOITIA** | ESKORIATZA

"Ia dena dago prest. Gelditzen dira hainbat gauza bukatzeko, baina azken ukituak dira", adierazi du Jose Angel Petralandak, Eskoriatzako Kultura zinegotziak, Zaldibar antzokiaren gainean. Izan ere, datorren egubakoitzean, urtarrilaren 23an, inauguratuko dute, eta azken lanetan dabiltza egun hauetan.

**Aspaldiko nahia**

Horrelako antzoki bat izatea herritarren aspaldiko nahia dela dio Petralandak: "Urtetan eginiko eskaera da, herritarrek faltan izan dute horrelako areto bat".

Bada, Udalak ere aspaldi ekin zion proiektua lantzeari. Kultura zinegotziak zehaztu du badirela sei bat urte gaia esku artean dutela, eta lanak 2012an hasi zituzten. Inaugurazioa irailerako aurreikusi zuten, eta gero Gabon aurrerako. "Hainbat oztopo izan ditugu prozesuan zehar, baina jada prest dago ateak irekitzeko eta pozik gaude". Orain arte kultura emanaldiak herriko hainbat tokitan egin izan dira. Adibidez, Mondragon Unibertsitatearen Huhezi fakultatean edo pilotalekuan. "Orain eraikin bat izango dugu apropos kultur ekintzetarako, ekipamendu egokiarekin", gaineratu du.

**Askotariko erabilera**

Antzokiak ditu: bi solairu, agertokia, pantaila... Goiko solairuan 51 lagunentzako aulki daude eta behean 88 –hauek, baina, eszenatoki azpian gordetzen dira, 320 lagunentzako toki zabala sortuz–. Hala, Zaldibar erabilera askotariko antzokia izango da: antzerkiak, kontzertuak, hitzaldiak eta ikus-entzunezkoen emanaldiak. Petralandak zehaztu du oraindik ez dutela erabaki zinema komertzialeko filmak emitituko dituzten.

Historian zehar ere askotariko erabilera izan duen eraikina da. Garai batean komentua eta ikastetxea izan zen, geroago zine areto eta ostean gaztetxe. Hala, historia askoko eraikina da eta hori batu nahi izan dute inaugurazio egunerako prestatu duten dokumentalean. Inaugurazio ekitaldi ofiziala 13:00etan egingo dute, Udaleko eta Aldundiko ordezkariekin. Arratsaldean, berriz, bisita gidatuak egingo dituzte herritarrentzat: 18:00etan, 19:00etan eta 20:00etan. "Herritarrak animatu nahi ditugu. Etor daitezela nola geratu den ikustera". Bisitarako sarrerak liburutegian hartu behar dira aldez aurretik –doakoak dira.

**IÑAKI KORTAZAR ETA MIRIAM ISASMENDI** | KULTUR MAHAIKO KIDEAK

### "Antzokiaren kudeaketa da parte-hartzailea eta herritarra; Kultur Mahaia zabalik dago edonori"


I.G.

Antzokiaren kudeaketarako Kultur Mahaia osatu dute, egitaraua modu parte-hartzailean prestatzeko nahiaz.

**Noiz sortu zen Kultur Mahaia?**

M.I.: Antzokiko lanak bukatzen zihoazen heinean, orain urtebete inguru, hasi ginen batzen. Hasieran, gutxiago biltzen ginen; orain, gehiago.

**Zenbat taldek edo kidek hartzen duzue parte?**

M.I.: Etortzen dira, besteak beste: Amuskatik, erretiratuen elkartetik, Eingeinketik, Atxorrotx Kultura Elkartetik, gaztelekutik eta ikastetxeetako guraso elkarteetatik. Norbanakoak ere badaude. Hamar–hamabost bat pertsona ibiliko gara lanean, arlo eta eragile askotarikoak.

**Zein helbururekin eratu zen Kultur Mahaia?**

I.K.: Argi zegoen antzokiaren kudeaketak izan behar zuela herritarra eta parte–hartzailea. Hala, helburua da herritarrak eta norbanakoak animatzea, eta eurek elikatzea antzokia. Denon lana da hau zabalik mantentzea.

**Zein da Kultur Mahaiaren funtzionamendua?**

I.K.: Hasiera baten, hilero elkartzen ginen; orain, inaugurazioa bertan dugula, hamabostean behin batzen gara. Nik uste dut aurrerantzean ere hala izango dela.

**Zeuk antolatuko duzue egitaraua?**

I.K.: Bai, gauzak antolatzeaz arduratuko gara.

**Kosta al zaizue egitaraua prestatzea?**

M.I.: Hainbat eragiletako kideak gaude eta bakoitzak bere proposamenak egiten ditu. Badugu esperientzia, eta moldatzen gara.

**EGITARAUA**

**URTARRILAK 23**

**13:00** Zaldibar antzokiaren inaugurazioa. Saio irekiak: 18:00, 19:00 eta 20:00.

**URTARRILAK 24**

**22:30** Demode Quartet.

**URTARRILAK 25**

**17:30** Poxpolo Ta Konpainia pailazoak.

**URTARRILAK 29**

**19:00** *Jostunak* dokumentalaren proiekzioa eta *#ehuntzen* egitasmoaren aurkezpena.

**URTARRILAK 30**

**19:00** Musika eskolakoen kontzertua.

**URTARRILAK 31**

**22:00** Gose taldearen kontzertua.

**OTSAILAK 1**

**17:00** *Nanny McPhee eta Big Bang-a* filma.

# Ganbara Txikikoak, Zubikoan, piraten altxorraren bila itsasoratzeko prest

## Biharko 'Altxorraren uhartea' musikalaren bi emanaldietarako sarrerak agortuta daude; Goiena telebistan erakutsiko dute datorren asteburuan

A. ARANBURUZABALA | OÑATI

1.100 ikusle batuko dira Zubikoa kiroldegian bihar, zapatua, Ganbara Txikik egingo duen *Altxorraren uhartea* musikala ikusteko. Emanaldi bietarako (17:30 eta 20:00) sarrera guztiak agortuta daude. Antolatzaileak gustura dira, aurreikuspenak gainditu egin dituztelako: "10.000 euroko aurrekontua du musikalak, eta, diru laguntza batzuk jaso ditugun arren, gastuen zati handiena sarreretatik ateratzeko apustua egin genuen. Erabaki horrek loa kendu digun arren, pozik gaude orain; martitzen goizean saldu genituen azkenak; hala ere, eskariak jasotzen jarraitzen dugu. Horregatik, bada, guztiei eskerrak eman gura dizkiegu, eta, bide batez, gaineratu gura dugu musikala beste herri batzuetara eramateko aukera aztertzen ari garela ekoiztetxe batekin", esan du Aitor Biain zuzendariak.


*Piraten uhartea* musikaleko partaideak astelehenean Eteo zaharreko eraikinean egin zuten entseguan. | A. A.

**Datorren astean, telebistan**

Zubikoarako sarrerarik eskuratu ez dutenek, baina, telebistan ikusteko aukera izango dute, Goiena telebistak musikal osoa grabatuko du-eta. Hirutan erakutsiko dute: urtarrilaren 24an, zapatuan, 16:00etan; eta domekan, berriz, 11:00etan eta 19:00etan.

**Musikal ezaguna, oñatiartuta**

Elkarrizketa, kantu eta dantzen bitartez, Louis Stevensonen *Altxorraren uhartea* eleberriko istorioa kontatuko dute oinarrian taularen gainean izango diren 30 artistek, bi ekinalditan banatuta dagoen eta 120 minutu irauten duen ikuskizunean.

Hainbat dira, baina, musikal ezagunari egin dizkioten moldaketak, besteak beste, euskaratu egin dutelako obra guztia; hori horrela, musika eta kantu gehienak libreto originalekoak badira ere, badaude Oñatiko abesbatza gazteak espresuki obra horretarako sortu dituenak ere. Pertsonaia asko badira ere, lau dira protagonista nagusiak –aldameneko taulan jasotakoak–. Horiek aukeratzeko egindako barne *casting*-ean, gidoiak eskatzen zuen pertsonaiaren profila eta abeslarien ahotsa zein obra ikasteko behar zen gaitasuna hartu zituen zuzendariak kontuan; eta, haren esanetan, estreinakoz badira ere protagonista paperean, guztiek gainditu dituzte zuzendariak berak zituen aurreikuspenak.

Arlo musikala albo batera utzita, ikusleak XVIII. mendera eramango dituzten dekoratuak eta bestelako osagaiak (arropak, atrezzoa...) ere etxean egindakoak dira. "Hainbat lantaldetan banatuta, guraso talde batek jardun dugu lan horietan, ideia lantzen hasi eta azkeneko margolanak bukatu artean. Gehienontzako estreinako esperientzia izan da, baina asko samurtu du gure artean izan dugun giro onak. Hiru dekoratu egin ditugu: taberna bat, itsasontzi bat eta irla bat. Horrez gainera, garaiko arropak, orrazkerak.... Ikerketa lan handia egin dugu, detaile guztiak zaintzen saiatu gara-eta", dio Mikel Altube gurasoak.



**TEO MAIZTEGI**
JIM HAWKINS

**"Aitorrek Jim mutikoa izateko proposatu zidanean, bakarrik kantatzeko beldurragatik edo, hasiera baten, ez nuen baiezko garbirik. Orain, berriz, oso pozik nago emandako aukeragatik, eta, oraingoz, lasai ere bai".**



**IRENE URZELAI**
MOLLY

**"Sekulako ilusioa egin zidan Molly izateko eskaintzak, besteak beste, orain urte batzuk nire ahizpa izan zelako Ganbara Txikiren beste lan batean protagonista. Testua ikasteko eta kantatzeko oso aholku onak eman dizkit ahizpak".**



**NAROA ZUMALDE**
JAMIE

**"Oraingoz, lasai nago, lan handia egin dugu–eta; sekulako ilusioa dut biharko. Jamie mutiko tripontzia antzezteak esperientzia berriak bizitzeko aukera eman dit. Gurasoen lana eta inplikazioa ere txalogarria eta eskertzekoa da".**



**GORKA AEANBURU**
BILLY JONES ETA L. J. SILVER

**"Dagoeneko hainbat musikal egin ditut harrobikoekin. Gogor egin dugu lan, baina, betiere, giro onean. Lehen zatian, haurrei mapa emango dien Billy Jones naiz, eta altxorra eskuratu gura duen Long John Silver, berriz, bigarrenean".**

**AITOR BIAIN**
ZUZENDARIA

### "Talde lana izan delako oinarria, musikal honek asko batu gaitu"


A. A.

Prozesu luzea eta gogorra izan den arren, Biain pozik dago emaitzarekin; eta eskertuta, erantzunarekin.

**Gozatzeko eguna heldu da.**
Alde ekonomikotik izan ditugu buruhauste handienak, eta orain, berriz, sarrerak agortu zaizkigun pena ere badugu. Ahalegin handia eskatu digu, baina funtsezkoena izan dugu: giro ona. Asko ikasi dute; artistikoki asko hazi da taldea.

**Esker on zerrenda luzea duzu, beraz.**
Askok lagundu digute: gurasoek, Udalak, diruz lagundu edo arropak zein atrezzoa itxi dizkigutenek, ikusleek... Guztiei eskerrik asko!

**Musikala egin ondoren, zeintzuk dira hurrengo erronkak?**
Ekaina bitartean bi kontzertu ditugu lotuta eta horiek prestatzen hasiko gara segituan. Oraingoz, beraz, musikalarekin atseden hartuko dugu.


*Arrastoak* antzezlana. | DEJABU

# Erantzunak aurkitzeko intrigazko bidaia

A. A. | ARRASATE

Belaunaldien arteko sentimenduen transmisioaz hitz egiten du *Arrastoak* helduentzako antzezlanak. Dejabu Panpin Laborategiak taldeak Amaia antzokian erakutsiko du domekan, (19:30). Sarrerak hamar eurotan eskura daitezke, antzokiko leihatilan eta, ohi moduan, Udalaren atarian: *Arrasate.eus*.

**Intriga eta misterioa**

"Lur pertsonaiaren laguntzarekin, intrigaz eta misterioz betetako bidaia baterako proposamena egingo diegu ikusleei", dio Ainara Gurrutxagak, Dejabu taldeko kideak, eta honela laburbildu du istorioa: "Lur txikia zela, arrastorik utzi barik alde egin zuen amak; harrezkero, etxean harrapatuta bizi den aita zainduz, bakarrik egin behar izan dio bizitzari aurre. Sekula ez du Lurrek amagatik galdetu, baina, halako batean, gutxien espero duenean, ama hilik topatuko dute, eta, gertakari horren ondorioz, urteetan barruan gorde izan dituen galderak eta kezkak sortuko zaizkio; eta ordura arte ez moduan, galdera horien erantzunen bila hasiko da".

Ainara Gurrutxagarekin batera, Urko Redondo, Miren Alkala eta Iñigo Aranbarri dira antzezleak. Lauren artean egin dute oraingoan ere antzezlanaren prozesu osoa. Musikarekin eta argiztapenarekin jantziko dituzte apenas dekoraturik dagoen taula gaina. Musika espresuki obrarako konposatu du Ander Fernandezek, eta txeloaz interpretatu ditu gero Jon Larrazek.

**Urtarrilaren 25ean Oñatin**

Azaroan estreinatu zuten, eta, harrezkero, egin dituzten emanaldietan harrera ona izan dutela dio Gurrutxagak: "Gaiarekin identifikatu direla esan digute askok. Antzerkia jolas moduan ikusteko prest dagoen edozeini gomendatuko nioke. Arrasaten izango gara, eta baita Oñatin ere.

# 'Loreak', Palm Springs-eko zinemaldiko film latino onena

26 lanen aurretik geratu da euskal zinta hori

**I.G.** | ARRASATE

Jon Garaño eta Jose Mari Goenaga zuzendarien *Loreak* filma Kaliforniako Palm Springs-eko 26. zinemaldian film latino onenaren saria lortu du.

Sari horren aurretik, Goya eta Feroz sarietarako hainbat izendapen ere lortu ditu filmak, eta Atera films banatzaileren eskutik martxoan Miamiko zinemaldian lehiatuko da *Loreak*.

**Sari garrantzitsua**

Hirugarren urtez ematen den saria da hori, eta bertan, Latinoamerikako, Portugalgo eta Espainiako filmak lehiatu dira. Euskarazko filmak, oso kritika onak jasotzeaz gainera, 10.000 dolarreko saria eskuratu du, *Magical Girl Güeros* eta *Relatos Salvajes* film ezagunak atzean utzita.

*Loreak* euskaraz egindako filma da, eta azken Donostia Zinemaldiko sail ofizialean estreinatu zen. Maitasunaz, memoriaz eta doluaz mintzo den filmak loreek batuko dituzten hiru emakumeren istorioa dauka ardatz nagusi.



*Loreak* filmeko zuzendariak, Palm Spring-sen. | MORIARTI

# Hasi dira Huhezinema film laburren jaialdirako lehen lanak jasotzen

**M.T.** | ARETXABALETA

Abenduaren 16an ireki zuten Huhezinemara lanak aurkezteko epea, eta dagoeneko jaso dituzte batzuk. Sail ofizialean hamar dituzte, oraingoz, baina azken urteetan 100 inguru jaso izan dituzte eta aurten ez dituzte gutxiago espero. Ikasleenak ere hasi dira heltzen, baina lauhileko amaieran jasoko dituzte gehienak. Gainera, datozen asteetan promozioa indartuko dute.

**Lanak bidaltzeko bideak**

Lehiaketan parte hartu nahi dutenek posta bidez edo *on line* bidali ahal izango dituzte film laburrak. Bide tradizionala hautatuz gero, Mondragon Unibertsitateko Aretxabaletako campusera bidali behar dira lanak, DVD formatuan eta eskatzen den dokumentazioarekin batera. Internetez parte hartzeko, berriz, Moviebeta plataformara igo behar dira lanak.

# Zinea eta txotxongiloak eskutik helduta Zabalotegin

Taun-taun taldeak haurrentzako 'Txio txioka' antzezlana eskainiko du domekan

**MAIALEN TORRES** | BERGARA

Zinema oso gustuko duten hiru txitaren istorioa kontatzen du *Txio txioka*-k. Bietarako dirurik ez, eta, "jatea baino, zinera joatea nahiago izaten zuten txitek", dio Itsaso Azkaratek, Taun Taun antzerki taldeko kideak. Izan ere, zinema miretsi egiten dute hiru protagonistek, baina, batez ere, Bakarty James pertsonaia dute gustuko. Zinearekiko maitasun horrek mugituko du domekan Zabalotegin ikusgai izango den istorioa. 18:00etan izango da, eta sarrerak 4 euro balio du.

Urte asko daramatza Taun Taun taldeak antzezlana oholtzetara eramaten, eta, Azkarateren arabera, "klasiko" bihurtu da dagoeneko. Oholtzara igotzean, ikusleek ondo pasa dezaten, lan "sinple, polit eta kalitatezkoa" erakustea da euren helburua.

Bernardo Atxagaren *Txitoen istorioa* moldatuz sortu zuten ikuskizuna. Esaterako, jatorrizkoan ageri ziren hamalau txitetatik, hiru baino ez daude, baina "pertsonaiak sakontasunez lantzeko" egindako hautua da hori. "Gauza txiki askorekin osatu dugu istorioa", dio Azkaratek.



*Txio txioka* antzezlaneko txotxongiloetako bat. | TAUN TAUN

**Teknika nahasketa**

Ikuskizunean, txotxongiloen eta aktoreen eskutik kontatzen da istorioa, baina argiak eta itzalek funtsezko rola dute *Txio txioka*-n.

Izan ere, mahai gainean txotxongiloak dabiltzan bitartean, argiarekin asko jolasten dutela onartu du Azkaratek, eta kontakizunaren unerik esanguratsuenetan, batez ere, asko zaintzen dutela arlo hori. Esaterako, txitek zinemara joan ezin dutenetan, itzal jokoen bidez, euren jolas bihurtzen dute zinema.

Horrez gain, ikus-entzunezkoek ere badute garrantzia. Batetik, "musika aldetik berezia" dela esan du Azkaratek, eta film labur bat ere proiektatzen dute emanaldian zehar, istorioaren barne elementu gisa.

**Familia osoarentzat**

Taun-Taun antzerki taldea helduentzako txotxongilo ikuskizunak sortzeko helburuarekin jaio zen, baina honako hau "familia guztiak gustura ikusteko modukoa" dela esan du Azkaratek.

Gainera, txiten gorabeherak aitzakia hartuta, zinemaren hastapenetara ekartzen du antzezlanak ikuslea. Historian egindako lehen western filma erabiltzen dute horretarako, *The Great Train Robbery* izenekoa, eta gizon bat kamerari aurrez aurre tiro egiten erakusteagatik ezagun dena. Antzezlana egiten 1999an hasi zirenetik oholtza askotatik pasa diren arren, ikusle gutxik daki film labur hori Super 8 formatuan proiektatzen dutela antzokian.

Horrela, istorioan harrapatuta, haurrek historia ezagutzeko aukera ere badute, ondo pasatzeaz bat. Azkaratek azaldu duenez, gainera, antzezlanak irauten duen 50 minutuetan "gurasoak ere oso gustura egoten dira", eta eurentzat ere ondo pasatzeko aukera polita da.

**Monica Guech** | Abeslaria

# "Egiten dudan musika nahasketarekin, nire tokia aurkitu dudala uste dut"

Gaur, 22:30ean, Monica Guech-ek bere ahots finarekin beteko du Espaloia antzokiaren oholtza



Monica Guech abeslaria | GOIENA

**I.G.** | ELGETA

Gazte ekin zion Monica Guechek musika ibilbideari. 12 urterekin hasi zen pianoa ikasten eta bi urte geroago idatzi zituen lehen abestiak. 2009an kaleratu zuen lehen diskoa, eta ordutik hona, ez da musikatik aldendu. Hainbat DJrekin eta musikarirekin elkarlanak egin eta gero, 2012an *La voz* programan egon zen. Rosario Floresekin ikasitakoa bere zuzeneko indartsuetan ikus daiteke. Soul, pop eta rock-and-blues estiloak nahastuta, zuzeneko original bezain arrakastatsuekin Espainiako oholtza ugaritan eskaini ditu hainbat kontzertu. Gaurko Espaloiko kontzerturako sarrerak aldez aurretik bost eurotan eskura daitezke; emanaldiaren egunean, aldiz, sei eurotan.

**Zure musikak soinu nahasketa handia dauka.**

Nire tokia topatzen saiatu naiz, eta pop doinua musika beltzarekin nahastean topatu dudala uste dut. Doinu propioa lortu dudala esango nuke, eta hori erakustera joango naiz Elgetara.

**Nondik dator nahasketak egiteko ohitura hori?**

Barruan daramat. Aita ingelesa da eta ama, aldiz, Katalunian bizi den arren, Extremadurakoa da. Nire etxean nahasketa ohiko kontu bat da.

**Akustikoa eta gertukoa, kontzertu berezia izango da.**

Oso berezia. Grabatzen bukatu berri dudan *Soul love* diskoa aurkezteko erabiliko dut. Badakit Espaloia gertuko oholtza bat dela, baina horrek, urduri jarri beharrean, motibatu egiten nau. Jendearekin harreman edo atmosfera berezi bat sortzen da eta horrek ikuskizunari indarra ematen dio.

**Emanaldia jendea ezagutu eta ikusleek zu eta zure lana ezagutzeko aukera izango da?**

Aurkezpen bikoitza izango da. Hasieran, aurrerago etortzeko asmoa nuen, baina diskoa primizian aurkezteko gonbitak erakarri egiten ninduen eta horregatik animatu nintzen. Gainera, zuk esan duzun moduan, formatu txikiko kontzertuek entzulearekin harreman zuzenagoa izateko aukera ematen du.

**Zure diskoa nolakoa da?**

*Soul love* orain arte egin dudan lan osoena dela esango nuke. Nire estiloa garatzen joan naiz, eta, ibilbidetik aldendu gabe, oso lan polita egin dudala uste dut.

**Emanaldian, zure abestiak baino ez dira entzungo?**

Ez; baina neurri handi batean, nire abestiak ezagutzera emateko kontzertua izango da, baina aldez aurretik Alicia Keys eta halako artisten zenbait abesti ere kantatuko ditut.

**Mikel Aginagalde** | Tatuajegilea

# "Ohorea da pertsona bati tatuajea egitea; bizitza osoan, norberak egindako marrazki bat eramango du"



Mikel Aginagalde, bere marrazketetan murgilduta.

ANDER GARTZIA

**ANDONI MUXIKA** | BERGARA

Mikel Aginagalde gazteari betidanik gustatzen zaio artea, eta dagoeneko bere bizitzaren parte bihurtu du. Gazteagoa zenean, marrazketa zen sentitzen zuena erakusteko era aparta. Baina denborak aurrera egin ahala, bere pasioak beste pauso bat merezi zuen premia izan zuen; horregatik, bere marrazketak betiko egitea egokitu zaio; hau da, tatuatzea. Gainera, Interneten ere erakusten ditu egiten dituen tatuajeak *(Alkandora.tumblr.com)*. Horrenbestez, bergarar gazte horrek tatuatze kontuetan izan dituen esperientziak kontatuko ditu.

**Nola erabaki zenuen tatuajeak egiten hastea?**

Betidanik marraztu izan dut, eta suertatu zitzaidan marrazten nituen gauza horiek tatuajeekin oso lotuta zeudela. Ni ez nintzen joan hori bilatzera, baina horrela izan zen. Ondoren, pixkanaka-pixkanaka mundu horretan sartzen hasi nintzen; Interneten bidez, sare sozialak erabiliz... Gainera, nire izeba tatuajegilea da, eta materiala utzi zidan; bada, horrela erabaki nuen tatuajeak egiten hastea.

**Zerk erakartzen zaitu gehien mundu horretatik?**

Etorkizuna duen zerbait dela uste dut. Eta, horretaz gain, ohorea da pertsona bati tatuajea egitea; hau da, pertsona horrek norberarengan konfiantzen du, bizitza osoan zehar eramango duen tatuaje bat egiteko. Benetan, ohore bezala ikusten dut.

**Nola prestatzen duzu tatuaje bat?**

Orain arte, nire lagunak edo gertuko jendea tatuatu ditudanez, eurekin, pertsonalki, hitz egiteko aukera izaten dut. Horrela, haiekin elkartzen naiz, zer egin nahi duten esaten didate eta horri pare bat buelta ematen diogu. Horrenbestez, tatuaje bat egin aurretik, horren zergatia, historia... jakitea gustatzen zait, eta nik ere ideiak ematen ditut.

**Zer ikasi behar da tatuatzeko?**

Tatuatzeko, marrazten jakin behar da, eta nik betidanik marrazten dut; beraz, horrela ikasi nuen. Tatuatzea marrazketa estilo desberdin bat dela esango nuke; hori bai, ardura handiagoa izan behar da; adibidez, higienea.

**Zein da zure irizpidea tatuajeak egiteko orduan? Eskatzen dizkizuten tatuaje guztiak egiten dituzu?**

Askotan pasatu izan zait jendeak esatea zerbait tatuatu nahi duela, baina ez dakiela zer. Hau da, tatuaje bat nahi dute, baina ez dakite zergatik. Momentu horretan, nik neuk ez egiteko gomendatzen dut, behintzat, zer nahi duten argi eduki arte; seguru egon arte, alegia. Izan ere, tatuaje bat betiko da, ondo pentsatu behar den zerbait da.

**Zure ustez, zergatik dago irizpide falta hori?**

Jende gutxi ikusten dut kultura artistiko onarekin. Gaur egungo hezkuntzan falta den zerbait da; irizpide falta hori, artea eskoletan ez delako ematen; ez, behintzat, eman behar den moduan.

**Zuk baduzu tatuajerik?**

Bai. Tatuajeak asko gustatzen zaizkit. Oraingoz, hainbat tatuaje ditut. Baina, egunen baten, asko miresten ditudan tatuatzaile batzuekin egoteko aukera suertatzen bazait, gustatuko litzaidake niretzat idolo bihurtu direnek tatuaje on bat egin ahal izateko aukera izatea. Horregatik, ez dut nahi nire gorputza tatuajez bete, haiekin egon aurretik. Hau arte bezala ikusten dut; honi buruz ez dakienak bere etxea koadroz josiko du, baina ez du ikusiko zer duen bertan. Nik, ordea, nahiago dut, posible bada, noski, benetan gustatzen zaidan margolari baten koadroa edukitzea.

**Gainera, bateragarriak diren ikasketak egiten dituzu, ezta?**

Bai. Arte Ederrak ikasten dihardut, diseinu arlora begira. Guztiz bateratuta daudela uste dut. Baina, hala eta guztiz ere, azkenean, arteak eta ikasketek edo lanak ez daukate zerikusi handirik. Izan ere, egongo dira iturginak direnak, baina tatuaje apartak egiten dituztenak. Nik zorte handia daukat, gurasoek Arte Ederrak ikasteko aukera eman didate-eta, benetan gustatzen zaidana.

## PERTSONALA

**Film gustukoena:** Biren artean nago; *Gangs of New York* (Martin Scorsese, 2002) eta *Rango* (Gore Verbinski, 2011).

**Bizi izateko toki bat:** Bilbo.

**Liburu gustukoena:** Komiki bat, esango nuke, *Akira* (Katsuhiro Otomo).

**Zaletasun bat:** Skatean ibiltzea.

**Leku gustukoena:** Bilbon dagoen Somera kalea.

**Amets bat:** Bizi ahal izatea gustatzen zaidan zerbaitetik, loturarik gabe.

**Janari gustukoena:** Untxia saltsan.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Oñati.** Etxebizitza salgai erdigunean. 68 metro koadro. Bi logela, komuna, sukaldea eta egongela. Guztiz hornitua. 190.000 euro. 659 72 06 64

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Erdigunean eraikuntza berriko etxebizitza ematen da errentan. Bi logela. Berokuntza indibiduala. Igogailua eta trastelekua. Bizitzera sartzeko prest. Hilean 500 euro. 653 70 84 09

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan erdialdean. Guztiz berriztua. Bi logela. Berokuntzarekin eta altzariz hornitua. 629 38 29 96

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Erdigunean hiru logelako etxebizitza hartuko errentan, prezio onean. Trasteleku edo garajearekin bada hobe, eta berdin zait altzari edo etxetresnarik gabe egotea. Etorkizunean erosteko aukerarik balego, hobe. 675 70 24 17

**Bergara.** Bi edo hiru logelako etxebizitza errentan hartuko nuke. 400 eta 500 euro artean ordaintzeko prest nago. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631 68 12 18

**Oñati.** Neska eta mutil euskaldun, langile eta arduratsuak etxebizitza bat hartuko lukete errentan. Harremanetarako deitu telefono honetara: 653 72 87 50

### 105. ETXEAK OSATU

**Bergara.** Logela ematen da errentan sukaldea eta komuna erabiltzeko aukerarekin. Leku lasaia da. WiFi-a daukagu. 637 18 07 23

**Oñati.** Etxebizitza osatzeko pertsona bat beharko genukeen bi langile gara. Interesaturik egonez gero deitu mesedez arratsaldeko 18.00etatik aurrera. 653 74 87 51

**Oñati.** Logela ematen da errentan. Ikasleei, langileei eta abar. 645 00 95 03

**Pixukide bila.** Bi langile gazte gara eta pixukide baten bila gabiltza Bergaran. Telefonoa: 605 74 78 29


INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- San Antón Abad 71 m², 3 logela. 2 aparkaleku eta txokoarekin. 85.000 €.
- San Lorenzo 85 m², 3 logela, garaje aeta trastelekuarekin. 150.000 €.
- Espoloia 95 m², 3 logela. Garajea eta trastelekuarekin.
- Masterreka 70 m², 3 logela. Igogailua eta trastelekuarekin. 130.000 €.
- Irizar pasealekua. 3 logela, igogailuarekin. 200.000 €.
- Simon Arrieta 68 m², 2 logela, 80 m2ko terrazarekin. 132.600 €.
- Simon Arrieta 69 m², 3 logela. 20 m2ko terrazarekin. 107.100 €.
- Ibargarai 73 m², 3 logela. 235.000 €.
- Zubieta 110 m², 3 logela. Hortua, lokala eta trastelekuarekin. 95.000 €.
- Fraizkozuri 162 m², 4 logela. Trastelekuarekin.
- San Pedro 73 m², 3 logela. 13 m2ko terrazarekin. 115.000 €.
- San Antonio 86 m². 3 logela, trastelekua eta garajearekin. Igogailua. 204.000 €.
- Angiozar 170 m², duplexa. Garajea, txokoa eta 180 m2ko lur sailarekin.
- Artekale 47 m², 2 logela. Berriztua. Trastelekuarekin. 100.000 €.
- Barrenkale 113 m², 3 logela, duplex berria. Igogailuarekin.
- Masterreka 72 m², 2 logela, duplexa. Trastelekuarekin. Berria estrenatzeko. 160.000 €.
- San Lorenzo 65 m2, 2 logela. Garajea eta trastelekua aukeran. Berria. 200.850 €.
- Zubiaurre 70 m², 2 logela. Erabat berriztua 180.000 €.
- Simon Arrieta 82 m², 3 logela. Igogailuarekin. 160.000 €.
- Ibargarai 57 m², 2 logela, oso ondo. Garajearekin. 215.000 €.
- Bidekurutzeta 71 m², 2 logela, erabat berriztua. Igogailua eta terraza haundiarekin. 204.344 €.
- Angiozar 60 m², 2 logela, erabat berriztua. Trastelekuarekin. 92.000 €.
- Zubiaurre 104 m², 2 logela. Berria. Igogailua. Trastelekua, Terrazarekin.
- Martoko 60 m², 2 logela, berogailua eta igogailua. 60.000 €.
- Aranerreka 79 m², 3 logela, berogailua, trastelekua. Garajea aukeran. 164.850 €.
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 100.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN
- Ibarra 129 m², 4 logela, berogailua. 150.000 €.
- Ibargarai, 60 m², 2 logela. Berria. Oso ondo. 229.000 €.
- Matxiategi, 115m², 3 logela, trastelekua eta balkoia. Berriztua. Oso ondo.

**ANTZUOLA:**
- Sagasti 140 m², duplexa. 250.000 €.
- Sagasti 86 m². 3 logela. 163 m2ko terrazarekin. AUKERA BIKAINA. 216.364 €.
- Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €.
- Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Aiherra 83 m². 3 logela. Igogailua eta balkoia.Oso ondo. Prezio ona.
- Kale Goi. Oso ondo. AUKERA BIKAINA. 125.000 €.

**SORALUZE:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri, Loralde eta Rekalde. Etxe onak.

**ELGETA:**
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90m² lursaila.

**OSINTXU:**
- Osintxu 85 m². 3 logela. Igogailua. Berriztua. 130.000 €. AUKERA BIKAINA.


# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**
Astebeteko prezioa: 17 euro / 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
**- Profesionalen moduluak.**
Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

| 1. ETXEBIZITZAK | 3. LOKALAK | 5. IRAKASKUNTZA | 7. ANIMALIAK | 9. HARREMANAK |
|---|---|---|---|---|
| 101. Saldu | 301. Saldu | 501. Jaso | 701. Saldu | 901. Agurrak |
| 102. Erosi | 302. Erosi | 502. Eman | 702. Erosi | 902. Harremanak |
| 103. Errentan eman | 303. Errentan eman | 503. Bestelakoak | 703. Eman | 903. Deiak |
| 104. Errentan hartu | 304. Errentan hartu | | 704. Bestelakoak | 904. Bestelakoak |
| 105. Etxeak osatu | 305. Bestelakoak | **6. MOTORRA** | | |
| 106. Bestelakoak | | 601. Saldu | **8. DENETARIK** | |
| | **4. LANA** | 602. Erosi | 801. Saldu | |
| **2. GARAJEAK** | 401. Eskaintzak | 603. Errentan eman | 802. Erosi | |
| 201. Saldu | 402. Eskaerak | 604. Bestelakoak | 803. Eman | |
| 202. Erosi | 403. Bestelakoak | | 804. Hartu | |
| 203. Errentan eman | | | 805.Trukatu | |
| 204. Errentan hartu | | | 806.Galdu | |
| 205. Bestelakoak | | | 807.Aurkitu | |
| | | | 808. Bestelakoak | |

## 2. GARAJEAK

### 202. EROSI

**Antzuola.** Garajea erosiko genuke Buztinzurin, Sagastin edo Ondarren. 616 22 03 63 edo 943 76 66 23

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Antzuola.** Pertsona euskalduna behar da bi haur zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 652 73 12 56

**Au-pair Irlandan.** Familia bat gara eta hiru urteko umea zaintzeko neska baten bila gabiltza otsailaren 1ean hasita, lau hilabeterako. Euskaraz jakitea oso garrantzitsua. akrarki@hotmail.com helbidera idatzi datu gehiago jakiteko.

**Au-pair Dublinen.** Gure haurrak zainduko dituen au-pair baten bila gabiltza. Familia euskal-irlandarra, Dublinen bizitzen. Urtarril erdi-bukaeran hasteko. Euskaraz hitz egitea derrigorrezkoa. Interesatua egonez gero, bidali mezua igorgon@gmail.com helbidera eta lan baldintzak/eskaintza bidaliko dizkizugu.

**Bergara.** Neska bat behar dugu asteburuetan, etxean bertan bizi izanda, emakume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuak telefono honetara deitu ezazue 669 53 97 03

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Esperientzia handiko mutila asteburuetan nagusiak zaintzeko gertu. Erreferentzia onak ditut. Interesatuak telefono honetara deitu ezazue: 662 43 08 54

**Arrasate.** Garbiketak edota plantxa lanak egingo nituzke orduka. Baita sukalde laguntzaile ere. Interesatuak telefono honetara deitu ezazue 632 23 46 19

**Bergara.** 23 urteko neska euskalduna, esperientziarekin, umeak zaintzeko prest. 685 77 40 26 edo 943 76 52 79

**Bergara.** Eskarmentua eta informeak dauzkan emakumea etxeko lanak egin eta ume zein nagusiak zaintzeko gertu. 610 34 97 88

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu, etxeetan gaixoak zaintzeko edo ospitalean. Geriatriako tituluduna. Autoa daukat. Eskarmentu handia. 600 00 51 60

**Debagoiena.** 56 urteko emakumea lanerako gertu. Eskarmentua dut umeak zaintzen, etxeko lanak egiten, garbitasunean eta baita tailerrean ere. Interesatuak telefono hauetara deitu ezazue: 647 10 58 72 edo 943 79 96 25

**Debagoiena.** Atariak garbitzen, zerbitzari edota banaketa lanak egiteko gertu nago. Gidabaimena daukat. Interesatuak telefono honetara deitu ezazue: 666 00 17 11

**Debagoiena.** Emakumea lan bila. Pazientzia handikoa eta adeitsua naiz. Etxeko lanak egiten, garbiketan edo nagusi zein umeak zaintzen lan egingo nuke. 633 74 49 54

**Debagoiena.** Eskarmentudun mutila nagusiak zaintzeko gertu. Jardun osoz edo orduka. Erreferentzia onak ditut. Telefonoa: 677 09 50 78

**Debagoiena.** Eskarmentudun neska orduka nagusi eta umeak zaintzen edo garbiketa lanak egiten jarduteko gertu. 711 75 46 90

**Debagoiena.** Garbiketa lanak, nagusiak zaindu edota jatetxean lan egingo nuke. Lege paperak dauzkat. Marta Cecilia. 671 15 96 97

**Debagoiena.** Garbiketa lanetan, nagusiak zaintzen edota sukalde laguntzaile jardungo nuke. Berehala hasteko gertu nago eta autoa daukat. 677 73 79 59

**Debagoiena.** Gizona gertu banaketa lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko. Orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izaten. 602 07 12 06

**Debagoiena.** Igeltsero margolari zein garbiketan jarduteko gertu. 609 63 38 21

**Debagoiena.** Mutil arduratsua gertu umeak edo nagusiak zaintzeko. Baita garbiketa lanak egiteko ere. Lanean berehala hasteko moduan. 622 21 59 49

**Debagoiena.** Mutil senegaldarra gertu baserriko lanetan aritzeko. 637 18 07 23

**Debagoiena.** Mutila eskaintzen da lan egiteko, pertsona nagusiak zaintzeko edo sukaldari lanetan aritzeko. Esperientziaduna. 658 74 94 63

**Debagoiena.** Mutila lan bila. 636 60 48 51

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. Garbiketan eta hoteletan lan egindakoa naiz eta soldatze zein jaso-makinak gidatzeko ikasketak ditut. 662 26 07 09

**Debagoiena.** Nagusiak edo umeak zaintzen eta garbiketan lan egiteko gertu. Esperientziaduna eta erreferentzia onekin. Interesatuak telefono hauetara deitu ezazue: 686 44 70 38 edo 606 64 16 09

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen edo elkarteak garbitzen lan egingo nuke. 603 63 21 99

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan jardungo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo orduka. Interesatuak telefono honetara deitu ezazue: 687 36 21 83

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen eta garbiketan eskarmentua duen emakume arduratsua naiz. Gertu nago etxean bertan bizi izateko edo orduka zein egun osoz lan egiteko. 662 06 18 09

**Debagoiena.** Neska arduratsua, oinarrizko geriatria eta sukaldaritza ikasketaduna, nagusiak zaindu, gauak ospitalean egin edo denetariko garbiketak egiteko gertu. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izanda. 615 06 28 04

**Debagoiena.** Neska espainiarra egunez zein gauez nagusiak zaindu eta etxeak garbitzeko gertu. Egun guztian zehar. Esperientzia dut. 633 84 65 30

**Debagoiena.** Neska gertu lanerako: zerbitzari, sukaldean, nagusiak zaintzen eta abar. Interesatuak telefono honetara deitu ezazue: 654 11 15 14

**Debagoiena.** Neska gertu umeak edo nagusiak zaintzeko. Baita garbiketa lanak egiteko ere. Berehala hasteko gertu. Telefonoa: 602 14 77 61

**Debagoiena.** Neska langile eta arduratsua nagusi eta umeak zaintzeko edo garbiketak egiteko gertu. Interesatuak telefono honetara deitu ezazue: 603 34 58 20

**Debagoiena.** Neska nagusi eta umeak zaintzeko gertu; ahal bada etxean bertan bizi izaten. 678 35 64 23

**Debagoiena.** Sukaldari laguntzaile, garbitasun lanetan edota nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Ostalaritzan lan egindakoa naiz bai garbiketan eta baita sukaldean laguntzen ere. Autoa daukat. 636 11 23 40

**Debagoiena.** Tituludun mutila gertu lorezaintzan eta araztegian lan egiteko. Gidabaimena daukat. Adrian. Interesatuak telefono honetara deitu ezazue: 943 79 82 43

**Sukaldaria.** Esperientziadun sukaldaria lanerako gertu: menuak, pintxoak, ogitartekoak eta abar egiten urtetan aritutakoa. Interesatuak telefono honetara deitu ezazue: 666 83 21 95

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Arrasate.** Irakaslea behar da bi mutili eskola partikularrak emateko. Mekatronika moduluko sistemen integrazioa eta sistema elektrikoak. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 680 82 61 97

## 8. DENETARIK

### 802. EROSI

**Elur-erraketak.** Elurretarako erraketak erosiko nituzke. 628 51 22 78

**Trikitia.** Bi ahotseko trikitia baten bila nabil. Lehentasuna, "Zero zette" edo "Polverini" markakoak. 615 71 17 82

### 803. EMAN

**Bergara.** Haurrentzat jostailu eta jolasak ematen dira. 685 77 40 26 edo 943 76 52 79

### 806. GALDU

**Argazki kamera.** Aizkorritik Arantzazura bidean argazki kamera galdu nuen abenduaren 22an. Inork aurkitu badu dei egin dezala. Interesatuak telefono honetara deitu ezazue: 605 74 67 42


b+b
batu-banatu
banaketak neurrira

Tel.: 943 08 10 50
banaketak@batubanatu.com

**Banaketa aukera ezberdinak**
- Banaketa **masiboa**.
- **Autoz auto** banatzea.
- **Kartelak** ipini.
- **Banaketa pertsonalizatua** (bezero edo hartzaile konkretuei).
- **Goiena papera eta Puntua**rekin batera, ostiraletan.

***Banaketaren jarraipena eta kalitate kontrola egiten dugu.***

Eskatu aurrekontua konpromiso barik!

Gure langileak Gizarte Segurantzan alta emanda daude eta lan-arriskuen prebentzio legedia betetzen dugu.



## ZORION AGURRAK



ARRASATE
**Aimar Merchan Garai**
Urtarrilaren 18an, 2 urte. Zorionak eta muxu potolo-potolo bat, zure familia guztiaren eta, bereziki, zure lehengusu guztien partetik. Ondo pasatu eta orain bezain alaitsu jarraitu.



ARRASATE
**Lucia Ruiz Maiztegi**
Urtarrilaren 18an, urtebete. Zorionak, printzesa! Urtebete! Ondo pasatu eguna. Anaren, Daviden eta Mararen partetik. Muxu potolo bat!



BERGARA
**Maria Galan Curado**
Urtarrilaren 18an, 10 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu hamargarren urtebetetze egunean eta baita hartuko dituzun opariekin ere. Merendola goxoa ipini, e! Muxu potolo-potoloak etxeko guztien partetik.



BERGARA
**Ainhoa Rivera Iñarra**
Urtarrilaren 17an, 4 urte. Zorionak, etxeko guztien partetik!



ANTZUOLA
**Irati Diosdado Lizarazu**
Urtarrilaren 16an, 4 urte. Zorionak, printzesi! Oso ondo pasatu eguna eta muxu pila bat, Garaziren, aitatxoren eta amatxoren partetik!



BERGARA
**June Arando Salaberria**
Urtarrilaren 16an, 11 urte. Zorionak, June! Aurten 11 urte! Txori handia egin zara! Ondo-ondo pasatu egun berezi honetan eta jaso patxo potolo bat etxekoon partetik.



OÑATI
**Irati Jausoro**
Urtarrilaren 14an, 2 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure bigarren urtebetetzean! Patxo handi-handi bat.



ARRASATE
**Alazne Canales Losa**
Urtarrilaren 14an, 7 urte. Zorionak, printzesa! Zu zara gure etxeko gimnasta onena. Musu handi bat, aitatxoren, amatxoren eta, bereziki, Aitorren partetik. A! Zazpi belarritako tirakada egongo dira.



OÑATI
**Uxue Igartua Kortabarria**
Urtarrilaren 14an, 8 urte. Zorionak, maitte! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Patxo mordoa, etxekoen partetik.



BERGARA
**June Gabilondo Kapelastegi**
